

1. ERANSKINA

LANBIDE-ERREFERENTEA

A) Lanbide-profila.

a) Lanbide-profila.

Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren tituluaren lanbide-profila zehazten duten alderdiak hauek dira: gaitasun orokorra, lanbide-gaitasunak, gaitasun pertsonalak eta gaitasun sozialak, eta Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren barnean titulu horri dagozkion kualifikazioak eta, hala denean, gaitasun-unitateak.

b) Gaitasun orokorra.

Titulu honen gaitasun orokorra da ikus-entzunezko baliabideetarako eta baliabide eszenikoetarako karakterizazioko proiektuen plangintza eta muntaketa egitea, eta protesi, ileorde eta makillaje sozial, profesional eta artistikoak diseinatzea eta egitea; horretarako, baliabide teknikoak eta giza baliabideak koordinatu behar dira eta kalitatearekin, segurtasunarekin, ingurumen-babesarekin eta guztiontzako diseinuarekin loturiko irizpideak errespetatu behar dira.

c) Kualifikazioak eta gaitasun-unitateak.

Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren tituluan biltzen diren kualifikazioak eta gaitasun unitateak honako hauek dira:

Lanbide-kualifikazio osoa:

IMP396–3: Pertsonaien karakterizazioa, honako gaitasun-unitate hauek biltzen dituen:

–UC1254–3: Pertsonaiak karakterizatzeko proiektuak egitea, proiektu artistikoen arabera.

–UC1255–3: Karakterizazio-proiektuak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

–UC0066–2: Baliabide eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillatzea.

–UC1256–3: Aurpegiko eta gorputzeko protesiak egitea karakterizaziorako.

–UC1257–3: Ile-protesiak egitea karakterizaziorako.

–UC1258–2: Ile-apainketako teknikak aplikatzea karakterizaziorako.

–UC1259–3: Pertsonaiak karakterizatzea eta makillajeko efektu bereziak egitea.

Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

IMP249–3 Ile-apainketa tekniko-artistikoa:

–UC0794–3: Protokolo teknikoak eta orrazketak egitea ile-apaindegietarako, ikus-entzunezko ekoizpenetarako eta ekoizpen eszenikoetarako.

TCP471–3: Ikuskizunetako jantziak egitea.

–UC1517–3: Proiektu eszenikoetarako janzkeraren historiari eta bilakaerari buruzko informazioa bilatzea eta biltzea.

d) Lanbide-gaitasunak, gaitasun pertsonalak eta sozialak.

- 1) Karakterizazio-prozesuak kudeatzea, baliabide material, tekniko eta pertsonalak antolatuz.
- 2) Karakterizazioko ekipoak eta produktuak hornitzeko eta mantentzeko lanak antolatzea, eta kalitatea kontrolatzea.
- 3) Karakterizaziorako pertsonaiak diseinatzea, gidoiaren eta bezeroaren zehaztapenei jarraikiz.
- 4) Karakterizazio-proiektua egitea eta, horretarako, dokumentazio teknikoa eta artistikoa lantzea eta proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa kontuan hartzea.
- 5) Karakterizazio-jarduerak zuzentzea filmaketaren edo funtzioaren barruan, produkzio-plan orokorrari jarraikiz.

- 6) Karakterizaziorako protesiak diseinatzea eta haiek egiteko lanak antolatzea, produktu, material eta teknika egokiak erabilita.
- 7) Ikus-entzunezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoetarako orrazkerak gainbegiratzea eta egitea eta, horretarako, ile-apaintetako teknikak erabiltzea.
- 8) Pertsonaien karakterizazioa gainbegiratzea eta egitea, dokumentazio teknikoaren eta baldintzatzaile eszenikoen arabera.
- 9) Makillaje profesionalak diseinatzea eta egitea, eta haiek bezeroen eta interpretatzaileen beharretara egokitzea.
- 10) Proiektua ebaluatzea, eta kalitate-arauak betetzen direla ziurtatzea.
- 11) Lanaren egoera berrietara egokitzea, eta, horretarako, norberaren lanbide-inguruneari dagokion ezagutza zientifiko, tekniko eta teknologikoak eguneratuta edukitzea, prestakuntza eta bizitzan zehar eskura dauden ikaskuntza-baliabideak kudeatzea, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.
- 12) Egoerak, arazoak edo gorabeherak konpontzea, eta horretarako ekimena eta autonomia baliatzea norberaren eskumeneko eremuan, sormena eta berritzeko eta hobetzeko gogoia erakutsiz, bai norberaren lanean, bai taldeko kideenean.
- 13) Lantaldeak arduraz antolatzea eta koordinatzea, lanaren garapena gainbegiratzuz, harreman errazak mantenduz eta lidergoa norberaren gain hartuz, eta taldean sortzen ahal diren gatazkei irtenbideak emanez.
- 14) Parekoekin, nagusiekin, bezeroekin eta bere ardura-eko pertsonekin komunikatzea, komunikazio bide eraginkorrak erabilita, informazioa edo ezagupen egokiak emanda, eta dagokion lan-eremuan parte hartzen duten lagunen autonomia eta eskumenak errespetatuta.
- 15) Norberaren eta lantaldearen lana aitzina eramatean ingurune seguruak sortzea, laneko eta ingurumeneko arriskuei aitzintzeko prozedurak gainbegiratu eta aplikatu, enpresaren arautegian eta helburuetan xedatutakoaren arabera.
- 16) Ekoizpen-prozesuen edo zerbitzuak emateko prozesuen lanbide jardueretan, kalitatearen kudeaketa, irisgarritasun unibertsala eta "guztientzako diseinua" ezartzeko prozedurak gainbegiratu eta aplikatzea.
- 17) Enpresa txiki baten sorrerarako eta funtzionamendurako oinarritzko kudeaketa egitea eta lanbide-jardueran ekimena izatea, gizarte-erantzukizunez.
- 18) Norberaren lanbide-jardueraren ondoriozko betebeharrak betetzea eta eskubideak erabiltzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorriz; eta bizitza ekonomiko, sozial eta kulturean aktiboki parte hartzea.

B) Produkzio-sistema.

a) Lanbide- eta lan-ingurunea.

Titulu hau eskuratzen dutenek enpresa edo lantegi hauetan egin ohi dute lan: ikus-entzunezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoetarako karakterizazio-proiektuak garatzen dituzten enpresetan (gehienetan pribatuak izaten dira), karakterizazioko lantegi eta estudioetan, eta makillaje profesionalean jarduten duten enpresetan. Langile autonomo gisa edo besteren kontura, banakako eta taldeko lanak egiten dituzte kudeaketa eta ikuskapen arloan, bai eta diseinu, antolamendu eta zerbitzuak emateko arloan ere; eta karakterizazioko protesiak, ileordeak eta ile-eranskinak egiten dituzte.

Honako hauek dira eginkizun eta lanpostu garrantzitsuenak:

–Karakterizatzailea.

–Makillajeburua, ikus-entzunezko baliabideetarako eta jarduketara eta emanaldi eszenikoetarako.

–Karakterizaziorako ile-apaintzailea.

- Makillatzailea, ikus-entzunezko baliabideetarako eta jarduketa eta emanaldi eszenikoetarako.
- Ile-eranskingilea.
- Karakterizazioburua.
- Ile-apaintzaileburua, ikuskizun eta ikus-entzunezko baliabideetarako.
- Karakterizazioko protesi eta efektu berezietako espezialista.
- Karakterizazioko pertsonaien diseinatzailea.
- Karakterizazioko prestatzaile teknikoa.
- Merkataritzako teknikaria.
- b) Nafarroako lurralde-testuingurua.

Gobernuak sormen-industria bultzatzeko duen estrategiaren barruan sartzen da ziklo hau Foru Komunitatean ezartzea. Estrategia hori 2017-2023 aldirako Nafarroako Kultura Plan Estrategikoaren jatorri den kultura-politikak bete beharreko helburu bikoitzean dago ezarrita: “kulturaren dimentsio sortzailea eta berritzailea ahalik eta gehien zabaltzea, gizarte garaikideek aitzinean dituzten erronkei erantzuteko”.

Sormen-industria gorabidean dagoen sektorea da, batez ere arlo digitalari eta ikus-entzunezkoen arloari dagokienez. Sektore garrantzitsutzat hartzen da balioa ematen dielako lurraldeari, ondareari eta tradizioei (ekoizpen zinematografikoetan), eta hazten ari den sektore teknologikoa eta etorkizuneko delako”.

2017-2023 aldirako Nafarroako Kultura Plan Estrategikoaren abiapuntu gisa egindako egoeraren diagnostikoan, besteak beste, ahulgune hau aurkitu da: “sektore batzuetako langileak prestatzeko beharra, haien profesionalizazioa hobetzeko”. “Prestakuntza-ekintzen bidez kulturaren profil batzuetako gaitasun profesionalak eguneratzeko premia” identifikatu da. Horrez gain, ikusi da ezen kulturaren arloak hezkuntzaren eremuarekin loturak garatu behar dituela, eta, horretarako, “araututako hezkuntzan txertatu behar direla hezkuntza-sisteman oraindik sartu ez diren eta eskolatik kanpo soilik aurki daitezkeen diziplinen irakaskuntza artistikoak, eta gehiago garatu behar direla egun araututako hezkuntzan presentzia dutenak, eta haien eskaintza goi graduetara zabaltzeko behar dela”.

Nafarroako Kultura Plan Estrategikoak proposatzen dituen ekintzen artean, Hezkuntza Departamentuarekin lan-ildo bat sustatzea dago, erdi-mailako edo goi-mailako titulazio berriak sortzeko. Titulazio horiek lehendik dauden ikastetxeetan emanen dira, helburu honekin: “Ikasteko eta prestatzeko ibilbideak, planak eta ekimenak indartzea eta/edo garatzea, bai Administrazioako langileentzat, bai lanbide-sektorearentzat, beren lanbide-gaitasunak garatu ahal izan ditzaten beren jarduera-adarreko gai espezifikoetan/teknikoetan eta zeharkako gaietan”.

Bestalde, Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea sektore egituratu, berritzaile eta dinamiko gisa definitzen da, eta sektore horren gorakada errealitate bat da gure Foru Komunitatean. Hala berresten dute zenbait ikerketak. Lortutako datuen artean, nabarmentzekoa da 2022ko urtarrian Nafarroako ikus-entzunezkoen sektoreak 144 enpresa zituela. Horrek esan nahi du 2019. urtearekiko (pandemia aurreko egoera) % 26,3 hazi zela. Gainera, azken urteotan handitu egin da filmatzeen kopurua, bai eta iraupena ere.

Nabarmentzekoa da sektore horrek goranzko joera duela eta espezializaziorantzko bidea hartu duela. Behar-beharrezkoak ditu gero eta berrikuntza handiagoa, punta-puntako teknologia (2D eta 3D diseinua, adibidez), eta nazioartekotzea. Erronka horiek berekin dakarte hezkuntza-helburu berritzaileak dituen kalitatezko prestakuntza espezifikoak garatzeko beharra. Hain zuzen ere, helburu horiek gauzatzeko ezarri da Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko Goi Mailako Zikloa, bat etorri Nafarroako Gobernuak eskualdearen eraldaketa ekonomikorako duen S4 estrategian eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuetan sektore horretarako ezarritako helburuekin.

Nafarroako ikus-entzunezko sektoreko produkzio-sarearen premiak asetzeko, lankidetzaren sinergia bat ezartzen ahalko da Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko Ziklo honen eta Ikus-entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Errealizazioko Goi Mailako Zikloaren artean.

Erakundeek produkzioak erakartzeko apustua egin dute, eta horrek erakargarri bihurtu du Nafarroako Foru Komunitatea mota guztietako filmaketak egiteko. Gainera, Foru Komunitateak Baluarte, Gayarre Antzokia eta Gaztambide Antzokia ditu. Hainbat eszenografia-proiektu gauzatzen dira erreferentzia eszenikoko gune horietan. Horregatik guztiagatik, Kultura Departamentuak Nafarroako Ikus-entzunezko Sektoreari Laguntzeko Programa garatu du, laguntzak eskaintzeko gure komunitateko ikus-entzunezko proiektuei eta proiektu eszenikoei.

Ikus-entzunezko enpresa-sareak Nafarroako Gobernua, sozietate publikoak eta eragile publiko eta pribatuak biltzen ditu helburu bateratu honen inguruan: ikus-entzunezkoen arloko aukerei eta proiektuei zerbitzua eta bultzada ematea. Enpresa-sare horri esker, ikasleek Lantokiko Prestakuntza egiten ahalko dute, oinarritzat hartuta Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Legearen garapena.

c) Prospektiba.

Titulu honen lanbide-profila teknologia berrietaranzko bilakaera izaten ari da; izan ere, ikus-entzunezko enpresek –arloko profesionalak enpresa horietan jarduten dute nagusiki– teknologia digitala erabiltzen dute, eta teknologia horrek prozesu berrien garapena bultzatu du azpisektore bakoitzean, besteak beste karakterizazioan.

Tituludunak, hirugarren sektorearen barruan, ikus-entzunezko sektorean eta ikuskizunean jarduteko gaitasuna duen profesional bati dagozkion eginkizunak beteko ditu. Pertsonaien karakterizazio-proiektuak abian jartzen esku hartzen duten giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatzearekin, antolatzearekin, gainbegiratzearekin eta kudeatzearekin lotutako jarduera guztiak eginen ditu, eta aurreikusitako kalitate-, epe- eta kostu-helburuak beteko ditu.

Lan-merkatuaren ezaugarriak, langileen mugigarritasuna eta ikus-entzunezko industriako sektoreen eta azpisektoreen arteko mugimenduak direla-eta, gaitasun anitzeko profesionalak prestatu behar dira, sektore horietako antolamendu-aldaketetara, lan-egoera berrietara eta egoera sozioekonomiko berrietara moldatzeko gai izanen direnak.

Tituludunaren profil berri bat makillatzaile profesionalarena da. Makillatzaile profesionalak, ikus-entzunezko produkzioetan ez ezik, modan, publizitatean, kultura-ikuskizunetan, aisialdian eta irudi pertsonalarekin lotutako enpresetan ere jardunen du (estetika-zentroak, saltoki handietako edertasun-atalak eta makillaje-produktuetan espezializatutako merkataritza-etxeak, besteak beste).

2. ERANSKINA

CURRICULUMA

A) Heziketa-zikloaren helburu orokorrak.

a) Karakterizazioko zerbitzuak programatu eta antolatzea baliabide material, profesional eta teknikoak aintzat hartuta, prozesuak kudeatzeko eta ezarritako helburuak betetzeko.

b) Honako eragiketa hauek planifikatu eta gauzatzea: stockak kontrolatzea, eta materiala eta aparatuak erosi eta zaintzea, biltegiatzeko baldintzak balioetsita eta dokumentazio teknikoa interpretatuta, karakterizazioko ekipoen eta produktuen hornidura eta mantentze-lanak antolatze aldera.

c) Prozesu horiekin loturiko kosmetikoak eta materialak ezagutzea, eta bakoitzaren ezaugarriak eta kontserbatzeko baldintza egokienak identifikatzea, karakterizazioko ekipoen eta produktuen hornidura eta mantentze-lanak antolatze aldera.

d) Zirriborroak egitea pertsonaien diseinua egiteko; horretarako, tresna grafikoak eta plastikoak aplikatu behar dira.

e) Aplikazio informatikoak erabiltzea pertsonaiak diseinatzeko; horretarako, 2Dko eta 3Dko diseinu digitaleko programak erabili behar dira.

f) Karakterizazio-proiektua gauzatzeko proposamenak eta aurrekontuak diseinatzea; horretarako, dokumentazio teknikoa eta artistikoa eta baldintza eszenikoak interpretatu behar dira.

g) Filmaketan edo emanaldian karakterizazio-jarduerak zuzentzeko lan-plana diseinatzea; horretarako, esku-hartzearen prozedurak, eragiketak eta sekuentziak definitu behar dira.

h) Protesiak moldekatzea eta modelatzea karakterizaziorako protesiak diseinatzeko eta nola egin antolatzeko; horretarako, materialak eta prozeduraren faseak identifikatu behar dira.

i) Ile-protesiak egitea karakterizaziorako protesiak diseinatzeko eta nola egin antolatzeko; horretarako, teknikak eta baliabideak identifikatu behar dira.

j) Ikus-entzunezko produkzioetarako eta produkzio eszenikoetarako orrazkerak muntatzeko prozedurak aplikatzea, karakterizazioko ile-apainketa egin eta gainbegiratzeko; horretarako, ilearen luzera, forma eta kolorea aldatzeko teknikak hautatu behar dira.

k) Kosmetikoak eta dekorazio-teknikak aplikatzea makillaje profesionalak diseinatu eta egiteko; horretarako, erabiltzailearen ezaugarriak erreferatu behar zaie eta/edo zirriborroari jarraitu behar zaio.

l) Efektu bereziko makillajeak egitea makillaje profesionalak diseinatu eta egiteko; horretarako, teknika eta baliabide egokiak identifikatu behar dira.

m) Makillajea, protesiak, jantziak eta karakterizazioko gainerako elementuak integratzea, pertsonaien karakterizazioa gainbegiratu eta egiteko; horretarako, diseinuaren zehaztapenei jarraitu behar zaie.

n) Prozesuak kontrolatzeko programak ezartzea, proiektuaren ebaluazioa egiteko; horretarako, neurri zuzentzaileak aztertu behar dira.

o) Sormena eta berritzeko gogoak garatzea, laneko prozesuetan eta antolaketan eta norberaren bizitzan izaten diren errorei erantzuteko.

p) Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek loturik ikaskuntzan dauden baliabideak eta aukerak aztertzea eta erabiltzea, eguneratzeko gogoari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.

q) Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratuta eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartuta, askotariko egoera, arazo edo gorabeheren aurre egiteko eta haiek konpontzeko.

r) Talde-laneko testuinguruetan lider izateko, motibatze, gainbegiratzeko eta komunikatzeko teknikak garatzea, lantaldeen antolaketan eta koordinazioa errazteko.

s) Komunikatzeko estrategiak eta teknikak aplikatzea, transmitituko diren edukietara, helburura eta hartzaileen ezaugarrietara egokituta, komunikazio-prozesuetan eraginkortasuna ziurtatzeko.

t) Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumenaren babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera; betiere, ingurune seguruak bermatzeko.

u) Irisgarritasun unibertsalari eta “guztionezko diseinuari” erantzuteko beharrezko diren lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.

v) Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko, eta gai izateko kalitatea kudeatzen duten prozedurak gainbegiratu eta hobetzeko.

w) Kultura ekintzaileari, enpresa-kulturari eta ekimen profesionaleko kulturari lotuta dauden prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarritzko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.

x) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan hartuta, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

B) Modulu profesionalak.

a) Izena, iraupena eta sekuentziazioa.

Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren lanbide-moduluen zerrenda ematen da jarraian, izena, iraupena eta denbora-banaketa zehaztuta.

KODEA	IZENA	ORDUAK GUZTIRA	ESKOLAK ASTEAN	IKASMAILA
1262	Makillaje profesionala	160	5	1.
1264	Aurpegiko eta gorputzeko protesiak sortzea	220	7	1.
1266	Ile-eranskingintza	160	5	1.
1268	Diseinu grafiko aplikatua	160	5	1.
1269	Karakterizatze eta makillatzeko produktuak	100	3	1.
1271	Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak	100	3	1.
NA01	Ingelesa I	60	2	1.
0685	Plangintza eta proiektuak	130	6	2.
1261	Pertsonaien karakterizazioa	170	8	2.
1263	Efektu bereziak makillajearen bidez	70	3	2.
1265	Karakterizaziorako ile-apainketa	130	6	2.
1267	Pertsonaien 2Dko eta 3Dko diseinu digitala	90	4	2.
1272	Enpresa eta ekimena	70	3	2.
1270	Karakterizazioko eta makillaje profesionaleko proiektua	30		2.
1273	Lantokiko prestakuntza	350		2.

- b) Lanbide-moduluen garapena.

Lanbide-modulua: Makillaje profesionala.

Kodea: 1262.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 11.

Iraupena: 160 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Makillajeko profesionalaren lan-prozedura ezartzen du; horretarako, haren jarduketa-eremua identifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profesionalaren jarduketa-eremua identifikatu du.
- b) Makillaje-etxe komertzialetako makillatzaile ofizialaren eginkizunak zehaztu ditu.
- c) Makillajeak egiteko faseak planifikatu eta sekuentziatu ditu.
- d) Sortu behar duen makillajeari buruzko dokumentazio-iturriak erabili ditu.
- e) Makillajeak egiteko erabiltzen diren teknikak identifikatu ditu.
- f) Arlo soziolaboraleko, ikus-entzunezko arloko eta esparru eszenikoko makillaje-protokoloak zehaztu ditu.
- g) Prozedura ebaluatzeko eta kontrolatzeko prozedurak zehaztu ditu.
- h) Jatorrizko zirriborroari aldaketak proposatu dizkio, prozesuaren lanketa, kalitatea eta kostua hobetze aldera.
- i) Makillaje-mota ezberdinen zirriborroak egin ditu.

2. Erabili behar dituen makillaje-mota eta koloreak zehazten ditu; horretarako, baliabide eszenikoak, ikus-entzunezko baliabideen, argazkigintzako baliabideen eta ekitaldi soziolaboralen ezaugarriak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Makillajeak sailkatzeko irizpideak ezarri ditu.
- b) Makillaje soziolaboralen ezaugarriak zehaztu ditu.
- c) Ikus-entzunezko makillaje eta makillaje eszeniko mota hautatzean eragina duten aldagaiak eta ezaugarri teknikoak zehaztu ditu.
- d) Makillajeek garai historiko bakoitzean zituzten ezaugarriak identifikatu ditu.
- e) Argiek makillajeen eragina eragina identifikatu du.
- f) Makillajeen koloreak duen eragina zehaztu du, kolorearen teorian oinarrituta.
- g) Makillajeen koloreen hautaketa baldintzatzen duten aldagaiak zehaztu ditu.
- h) Erabiltzailearen estiloa, premiak eta eskariak identifikatzeko metodoa zehaztu du.

3. Lan-eremua antolatzen du; horretarako, makillajeko produktuak eta ekipoak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Makillatzaileak lan egin dezakeen eremuen ezaugarri espezifikoak identifikatu ditu.
- b) Prestatu da eta lanpostua antolatu du.
- c) Makillatzeko behar diren produktuak, tresnak eta ekipoak hautatu ditu.
- d) Makillaje-ekipoari dagokionez, higiene-, segurtasun- eta kontserbazio-arauak aplikatu ditu.

- e) Produktu kosmetiko apaingarriak biltegitratzeko irizpideak ezarri ditu.
- f) Makillajeko maleta eta ukituen maleta antolatu ditu.
- g) Aerografoaren zati guztiak identifikatu ditu.
- h) Aerografoa muntatzeko, desmuntatzeko eta garbitzeko mekanismoak deskribatu ditu.
- i) Aerografoarekin makillatzeko behar diren konpresoreak, produktuak eta ekipoa hautatu ditu.

4. Makillaje zuzentzailearen teknikak aplikatzen ditu; horretarako, ezaugarri morfologikoekin, psikologikoekin eta larruazalaren ezaugarriekin lotzen ditu teknika horiek.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzailearen ezaugarri fisiko eta morfologikoak analizatzeko jarraibideak zehaztu ditu.
- b) Psikomorfologiako eta visagismoko teknikak aplikatu ditu obalo-mota eta aurpegiaren ezaugarriak identifikatzeko.
- c) Gorputz-tipologiak identifikatu ditu.
- d) Harmonia zehaztu du larruazalaren, ilearen eta begien kolorearen arabera, eta harmonia naturalak bereizi ditu.
- e) Larruazal-mota eta larruazalaren alterazio estetikoak identifikatu ditu.
- f) Kosmetikoak hautatzeko, kontuan hartu ditu larruazalaren ezaugarriak, aurpegiaren harmonia eta makillaje-mota.
- g) Makillajearen fitxa teknikoa eta artistikoa bete du.
- h) Teknika zuzentzailea ezaugarri morfologikoen eta lortu behar den efektu-motaren arabera hautatu du.
- i) Argi-ilunaren teknikaren erabilera justifikatu du.
- j) Makillajearen bidez, aurpegiko eta gorputzeko zuzenketak egin ditu.

5. Aurpegiko eta/edo gorputzeko makillaje profesionalen protokoloak teknika egokien bidez gauzatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzailea eroso jarri eta prestatzeko jarraibideak zehaztu ditu.
- b) Norbera babesteko ekipamenduak erabili ditu.
- c) Azala larruazalaren eta makillajearen ezaugarrien arabera prestatu du.
- d) Aurpegiko eta gorputzeko makillajearen teknika hautatzeko, kontuan hartu ditu prozesua baldintzatzen duten aldagaiak.
- e) Ordezko betileak, multzoan eta zerrendan, eta luzapenak jarri ditu.
- f) Makillajeak egiteko prozesua bete du.
- g) Aurpegiko edo gorputzeko makillajea aerografo bidez aplikatzeko prozedura zehaztu du.
- h) Makillajea finkatzeko, mantentzeko, egokitze eta eraldatzeko teknikak aplikatu ditu.
- i) Makillajea kentzeko prozesuak gauzatu ditu.
- j) Ergonomiarekin eta hezkuntza posturalarekin loturiko gomendioak bete ditu.

6. Fantasiako makillajearen protokoloak gauzatzen ditu; horretarako, aurpegiko eta/edo gorputzeko eremu jakinera egokitzen da, eta teknika egokiak baliatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Modeloari/erabiltzaileari egokitutako fantasiako makillajea diseinatu du.

- b) Erabili beharreko teknikaren arabera hautatu ditu materialak, txantiloak eta produktuak.
- c) Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajeak egiteko kosmetikoak eta osagarriak aplikatu ditu, testuren arabera.
- d) Larruazal-motaren eta makillajearen ezaugarrien arabera prestatu du larruazala.
- e) Ilea fantasiazko makillajean integratzeko prestatu du.
- f) Ezkutatzeko teknikak aplikatu ditu diseinuaren arabera.
- g) Fantasiazko produktuak aplikatzeko teknikak erabili ditu, aerografoarekin eta aerograforik gabe.
- h) Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajeak egiteko jarraibideak bete ditu.
- i) Fantasiazko makillajeak kendu ditu.
- j) Fantasiazko makillajeekin bat datozen osagarriak, atrezzoak eta jantziak egin ditu.

Edukiak.

Makillajeko profesionalaren lan-prozedura ezartzea:

–Profesionalaren jarduketa-eremua identifikatzea.

- Ekitaldi sozialetako makillajea. Ekitaldien sailkapena eta makillajearekin duten lotura.
- Lan-inguruneko makillajea. Laneko ekitaldien sailkapena eta makillajearekin duten lotura. Lan-elkarrizketa, bilerak eta bestelakoak.
- Ikus-entzunezkoetako makillajea. Telebista, zinema, bereizmen handia, zuri-beltzeko argazkigintza, koloretako argazkigintza, publizitatea eta bestelakoak.
- Makillajea baliabide eszenikoetan eta modan. Makillaje-motak ikus-entzunezko baliabidearen arabera. Makillajea, pasarela, antzerkia, zirkua, zuzeneko opera, mimoa, performancea eta beste batzuk.
- Makillaje-etxe komertzialetako makillatzaile ofiziala. Saldu aurreko, bitarteko eta ondoko egin-kizunak.

–Makillajeko protokoloak. Motak. Sekuentziazioa eta denboran banatzea. Dokumentazio-fasea. Analisi-fasea. Egikaritze-fasea. Amaitzeko fasea. Ebaluazio- eta kontrol-fasea.

–Makillaje-zirriborroaren aurkezpen grafikoa.

Makillaje-mota eta makillajearen koloreak zehaztea:

–Makillajeen sailkapena.

- Makillaje soziolaborala: motak eta ezaugarriak. Eguneko, arratsaldeko eta gaueko makillajea; gizonentzako makillajea, larruazal helduentzako eta etnia desberdinentzako.
- Ikus-entzunezko makillajea eta makillaje eszenikoa. Makillajean eragiten duten baliabideen (telebista, bideoa, zinema, antzerkia) ezaugarri teknikoak. Telebista, antzerkia, opera, dantza eta beste.
- Publizitateko, argazkigintzako eta pasarelako makillajeak. Makillajean eragiten duten ezaugarri teknikoak eta artistikoak.
- Makillaje historikoak. Ezaugarriak. Beste garai batzuetako makillajea.

–Argiak makillajearen duen eragina. Argiaren teoria makillajeari aplikatua.

- Argiaren ezaugarriak eszenografiaren ikuspegitik. Intentsitatea, norabidea, kolorea eta difusioa.
- Argiaren oinarritzko kontzeptuak. Kolore argia, kolore pigmentua. Kolorearen tenperatura. Kolore-iragazkiak.

- Argiaren koloreak pigmentuaren kolorean dituen efektuak. Argiaren efektuak, iragazkien arabera.
 - Argi-angeluak; aurretikoa, albotikoa, hiru laurden, eta beste batzuk.
- Kolorearen eragina makillajearen.
- Koloreak aukeratzea, kolore-faktoreen arabera. Distira, asetasuna eta tonua.
 - Kolorearen akaberak; distira, mate, satinatua, irisatua, purpurina, besteak beste.
- Koloreen arteko erlazioak makillajearen. Erlazio harmonikoak. Kontraste-erlazioak.
- Makillajea gama kromatikoen arabera hautatzea. Harmonia hotza, harmonia beroa eta neutroa.
 - Harmonian makillatzeko koloreak hautatzea.
 - Kontrastean makillatzeko koloreak hautatzea.
- Makillajearen erabiltzen diren koloreen hautaketarekin loturiko aldagaiak.
- Argiztapena, baliabideak, jantziak.
 - Kolorearen esanahia. Kolorearen sinbologia eta psikologia.
 - Bezeroaren estiloa, irizpide estetikoak, beharrak eta eskaerak identifikatzea. Estilo pertsonalak: klasikoa, modernoa, naturala eta bestelakoak.
 - Fitxa teknikoak egitea.

Lan-eremua antolatzea:

- Laneko espazioaren deskribapena.
 - Makillaje-kamerinoa. Argiak. Altzariak, makillaje-fitxategiak.
 - Platoko altzariak. Argiak.
 - Kanpoan makillatzeko altzariak.
- Makillaje profesionalerako lan-eremua, produktuak eta ekipak prestatzea eta antolatzea.
- Larruazala prestatzeko produktuak.
 - Aurpegirako produktuak. Garbiketa-produktuak, makillaje-oinarrien aurrekoak, makillaje-oinarriak eta bereizmen handiko makillajea, besteak beste.
 - Begietarako produktuak, itzalak, delineatzaileak, arkatzak eta bestelakoak.
 - Ezpainetarako produktuak.
- Ekipamenduen prestaketa eta antolaketa. Makillaje profesionalerako ekipak sailkatzea. Deskribapena, lanabesak eta erremintak. Maletatxo-motak. Maletatxoaren antolaketa.
- Makillaje-ekipoa garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak aplikatzea.
- Aerografoa makillaje profesionalen.
- Aerografoaren deskribapena eta zatiak.
 - Aerografoa erabiltzea, garbitzea, muntatzea eta desmuntatzea.
 - Konpresore-motak.
 - –Aerografoarekin erabiltzeko kosmetikoak.
 - Aerografoa erabiltzeko osagarriak. Txantiloak, arkatzak eta bestelakoak.

Makillaje zuzentzailearen teknikak aplikatzea:

- Obaltoa aztertzea. Aurpegi-motak sailkatzea; obalatua, karratua, triangeluarra eta bestelakoak.
- Aurpegiko zatiak eta elementuak aztertzea. Begiak, sudurra, ezpainak eta bekainak.
- Gorputz-tipologiak. Behazuntsua, nerbiosoa, linfatikoa eta odolbisia.

- Larruazalaren, ilearen eta begien kolorearen analisisa. Hiru elementu horiek erlazionatzen dituzten harmonia-taulak.
 - Aurpegiko larruazalaren fisiologiaren eta makillaje-motaren arteko lotura.
 - Kosmetikoak hautatzea bezeroaren azalaren ezaugarrien eta patologien arabera.
 - Makillajearen eta aurpegiaren harmoniaren arteko lotura.
 - Larruazalaren tonalitateak, ilea, begiak, adina eta sexua, besteak beste.
 - Makillaje bidezko teknika zuzentzaileak: aurpegiaren eta gorputzaren visagismoa. Aplikazio-prozedura.
 - Argi-iluna aplikatzeko teknikak eta arauak.
 - Bolumenak eta lerroak aldatzeko teknika. Obaloak, masailalbo-hezurak eta bekokiak.
 - Begiak zuzentzeko teknikak. Begien forma, tamaina eta begien arteko distantzia aztertzea. Begiak makillatzeko moduak: banana, uve eta beste batzuk.
 - Ezpainak zuzentzeko teknikak. Ezpain-moten sailkapena eta zuzenketak. Profilatzea eta makillatzea.
 - Bekainak zuzentzeko teknikak. Bekainak aurpegiaren arabera aztertzea. Makillajea, depilazioa eta estalketa.
 - Larruazalaren akatsak zuzentzea.
 - Larruazalaren tonalitatea zuzentzea. Larruazalaren kolore-alterazioak eta tatuajeak kamuflatzeko teknikak.
 - Makillajearen fitxa teknikoa eta fitxa tekniko artistikoa egitea.
- Aurpegiko eta gorputzeko makillaje profesionaleko protokoloak gauzatzea:
- Makillaje-prozesuaren aurreko faseak. Modeloa eroso jartzea eta babestea. Larruazala garbitzea eta prestatzea. Makillaje-proba.
 - Makillatzeko produktuak aplikatzeko teknikak.
 - Makillaje-hondoak aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak. Testura, aplikatzeko materiala eta maniobrak, besteak beste.
 - Begietan makillajea aplikatzeko teknikak. Aplikazio-parametroak.
 - Ordezko betileak aplikatzeko teknikak. Multzotan, zerrendan eta luzapenetan. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak.
 - Ezpainetan eta masailetan kosmetikoak aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak.
 - Aerografo bidez aplikatzeko teknikak. Aplikazioa baldintzatzen duten parametroak.
 - Makillajea finkatu eta amaitzeko, mantentzeko, egokitzeko eta eraldatzeko teknikak. Produktu finkatzaileak.
 - Prozesuaren aldagarritasuna makillaje-motaren arabera: eguneko, arratsaldeko eta gaueko makillajea; koktel, jai, pasarela eta zeremonietarako makillajea; argazkigintza, publizitate, telebista, bideo, zinema eta antzerkirako makillajea; garaiko makillajeak, kamuflatzeko makillajea, eta abar.
 - Makillajea kentzeko prozesua. Makillajea kentzeko teknika. Makillajea kentzeko eta larruazala lasaitzeko eta babesteko produktuak hautatzea.
 - Ergonomia eta hezkuntza posturala makillaje-prozesuan. Profesionalaren eta modeloaren ergonomia.
 - Makillajearen emaitzak ebaluatzea.

Fantasiatzko makillaje-protokoloak gauzatzea:

–Fantasiatzko makillajeen sailkapena.

- Makillatu beharreko eremuaren arabera. Aurpegiko makillajea. Gorputzeko makillajea.
- Aukeratutako motiboaren izaeraren arabera: loreak, fauna, paisaiak, izua, besteak beste.
- Erabilitako teknikaren arabera. Eskuz, pintzelekin edo belakiekin. Aeroografoa txantiloiekin.

–Fantasiatzko makillaje-prozesuaren aurreko faseak:

- Makillajea kentzea, eta larruazala garbitzea eta prestatzea.
- Diseinuaren arabera, gorputzeko eta aurpegiko eremu jakin batzuk ezkutatzea; bekainak, pubisa eta areola.
- Ilea prestatzea fantasiatzko makillajearen integratzeko. Orrazkera eta ile-euskarriak.

–Fantasiatzko makillajerako teknikak.

–Aurpegiko eta gorputzeko fantasiatzko makillajea egitea.

–Fantasiatzko makillajea kentzeko prozesua.

- Aurpegiko makillajea kentzea. Aplikatutako teknikaren araberrako produktu espezifikoak.
- Gorputzeko makillajea kentzea. Aplikatutako teknikaren araberrako produktu espezifikoak.
- Osagarriak kentzea. Garbitu eta zaintzea.

–Fantasiatzko makillajearen emaitzak ebaluatzea, kalitate-kontrolari jarraituz.

–Fantasiatzko makillajerako atrezzoak, osagarriak eta jantziak egitea. Erabilitako materialak identifikatzea.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide modulu honek karakterizazioaren, enpresa espezializatuen eta estetikaren arloetan aurpegiko, gorputzeko eta fantasiatzko makillajeak diseinatzeko eta egiteko behar den prestakuntza ematen du.

Irakasteko eta ikasteko egoerak eta/edo jarduerak eta ebaluatzekoak zehazteko, komeni da prozedurazko edukien inguruan egituratzea egoera eta/edo jarduerak horiek. Lan-unitateetan kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak txertatuko dira, aurreikusitako prozedurazko edukiak garatzeko hala egitea komeni den heinean. Lan-unitateren batek kontzeptuzko egitura badu, komeni da edukiak ulermen-zailtasunaren arabera antolatzea (errazetik konplexura), bai eta ikasleen esku-hartzea sustatuko duten metodoak erabiltzea ere.

Jarrerazko edukiak ere garrantzitsuak dira, eta ezinbestekoa da ikasleek eduki horiek ulertzea, bere egitea eta betetzea, irudi pertsonal zaindua izan dezaten eta etorkizuneko lanbidean erantzukizunez joka dezaten.

Irakaslearen esku-hartzea, hasiera batean, ikaskuntza-egoerei dagozkien prozedurak gauzatzean oinarrituko da, ikasleek eredu orientatzaile bat izan dezaten prozedura horiek, gero, beren kasa gauzatzeko. Ondotik, ikasleak gero eta autonomia eta ekiteko ahalmen handiagoa eman behar zaizkio.

Edukiak honela sekuentziatzea proposatzen dugu: hasteko, “Makillajeko profesionalaren lan-prozedura ezartzea” multzoa landuko da; hartara, ikasleak makillajearen prozesuaren fase guztiak planifikatu, sekuentziatu eta dokumentatzen ahalko ditu, bai eta zirriborro egokienak hautatu eta egin ere, zer bitartekorako diren kontuan izanik.

Jarraian, “Lan-eremua antolatzea” multzoa landuko dugu, eta makillatzaileak non lan egin dezakeen, zer tresna eta kosmetiko behar izanzen dituen eta laneko ekipoa garbitzeko eta desinfektatzeko zer egin behar duen zehaztuko dugu.

Horren atzetik, “Makillaje-mota eta makillajearen koloreak zehaztea” multzoa dator; bertan, makillaje-motak eta makillajearen koloreak zehaztuko ditugu eta, hartara, ikasleek jakintza oso garrantzitsuak

eskuratuko dituzte; adibidez, zer propietate dituzten koloreek, nola eragiten duen argiak makillajeetan eta zer makillaje-mota dauden zer ekitalditarako diren kontuan izanik.

Segidan, “Makillaje zuzentzailearen teknikak aplikatzea” multzoan, aurpegiaren eta gorputzaren morfologia eta visagismoa aztertuko ditugu, fitxa teknikoak egiteko eta makillaje zuzentzailearen teknikak aplikatzeko.

Aurpegiko eta/edo gorputzeko makillaje profesionalak egitean (“Aurpegiko eta gorputzeko makillaje profesionalako protokoloak gauzatzea” multzoa), komeni da edukia zeharka lantzea. Ikasleek, hasteko, makillaje errazenak eginen dituzte, eta, prozedurak eta kontzeptuak zabaltzen doazen heinean, lan zailagoak gauzatuko dituzte, teknika eta tresna egokiak hautatuko dituzte, eta betileak, osagarriak, apaingarriak eta abar jartzen ikasiko dute.

Makillaje motetan eta konplikazioan aurrera egin ahala, “Fantasiazko makillaje-protokoloak gauzatzea” multzora iritsiko gara. Multzo honetan, teknika eta tresna egokiak hautatzeaz gain, gorputzeko zenbait eremutako ilea ezkutatzeako teknikak aplikatu behar ditugu. Prestakuntza osatzeko, ezkutatzeako materialak eta fantasiazko makillajeak kentzen ikasi behar dugu.

Nola erabili baliabideak. Iradokizuna:

–Ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea gomendatzen da.

–Sektoreko beste profesional batzuekin jarduerak, erakustaldiak eta masterclassak egitea proposa daiteke, azken berrikuntzen, joeren, kosmetikoen eta abarren berri izateko.

Ikasgela-tailerrean, metodologia aktiboa eta dinamikoa erabiltzea komeni da, ikasleen ikaskuntza bultzatzeko, metodologia hori egoera errealetan erabiltzea baita helburua.

Irakaslearen esku-hartzea, hasiera batean, ikaskuntza-prozedurak azaltzean eta erakustean oinarrituko da, ikasleek eredu orientatzaile bat izan dezaten prozedura horiek, gero, beren kasa gauzatzeako. Ikasleek ezagutzak eta trebetasuna eskuratu ahala, irakasleak orientazioa eta laguntza eskainiko dizkie, eta autonomia emanen die ebazteko ahalmena eskuratu dezaten. Irakasleek ikaskuntza-prozesuen hurbileko jarraipena egin beharko dute, eta ikasleen aurrerapenak eta zailtasunak jasoko dituzte.

Gauzatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueretan, ikasleek gai izan behar dute makillaje-motak bereizteko. Hasteko, ikasleak beren artean makillatuko dira. Komeni da lan bakoitzean modeloa desberdina izatea; horrela, ikasleek aukera izanen dute askotariko morfologiak lantzeko, bai gorputzekoak, bai aurpegikoak.

Ikasleei beren argazkiak, makillaje-diseinuak eta zirriborroak ekartzea proposa dakieke, beren albuma egin dezaten.

Makillaje Profesionala modulua zikloko hurrengo modulu hauekin dago lotuta, eta, horregatik, koordinatu egin behar dira:

–Karakterizatzeako eta makillatzeko produktuak: Karakterizaziorako kosmetikoak eta produktuak identifikatzea; aurpegiko eta gorputzeko kosmetikoak hautatzea; karakterizaziorako produktuak eta kosmetikoak erabiltzeak dakartzan arriskuak identifikatzea.

Lanbide-modulua: Aurpegiko eta gorputzeko protesiak sortzea.

Kodea: 1264.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 13.

Iraupena: 220 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Aurpegiko eta gorputzeko protesi-mota zehazten du, eta, horretarako, proiektu artistikoen eta modelo nahiz interpreteen premiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Protesi ez-iletsu motak eta haien ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Pertsonaia karakterizatzeko behar diren aurpegiko eta gorputzeko protesiak identifikatu ditu, proiektu artistikoen betekizunen arabera.
- c) Pertsonaia definitzen duten ezaugarri fisiko, psikologiko eta sozio-ekonomikoak identifikatu ditu.
- d) Modeloaren edo aktorearen ezaugarri morfologikoak identifikatu ditu.
- e) Pertsonaia definitzen duten ezaugarriak modeloaren edo aktorearen ezaugarriekin erlazionatu ditu.
- f) Eskuzko euskarrian edo euskarri informatikoan egin ditu protesien zirriborroak.
- g) Jatorrizko zirriborrorako aldaketak proposatu ditu, haien lanketa eta kalitatea hobetzeko eta kostua murrizteko.
- h) Protesiaren eredia hautatu du, modeloaren edo aktorearen ezaugarriak kontuan hartuta.
- i) Larruazaleko protesiak manipulatu, aplikatu eta erabiltzean kontrako ondorioak prebenitzeko metodoak ezarri ditu.
- j) Lan-fitxan erregistratu ditu prozesuan bildutako datuak.
- k) Jabetza intelektualarekin lotutako legediari antzeman dio.

2. Protesiak egiteko protokoloa ezartzen du, eta, horretarako, prozesuaren sekuentzia eta aldagaiak aztertu eta justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Protesi ez-iletsuak egiteko prozedurak identifikatu ditu.
- b) Egikaritze-faseak zehaztu ditu.
- c) Faseak planifikatu eta sekuentziatu ditu.
- d) Prozesu horiekin lotutako dokumentazioa erabili eta sortu du.
- e) Talde-lana baloratu du.
- f) Karakterizazioaren berezko terminologia identifikatu du.

3. Protesiak egiteko eremua antolatzen du, eta, horretarako, lan-eremuak identifikatzen eta segurtasunari eta higieneari buruzko arauak betetzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko eremua betekizun teknikoen arabera antolatu du.
- b) Azken emaitzan eragina izan dezaketen ingurumen-faktoreak zehaztu ditu.
- c) Lantzeko prozeduran erabili diren tresnen ezaugarriak zehaztu ditu.

- d) Materialak eta produktuak funtzionaltasun-irizpideen arabera banatu ditu.
- e) Kontuan hartu ditu prozesuetako segurtasunari eta higienerari buruzko betekizunak.
- f) Erabilitako teknikaren arabera babes-neurriak ezarri ditu, bai erabiltzailearentzat, bai profesionalarentzat.
- g) Instalazio, tresna eta aparatuak mantentzeko, garbitzeko eta desinfektatzeko metodoak aplikatu ditu.
- h) Erabiltzailea artatzeko eta eroso jartzeko prozedurei jarraitu die.

4. Karakterizatu behar den eremuaren inpresioak hartu eta positibatzeko prozesua antolatzen eta gauzatzen du; horretarako, jarduketa-faseak sekuentziatu eta baliabideak eta prozesuaren aldagaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Prozesu osoan senti daitezkeen sententzioak zehaztu ditu.
- b) Inpresioa hartzeko materialaren hautaketa justifikatu du.
- c) Inpresioa hartu aurretik, larruazala prestatu eta ilea babestu ditu.
- d) Modeloaren inpresioa hartzeko egin behar diren kalkuluak egin ditu eta neurketak, pisatzeak eta produktu-nahasketak gauzatu ditu.
- e) Oinarriaren nahasketa eta katalizatzailea/ura behar den moduan eta denboran aplikatu ditu.
- f) Moldea irekitzeko sistema zehaztu du.
- g) Moldea positibatzeko, eskaiola edo beste produktu batzuk isuri ditu.
- h) Positiboa artezteko sistema hautatu du.
- i) Inpresioa hartu ondoko larruazalaren zainketak ezarri ditu.
- j) Eredu nagusia sortzeko prozesuaren kalitatea ebaluatu du.

5. Protesiak sortu aurreko modelaketa eta moldaketa antolatzen eta gauzatzen du; horretarako, jarduketa-faseak sekuentziatu eta baliabideak eta prozesuaren aldagaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Modelatzeko erabili behar diren produktuak identifikatu ditu.
- b) Modelatze-teknika deskribatu du.
- c) Jarduteko sekuentzia ezarri du.
- d) Tresnak eta erremintak gauzatu behar den teknikaren arabera aukeratu ditu.
- e) Testurizatzaileak sortzeko metodoa ezarri du.
- f) Modelatua errazteko bere tresnak egin ditu.
- g) Amaiera-teknikak lotu ditu egindako prozesuarekin.
- h) Moldetik ateratzeko jarduketa-sekuentzia ezarri du.
- i) Aurrerago positiboa lortzeko moldeak nola prestatu zehaztu du.
- j) Moldeak kontserbatzeko eta etiketatzeko moduak deskribatu ditu.

6. Karakterizaziorako protesiak sortzen ditu, eta, horretarako, positibatzeko teknikak aplikatzen ditu sortutako moldeen gainean.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Protesiak sortzeko materialaren eta tresnen aukeraketa justifikatu du.
- b) Egikaritze-faseak zehaztu ditu.

- c) Protesia positibatzeko egin behar diren kalkuluak egin ditu eta neurketak, pisatzeak eta produktu-nahasketak gauzatu ditu.
- d) Produktua aplikatzeko, isurtzeko, injektatzeko edo kapsulatzeko teknikak gauzatu ditu, ezarritako prozedurari jarraikiz.
- e) Denbora eta modu egokian egin du lehorketa.
- f) Protesia moldetik bereizi du; horretarako, moldetik ateratzeko sistema aukeratu du.
- g) Protesien azken emaitzan eragina duten faktoreak ezarri ditu.
- h) Positibatzeko teknika egokiena zehaztu du, erakutsiko diren baliabideak kontuan hartuta.

7. Ile-euskarriak, hortz-protesiak eta animatronikak egiteko teknikak aplikatzen ditu; horretarako, jarduketa-sekuentzia identifikatzen du eta baliabideak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ile-euskarriak, hortz-protesiak eta animatronikak egiteko jarduketa-sekuentzia ezarri du.
- b) Prozesuaren aurreko teknikak hautatu ditu.
- c) Modelo/interpretari neurriak hartu dizkio, egin behar den protesien arabera.
- d) Ile-euskarriak egiteko produktuak, oinarriak eta tresnak aukeratu ditu.
- e) Ile-euskarriak egiteko produktuak oinarriaren gainean aplikatu ditu, ezarritako prozedurari jarraikiz.
- f) Ile-euskarria lehortu du, behar den moduan eta denboran.
- g) Protesia moldetik bereizi du.
- h) Hortz-protesiak egin ditu.
- i) Erreproduzio errealak eta/edo fikziozkoak egin ditu.
- j) Protesia mekanizatzeko sistemak deskribatu ditu.
- k) Protesi mekanizatuaren funtzionamendua egiaztatu du.

8. Egindako larruazal-protesien probak egiten ditu; horretarako, kontrol-prozedurak aztertzen eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proba egiteko prozedura ezarri du, protesi-motaren arabera.
- b) Ertzen egoera egiaztatu du eta trokelatutako pieza bereizi du.
- c) Protesia karakterizatu behar den eremura egokitu du, prozedurari jarraikiz.
- d) Produktu itsasgarriak kalitate- eta higiene-arauak betez aplikatu ditu.
- e) Ertzak degradatzeko, difuminatzeko eta konpontzeko teknikak deskribatu ditu.
- f) Protesiko akatsak detektatu eta zuzentzeko metodoa aplikatu du.
- g) Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero bete behar diren jarduketa-neurriak definitu ditu.
- h) Egindako protesiak zaintzeko eta biltegiratzeko jarraibideak ezarri ditu.
- i) Moldeak eta protesiak sortzeko prozesuaren kalitatea ebaluatu du.

Edukiak.

Aurpegiko eta gorputzeko protesi-mota zehaztea:

–Gidoi bat interpretatzea. Gidoia banakatzea. Informazio-bilketa. Karakterizazioa interpretatzea.

- Ezaugarri fisikoen eta psikologikoen analisia.

- Testuinguru historikoaren analisia.
- Pertsonaiaren osagarriak eta garaiarekin duten erlazioa identifikatzea.
- Pertsonaiaren eta aktorearen arteko analisi konparatiboa.
- Modeloaren edo aktorearen ezaugarri morfologikoak identifikatzea. Pertsonaiaren ezaugarriak identifikatzea.
- Modeloaren edo aktorearen ezaugarri naturalak aztertzea, pertsonaiarentzat baliagarriak izan daitezkeen ikusteko.
- Zirriborroak eskuko euskarrian edo euskarri informatikoan lantzea eta aldatzea. –Jatorrizko zirriborroan aldaketak egitea proposatzea, lanketa eta kalitatea hobetzeko eta kostua, murrizteko.
- Pertsonaia sortzeko behar diren protesi ez-iletsuak deskribatzea eta sailkatzea. Protesi ez-iletsu moten sailkapena.
 - Protesi partzialen ezaugarriak. Aurpegikoak eta gorputzekoak.
 - Protesi osoen ezaugarriak. Aurpegikoak eta gorputzekoak.
 - Pertsonaia karakterizatzeko behar diren aurpegiko eta gorputzeko protesiak hautatzea, proiektu artistikoaren betekizunen eta modelo edo aktorearen ezaugarrien arabera.
- Larruazaleko protesiak egin eta egokitzeko erabiltzen diren produktuei dagokienez, kontrako ondorioak prebenitzeko neurriak aplikatzea. Kontrako ondorioak sufritzeko eremu sentiberenak identifikatu eta babestea.
 - Tolerantzia-probak egitea produktuei.
- Prozesuaren lan-fitxa egitea.

Protesiak egiteko protokoloa ezartzea:

- Protesiak egiteko prozedura-motak.
 - Modelatze bidez.
 - Moldeatze bidez.
- Fabrikazio-prozesua planifikatzea.
- Prozesua dokumentatzea.
- Protesiak egiteko prozesuaren faseak sekuentziatzea. Lana taldeka antolatzea, materialak hautatzea, inprimatzea, positibatzea eta modelatzea.
- Protesiak egiteko prozesuaren berezko terminologia.

Protesiak egiteko eremua antolatzea:

- Laneko eremua. Ezaugarriak eta kokapena.
- Protesiak egitean eragina duten ingurumen-faktoreak. Temperatura, hezetasuna, aireztapena, gasen kontzentrazioa eta beste. Protesiak egiteko ekipamendua.
- Fabrikatze-prozesuan erabiltzen diren tresnak. Prozesuaren sekuentziazioaren araberako sailkapena.
- Prozesuko segurtasun- eta higiene-neurriak.
 - Profesionala eta modeloa babesteko neurriak.
 - Instalazioak, tresnak eta aparatuak garbitzea, desinfektatzea eta mantentzea.
 - Modeloa eroso jartzea.
- Protesiak egiteko ekipoak.
- Fabrikatze-prozesuan erabiltzen diren tresnak.

Karakterizatu behar den eremuaren inpresioa hartzeko prozesua antolatzea eta gauzatzea, eta inpresioa positibatzea:

- Inpresio-motak eremuaren arabera (aurpegia eta gorputza) eta erabili den materialen arabera.
 - Alginatoa. Nahasketarako ehunekoa. Denbora eta modu egokiak.
 - Silikona. Oinarria katalizatzailearekin nahasteko prozesua. Denbora eta modu egokiak.
- Inpresioa hartu aurretiko teknikak.
 - Modeloaren posizio ergonomiko egokia.
 - Modeloaren larruazala babestea.
 - Modeloaren jantziak babestea.
- Ilea babesteko teknikak. Ilea-euskarriekin edo film-paperarekin.
- Inpresioa hartzeko prozesua baldintzatzen duten parametroak. Partziala edo osoa den, horren arabera. Neurriak.
- Modelo/interpretearen moldea irekitzea. Inpresio-hartualdia kentzeko ordena.
- Molde nagusia positibatzea.
 - Molde-motak. Hutsa, barne-betea eta heldulekuduna.
 - Eskaiola hustea, desmoldekatzea.
- Positiboa zuzentzea. Akatsak zuzentzeko erabiltzen diren tresnak eta materialak.
 - Ilea-euskarriak, bekainak eta betileak artezteak.
 - Balizko akatsen gainean modelatzea.
- Positiboaren kopia, partziala, osoa, oinarriduna eta oinarri gabea.
- Larruazalaren zainketa, inpresioa hartu ondotik.

Protesiak sortu aurretiko modelaketa eta moldaketa antolatu eta gauzatzea:

- Modelatzeko materialak. Plastilinen, buztinaren eta argizarien ezaugarriak eta propietateak. Hautaketa-irizpideak.
- Modelatze-prozesuaren aurretiazko teknikak.
 - Aurpegiko zona gatazkatsuak identifikatzea.
 - Materialen kokapena.
 - Hezur-egitura identifikatzea.
- Modelatze-motak. Abantailak eta eragozpenak. Sekuentziazioa eta gauzatzearen ordena. Neurriak.
 - Bolumenera hurbilketa. Hezur-egitura identifikatzea. Espatula bidez lisatzea. Bolumenak eta norabideak definitzea. Gainazalak lisatzea eta artezteak. Zimurrak eta sakonuneak markatzea.
- Testurak edo testurizatzaileak sortzea.
 - Erabilitako teknikak. Egiturak lisatzea, lerroen bidez integratzea eta bestelakoak.
 - Erabilitako materialak. Hustugailuak. Artile-orratzak, porodun belakiak eta bestelakoak.
- Moldekatzeko teknikak. Molde-motak eta haien ezaugarriak.
 - Formaren eta tamainaren arabera. Molde ama, laua, partziala, kontramoldea eta bestelakoak.
 - Erabiltzen diren materialen arabera. Malguak eta zurrunkak.
- Moldeak zigitatzea. Erabiltzen diren produktuak. Aplikatzeko teknikak.
 - Moldeak kontserbatzea eta etiketatzea.

Karakterizaziorako protesiak lortzea:

- Protesiak egiteko egikaritze-faseak.

- Protesien positibo-motak.
- Positibatzeko produktuak teknika egokienarekin lotzea. Latexa, silikona, aparra, gelatina, beste batzuk.
- Protesiak positibatzeko prozedura.
 - Produktuak kalkulatzeko, neurtzeko, pisatzeko eta nahasteko teknikak.
 - Isurtzeko eta pintatzeko, injektatzeko eta kapsulatzeko teknikak.
 - Teknika sekuentziaztea.
- Materialak lehertzeko teknikak. Labeak erabiltzea: ezaugarriak, tenperaturak eta esposizio-denbora. Lehorgailuak eta hozkailuak.
- Protesiak desmoldekatzea. Protesia moldetik bereizteko prozesua. Protesia positiboaren gainean probatzea.
- Positibatzeko teknikaren eta erakutsiko den baliabideen arteko lotura.

Ile-euskarriak, hortz-protesiak eta animatronika egiteko teknikak aplikatzea:

Ile-euskarriak eta hortz-protesiak lortu aurreko teknikak.

- Neurriak hartzea.
 - Burua erreferentziazat hartuta, neurriak hartzea.
 - Ahoaren inpresioa hartzea. Erabilitako produktuak eta materialak.
- Ile-euskarriak egiteko prozedura. Ile-euskarri-motak. Ile-euskarrietarako materiala hautatzea. Latexa eta plastikozko materiala. Materialen alde onak eta alde txarrak. Haien erabilerako segurtasuna eta higiea. Materialak euskarrian aplikatzea. Sekuentziazioa eta gauzatzearen ordena. Protesia moldetik bereiztea.
- Hortz-protesiak. Motak. Ezaugarriak. Inpresioa hartzea: erabilitako materialak eta produktuak. Sekuentziazioa eta gauzatzearen ordena. Hortz-formak modelatzea: partzialak edo osoak, beste batzuk.
- Animatronikak egiteko prozedura. Mekanismo elektronikoak. Animatronikak fabrikatzeko prozesuaren sekuentziazioa eta gauzatze-ordena.
 - Aerografo bidezko akabera-teknikak.
 - Protesi mekanizatuen funtzionamendua egiaztatzea.
- Protesiak egiteko eta animatzeko aukeratutako teknikaren eta ikus-entzunezko baliabidearen eta baliabide eszenikoaren arteko lotura.

Egindako larruazaleko protesien proba egitea:

- Protesiaren egoeraren kontrola. Protesiaren kalitatea zehazten duten baldintza teknikoak egiaztatzea. Protesiak hautatzea eta prestatzea.
- Proba egiteko prozedura, fabrikatutako protesi-motaren arabera.
 - –Modeloa prestatzea. Larruazala garbitzea eta tratatzea, ilea prestatzea.
 - Protesiak kokatzeko parametroak.
 - Protesiak doitztea. Gidak bistaratzea protesietan eta larruazalean.
 - Itsaspen-teknika eta -produktuak.
 - –Protesiak jartzeko segurtasun-arauak.
- Akatsak hautematea eta neurri zuzentzaileak aplikatzea. Protesiaren ertzak degradatzea. Ebakitzea, egokitzea eta aldatzea. Produktuak.
- Narritadurak edo alergia daudenean jarduteko protokoloa.

- Protesiak kentzea. Modeloaren larruazala garbitzea eta leheneratzea.
- Protesiak kontserbatzea.
 - Garbigarriak.
 - Lehortzea. Positiboen gainean jartzea.
- Protesiak biltegiaratzeko.

Orientabide didaktikoak.

Modulu hau, funtsean, prozedurazkoa da. Irakasleen lana jarduera praktikoko egokiak aukeratzea da –jarduerok zailtasun txikienez handienekora ordenatuko dira–, ikasleek lanerako trebetasuna eta konfiantza eskura ditzaten.

Hasiera batean, komeni da irakasleak ikaskuntza-egoerei dagozkien prozedurak gauzatzen parte hartzea, ikasleek eredu orientatzaile bat izan dezaten prozedura horiek, gero, beren kasa gauzatzeko.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren banan-banako jarraipena egingen du egunero. Horretarako, kontrol-koaderno batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

Lana bakarka edo taldeka egin daiteke. Bi kasuetan, metodologiak eta edukiak eguneratzearekin lotutako dokumentu-iturriak eta informazioa bilatzea sustatuko da. Horretarako, argitalpen espezializatueta edo onlineko baliabideetara jotzen ahalko dute.

Edukiak honela sekuentziatzea proposatzen da: hasteko “Aurpegiko eta gorputzeko protesi-mota zehaztea” multzoa emanen da. Horrez gain, pertsonaiaren ezaugarrien arabera zirriborroak egiten eta pertsonaren edo aktorearen azterketa morfologikoa egiten irakatsiko da. Hartara, ikasleek landu nahi duten pertsonaiaren profila zehazten ahalko dute. Lehen zati hori garatu ondotik, “Protesiak egiteko protokoloa ezartzea” multzoan zehaztutako prozedura-mota guztiak, materialak, ekipoak, tresnak eta erremintak ezagutu eta identifikatzearekin jarraitzea komeni da.

Protesiak egiteko prozesuko eragiketaren bat egiten hasi aurretik, kontuan izan behar dira segurtasun- eta higiene-neurriak, bai eta laneko arriskuen prebentzioko arauak ere; lan-eremua ongi antolatua izan behar da, eta, horretarako, prestakuntza ibilbide osoan zehar garatu behar da “Protesiak egiteko eremua antolatzea” eduki-multzoa.

Gero, protesia pertsonaiaren eskakizunen arabera lortu ondotik, hautatutako materialean “Ile-euskarriak, hotz-protesiak eta animatronikak egiteko teknikak aplikatzea” multzoko teknikak aplikatu daitezke. Komeni da bloke hori inpresioa hartu aurretik garatzea.

Jarraian, karakterizatu beharreko eremuaren inpresioa hartu, pieza positibatu, eta hura moldetik aterako da, betiere inpresioa hartzeko prozesua baldintzatzen duten parametroak errespetatuta eta prozesu horretan kontuan izan beharreko alderdiak ahaztu gabe. Segidan, “Protesiak sortu aurretiko modelaketa eta moldaketa antolatu eta gauzatzea” multzoko edukiarekin jarraitu dezakegu. Multzo horretan, pertsonaiaren beharren arabera modelatzeko, moldekatzeko, bolumenak aplikatzeko eta testurak egiteko teknikak erakusten dira, besteak beste. Edukiak garatu ondotik, modelo/aktorea karakterizatzeko protesia positibatzeko eta moldetik ateratzeko prozesuarekin jarraitzea komeni da, bai eta protesiaren azken emaitzan eragin dezaketen faktoreak identifikatzea ere: “Karakterizaziorako protesiak lortzea.

Azkenik, “Egindako larruazaleko protesien proba egitea” multzoko edukiak azaldu daitezke. Multzo horretan, protesiak jartzen erakusten da, aplikatu beharreko eremuaren arabera egokitzeko-parametroak eta segurtasun- eta higiene-arauak errespetatuta, dela itsastean, dela materialak zaindu eta biltegiaratzeko.

Nola erabili baliabideak. Iradokizuna:

- Komeni da ikus-entzunezko baliabideak, bideoak edo DVDak erabiltzea, zentroan eskuragarri ez dauden gauzatze-moduak behatzen ahal izateko.

- Zinema-eskolak, antzokiak eta ikus-entzunezkoen filmaketak bisitatzea laneko testuinguru posibleak ezagutzeko.
- Sektoreko profesionalen hitzaldiak edo masterclassak.
- Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, benetako praktikak egiteko.

Gauzatu beharreko jardueren tipologiari dagokionez, komeni da kontaktu sinple batetik abiatzea, informazioa eta informazio horrek eragiten dituen ondorioak errazago barneratzeko, eta, pixkanaka, aldagai gehiagoren bidez zailtasun maila handitzea, harik eta prozesu osoaren gauzatzea simulatuta arte. Adibidez, egokia litzateke konplexutasun txikiko protesi sinpleak egiten hastea, produktu eta osagarri gutxi behar dituztenak, eta, pixkanaka, modulu osoa barne hartzen duten lanak egiteko eskatzea.

Ikaskuntza-prozesu honetarako, erakustaldi praktikoak eginen dira, edo prozesu hauek erakusten dituzten bideoak ikusiko dira.

Garrantzitsua da talde-lana kontuan hartzea, eta jarduerak eta proiektuak taldeka esleitzea. Lana amaitzen dutenean, ikasleek gainerako ikaskideei aurkeztu diezaiekete proiektua, denek elkarrengandik zerbeit berria ikas dezaten.

Modulu honek lotura du jarraian adierazten diren modulu hauetako edukiekin, eta, beraz, moduluok elkarrekin koordinatu behar dira:

- Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak: “protesiak moldekatzeko eta modelatzeko produktuak hautatzea” eta “ile-euskarriak eta protesiak egiteko produktuak hautatzea”.
- Diseinu grafiko aplikatua: “karakterizazioko protesien eta efektu berezien zirriborroak egitea” eta “fantasiazko makillaje-prozesuaren aurreko faseak”.
- Makillaje profesionala: “fantasiazko makillaje-teknikak” eta “larruazala, ilea eta bekainak ezkutatze teknika”. Ile-euskarria, protesiak eta bestelakoak.

Lanbide-modulua: Ile-eranskingintza.

Kodea: 1266.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 11.

Iraupena: 160 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Ile-protesiak egiteko prozesua antolatzen du, eta, horretarako, material-motak eta pertsonaiaren edo modeloaren eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ile-protesien diseinuarekin loturiko dokumentu eta baliabideak zehaztu ditu.
- b) Ile-protesien diseinuak proposatutako premien arabera egin ditu.
- c) Pertsonaia aztertzeko teknikak aplikatu ditu.
- d) Ileorde eta ile-eranskinen ezaugarriak zehaztu ditu.
- e) Ile-protesi mota eskatutako efektuarekin lotu du.
- f) Ile-mota eskakizunen arabera hautatu du.
- g) Ile-protesiak egiteko material-motak eta baliabide teknikoak identifikatu ditu.
- h) Ile-eranskinak eta ile-protesiak egiteko produktu, tresna eta materialak segurtasun- eta higie-ne-baldintzetan manipulatu ditu.

2. Ileorde eta ile-eranskinak egin aurreko eragiketak ezartzen ditu, eta horretarako baliabide teknikoak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzailea prestatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- b) Neurriak hartzeko prozedurari jarraitu dio.
- c) Fitxa teknikoan adierazi beharreko datuak zehaztu ditu.
- d) Modeloan oinarrituta, patroiak eta txantiloak egin ditu.
- e) Armazoiak edo armadurak prestatu ditu.
- f) Ilea manipulatu aurretik, egokitu eta berdindu egin du, eta ileko korapiloak askatu ditu.
- g) Ileordeak egin aurretik, ilean tinduak egin ditu.

3. Ileadun krepea eta apaingarriak egiteko prozesua antolatu eta egiten du, eta, horretarako, teknikak integratu eta baliabideak aukeratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ehungailuak prestatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- b) Krepea egin aurreko eragiketak zehaztu ditu.
- c) Ilea ehotzeko teknikak baliatu ditu krepea egiteko.
- d) Krepea garbitzeko eta kontserbatzeko tratamenduak aplikatu ditu.
- e) Krepea manipulatzeko eta erabiltzeko irizpideak zehaztu ditu.
- f) Ileadun apaingarriak diseinatu ditu gerora izanen duten erabileraren arabera.
- g) Ile naturaleko apaingarriak egiteko materialak eta teknikak hautatu ditu.
- h) Ile artifizialeko apaingarriak egiteko teknikak erabili ditu, polibiniloa eta laka erabilia.

4. Ile-protesiak antolatu eta egiten ditu, eta, horretarako, teknikak hautatzen ditu eta prozesuaren aldagaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ehuna edo sarea egiteko eta pikatua egiteko behar diren eragiketak zehaztu ditu.
- b) Ehuna edo sarea egiteko eta pikatua egiteko behar diren material eta tresnak hautatu ditu.
- c) M sinplea, M bikoitza, amaierako puntada eta beste korapilo-mota batzuk egin ditu.
- d) Puntada-motak eta lortutako efektuak erlazionatu ditu.
- e) Ile-protesiak egin ditu ehuna edo sarea egiteko eta pikatua egiteko teknikarekin.
- f) Silikona erabili du ilea ehotzeko eta pikatzeko oinarri gisa.
- g) Josteko teknikak erabili ditu zenbait gainazalen gainean.
- h) Lortutako produktuaren eta diseinuaren arteko desberdintasunak analizatu ditu.

5. Aurpegiko ile-protesiak egiteko prozesua antolatu eta egiten du, eta, horretarako, teknikak hautatzen ditu eta prozedura ezartzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ordezko betileak, bizarrak, ile-zangoak, biboteak eta beste ile-elementu batzuk egiteko prozesua zehaztu du.
- b) Ilea zuzenean larruazalaren gainean aplikatu du aurpegiko ilea simulatzeko.
- c) Neurriak hartu ditu aurpegiko ile-protesiak egiteko.
- d) Pikatzeko eta ehotzeko teknikak aplikatu ditu tul, silikona eta bestelako oinarrien gainean, aurpegirako ile-protesiak egiteko.
- e) Protesia bukatzeko, ile-apainketako eragiketa teknikoak aplikatu ditu.
- f) Aurpegirako ile-protesiak karakterizatu eta kamuflatzeko sistemak ezarri ditu.

6. Azken emaitza egiaztatzen du, eta, horretarako, probak eta zuzenketak egiten ditu ile-protesiekin.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Azken emaitza egiaztatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- b) Protesiaren aplikazio-eremua prestatu du.
- c) Ile-protesien probak egin ditu erabiltzailearen gainean.
- d) Azken emaitza hasierako diseinuarekin alderatu du.
- e) Ile-protesiak konpontzeko eta eratzeko parametroak aplikatu ditu.
- f) Ile-protesiak zuzentzeko teknikak erabili ditu.
- g) Akabera-teknikak aplikatu ditu ile-protesia amaitzeko.
- h) Lanak egitean, interesez, zehaztasunez, ordenaz eta erantzukizunez jokatu du.

7. Amaitutako produktuak eta materialak manipulatzeko eta zaintzeko jarraibideak zehazten ditu eta, horretarako, mantentze-lanetako eragiketak aplikatu eta segurtasun- eta higiene-baldintzak betetzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Tresnak, materialak eta produktuak garbitzeko eta zaintzeko metodoak ezarri ditu.
- b) Material-motaren arabera hautatu ditu garbitzeko produktuak.
- c) Lehengaiak manipulatu eta zaintzeko baldintzak ezarri ditu.
- d) Ileordeak eta ile-eranskinak manipulatzeko arauak ezarri ditu.

- e) Egindako ileordeak eta ile-eranskinak garbitzeko eta desinfektatzeko protokoloak aplikatu ditu.
- f) Ileordeak eta ile-eranskinak euskarrietan jartzea zein garrantzitsua den balioetsi du.
- g) Ile-protesiaren kontserbazioan eragiten duten ingurumen-baldintzak ezarri ditu.
- h) Ile-protesiak egiteko prozesuan norbera babesteko neurriak aplikatu ditu.
- i) Hondakinak kontrolatu ditu, eta horretarako, ingurumena kudeatzeko protokoloak aplikatu ditu.
- j) Ordenaz eta metodo baten arabera jokatu du.

Edukiak.

Ile-protesiak egiteko prozesua antolatzea:

- Diseinua. Adierazpide grafikoa. Zerikusia daukan dokumentazioa. Erakusgaiak. Patroiak.
- Pertsonaiaren azterketa.
- Ile-protesi motak: deskribapena eta sailkapena: teknikaren, konposizioaren (naturala edo artifiziala) eta egiteko moduaren (estandarra edo neurria) arabera.
- Protesiak egiteko ile-motak.
- Materialak eta baliabide teknikoak.
- Ile-eranskinak eta ile-protesiak egiteko produktuak, tresnak eta materialak manipulatzeko eta hautatzeko irizpideak.

Ileordeak eta ile-eranskinak egin aurreko eragiketak ezartzea:

- Modeloa prestatzea eta ilea egokitzea.
- Neurriak hartzea.
- Fitxa teknikoa.
- Patriak eta txantiloak egitea.
- Ileordeak eta ile-protesiak egiteko armadurak prestatzea.
- Ilea prestatzea eta manipulatzeko.

Ilearekin krepea eta apaingarriak egiteko prozesua antolatzea eta egitea:

- Krepeko eranskinen sailkapena.
- Krepea egin aurreko eragiketak.
- Ehungailuak prestatzea.
- Ilea ehotzea krepea egiteko.
- Krepea garbitzeko eta kontserbatzeko tratamenduak.
- Krepea manipulatzeko eta erabiltzea.
- Ile naturalarekin apaingarriak egitea. Diseinua.
- Ile artifizialarekin apaingarriak egitea. Diseinua.

Ile-protesiak antolatzea eta egitea:

- Ehutzeko edo saretzeko teknika. Materialak. Korapilo-motak. Aplikazioak.
- Pikatze-teknika. Materialak. Korapiloa egiteko modua. Puntada-motak ehunaren arabera.
- Protesiak silikonaren edo antzekoen gainean egitea.
- Ehuna edo tress-a armadurari josteko teknika.
- Ordezko txirikordak jostea.

Aurpegiko ile-protesiak egiteko prozesua antolatzea eta egitea:

- Ilea zuzenean larruazalaren gainean aplikatzea, aurpegiko ilea simulatzeko.
- Ordezko betileak, bizarrak, ile-zangoak eta biboteak, besteak beste, egiteko teknikak.
- Aurpegiko ile-protesien eta ile-eranskinen kolorea, forma eta luzera aldatzea.
- Aurpegiko ile-protesiak karakterizatzeko eta kamuflatzeko sistemak.

Azken emaitzaren egiaztapena:

- Ile-protesien probetarako jarraibideak eta sekuentziazioa. Lanabesak eta materialak.
- Eremua prestatzea.
- Lortutako produktuaren eta diseinatutakoaren arteko aldeak.
- Protesiak konpondu eta egokitzea. Tresnak eta produktuak.
- Ile-protesiak zuzentzeko teknikak.
- Ile-protesia amaitzeko orrazkerak, orrazkera bilduak eta akaberak.

Materialak eta amaitutako produktuak manipulatzeko eta kontserbatzeko jarraibideak zehaztea.

- Tresnak, materialak eta produktuak garbitzea eta zaintzea. Garbitzeko produktuak.
- Lehengaiak manipulatu eta kontserbatzeko baldintzak.
- Ileordeak eta ile-eranskinak manipulatzeko baldintzak.
- Ileordeak eta ile-eranskinak garbitzea eta desinfektatzea.
- Mantentze-lana egiteko teknikak. Euskarrietan jartzea. Ile-protesiak kontserbatzeko ingurumen-baldintzak.
- Norbera babesteko neurriak ileordeak eta ile-eranskinak egitean.
- Hondakinen kontrola.

Orientabide didaktikoak.

Moduluaren helburua da ikasleak, karakterizatu beharreko pertsonaiaren ezaugarriak analizatuta, teknikak aukeratzeko eta ile- eta aurpegi-protesiak jartzeko eta egiteko gai izatea, baita ileorde eta ile-protesiak zaindu eta mantentzeko gai izatea ere. Beraz, beharrezkoa izanen da, halaber, koordinazio egokia ezartzea gai horiek jorratzen dituzten moduluekin.

Egokientzat proposatzen den edukien sekuentziazioa bat dator azaldutako aurkezpen-ordenarekin, hurrenkera hori logikotzat eta koherentetzat jotzen baita modu hau emateko. Horrela, ikasleak praktika errazak egiten hasiko dira, eta pixkanaka eskuratuko dituzte praktika konplexuagoak gauzatu ahal izateko teknikak. Hala, aurretik ikasitako guztia baliatuta, elaborazio konplexuagoak egiten ahalko dituzte.

Baliabideak erabiltzeko iradokizunak:

- Egin behar diren praktiketan zer teknika erabiltzen diren ikusteko, ikus-entzunezko baliabideak, bideoak eta DVDak erabiltzea komeni da.
- Bisitak zinema-eskoletara, antzerkira, ikus-entzunezko filmaketetara, ile-apainketako eta estetikako azoketara, lan-egoera desberdinak ezagutzeko.
- Sektoreko profesionalen hitzaldiak edo masterclassak.
- Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, benetako praktikak egiteko.

Modulu honetan planteatzen diren helburuak lortzeko, ondotik aipatzen direnen moduko jarduerak garatzen ahal dira:

- Irakasleek moduluan jasotako edukiak azaldu eta praktikan jartzea.

–Ikasleek moduluan jasotako prozedurazko edukiak praktikan jartzea: krepea, apaingarri iledunak, ileordeak, ile-protesiak (kapilarrak eta aurpegikoak) eta ile-eranskinak egitea, jartzea, egokitzea eta eustea, pertsonaia aztertu ondotik.

–Ikasleek ile-protesien azken emaitza egiaztatzeari, zuzentzeari eta egokitzeari buruzko eduki teorikoak praktikan jartzea, protesiak mantentzeko segurtasun- eta higiene-arauak betez.

Ile-eranskingintza modulua zikloko hurrengo modulu hauekin dago lotuta, eta horregatik koordinatu egin behar dira: Makillaje profesionala, diseinu grafiko aplikatua, pertsonaien karakterizazioa, karakterizaziorako ile-apainketa.

Lanbide-modulua: Diseinu grafiko aplikatua.

Kodea: 1268.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 10.

Iraupena: 160 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Giza gorputzaren morfologia eta adierazkortasuna identifikatzen du, eta, horretarako, kanpoko itxura baldintzatzen duten faktoreak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Giza gorputzaren aldeak eta zonak identifikatu ditu.
- b) Gorputzaren kanpoko forman eragina duten hezurak, giharrek eta organoak zehaztu ditu.
- c) Buruko hezur-egitura aurpegiko eta garezurreko ezaugarriekin eta aurpegi- eta garezur-motekin lotu du.
- d) Gorputz-tipologiak ezagutu ditu.
- e) Emakumeen eta gizonen aurpegiko eta gorputzeko itxura orokorra, forma eta proportzioak ezagutu ditu.
- f) Aurpegiera bereizgarriak ezarri ditu, arrazaren arabera.
- g) Aurpegiko keinuak aurpegiko gihar mimikoekin lotu ditu.
- h) Giza gorputza definitzen duten elementu antropometrikoak, estetikoak, artistikoak eta adierazkorrak identifikatu ditu.
- i) Itxura fisikoa alderdi psikologikoarekin lotu du.
- j) Karakterizazioan gehien erabiltzen diren animalien ezaugarri morfologiko bereizgarriak zehaztu ditu.

2. Marrazketa-teknikak aplikatzen ditu pertsonaiak karakterizatzeko, eta, horretarako, materialak eta erremintak hautatzen ditu eta hizkuntza grafikoaren adierazpen-baliabideak baliatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazioko pertsonaien diseinuan erabiltzen diren adierazpen grafikoko tekniken ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Marrazki bat osatzen duten hizkuntza grafikoko elementuak identifikatu ditu.
- c) Kolore-pigmentu primarioak eta haien nahasketak identifikatu ditu.
- d) Kolorea haren adierazkortasunarekin eta ahalmen sinbolikoarekin lotu du.
- e) Hiru dimentsioko modeloak, marrazkiak eta/edo irudiak hautatu ditu marrazteko abiapuntu gisa.
- f) Materialak, euskarriak eta tresnak erabili behar den marrazketa-teknikaren arabera hautatu ditu.
- g) Marrazkia ahokatzeko teknikak aplikatu ditu.
- h) Giza gorputzaren marrazkiak egin ditu, eta horretarako, kontuan hartu ditu neurriak, proportzioak eta mugimendua.
- i) Buruaren marrazkiak egin ditu aurretik eta albotik begiratuta eta hiru laurdeneko plano baliatuta, betiere keinuen adierazpen grafikoa kontuan hartuta.
- j) Marrazkiak zuzentzeko eta finkatzeko teknikak ezarri ditu.

3. Karakterizaziorako makillajeko eta ile-apainketako zirriborroak egiten ditu, eta, horretarako, grafikoki irudikatzen ditu bolumenak, koloreak, formak eta testurak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Makillajearen eta orrazkeraren ezaugarriak zehaztu ditu, proiektu artistikoaren eta/edo behar sozialen eta eszenikoen arabera.
- b) Makillajeen, orrazkeren eta osagarrien zirriborroak egin ditu.
- c) Argi-ilunaren teknika erabili du makillajeari sakontasuna eta bolumena emateko.
- d) Teknika zuzentzaileak erabili ditu aurpegiaren formak aldatzeko.
- e) Grafikoki transmititu ditu ilearen bolumena, testura eta kolorea.
- f) Bizarren eta biboteen zirriborroak egin ditu.
- g) Ile-apainketa eta makillaje sozialaren, audiobisualaren eta eszenikoaren proposamen grafikoak egin ditu karakterizazio-proiekturako.
- h) Fantasiatzko makillajeen zirriborroak egin ditu, eta, horretarako, aukera sortzaileak eta plastoak arakatu ditu.
- i) Fantasiatzko makillajea giza fisionomiara egokitu du.

4. Karakterizaziorako protesien eta efektu berezien zirriborroak egiten ditu, eta, horretarako, alterazio eta deformazioen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta bolumenak, koloreak, formak eta testurak grafikoki irudikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazioan eragina duten alterazio, lesio, deformazio eta desproporazioen kanpoko ezaugarriak deskribatu ditu.
- b) Alterazio, lesio, deformazio eta desproporazioen zirriborroak egin ditu, eta, horretarako, zorroztasunez errespetatu ditu ezaugarri anatomiko eta patologikoak.
- c) Zirriborro grafikoaren bitartez, itxura normala duten pertsonaiak ikusteko moduko alterazioak dituzten pertsonaiak bihurtu ditu.
- d) Zirriborroaren bitartez, eskuetako eta oinetako egitura aldatu du.
- e) Eskuen eta oinen zirriborroetan azazkal-protesiak txertatu ditu.
- f) Zirriborroak eta hortz eta begietako protesiak egiteko prozesuak baldintzatzen dituzten ezaugarri grafikoak identifikatu ditu.

5. Produkzio eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako pertsonaiak diseinatzen ditu, eta, horretarako, proiektu artistikoaren eskakizunak aztertzen ditu, eta jantziak, orrazkerak eta karakterizazioko gainerako elementuak marrazkian txertatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonaia definitzen duten ezaugarri fisikoak identifikatu ditu.
- b) Pertsonaiaren adierazpen-bereizgarri nagusia zehaztu du, eta, horretarako, kontuan hartu ditu gidoian deskribatutako ezaugarri psikologikoak.
- c) Pertsonaiaren ezaugarri estetikoak eta estiloa identifikatu ditu.
- d) Proiektu artistikoaren testuinguru historikoa eta soziokulturala zehaztu ditu.
- e) Karakterizazioko efektu berezien eta protesien ezaugarri grafikoak deskribatu ditu.
- f) Pertsonaiaren orrazkeraren, makillajearen, jantzien eta osagarrien ezaugarriak zehaztu ditu.
- g) Karakterizatu behar den pertsonaiaren diseinua egiteko jarraibideak bete ditu.

- h) Pertsonaia diseinatu du eta grafikoki adierazi ditu proiektuan definitutako ezaugarri fisikoak, adierazpenezkoak, historikoak eta soziokulturalak.
- i) Pertsonaia tipoen diseinuak egin ditu.
- j) Jatorrizko zirriborroaren eraldaketa grafikoak egin ditu, adinaren arabera.

6. Pertsonaiaren zirriborroa modelo/interpretearen irudira egokitzen du, eta, horretarako, gardenkiak gainjartzeko teknika baliatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Interpretearen eta pertsonaiaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatu ditu.
- b) Pertsonaiaren ezaugarriak modelo/interpretearen ezaugarrietara egokitzeko metodoa zehaztu du.
- c) Pertsonaiaren diseinua modelora/interpretera egokitzeko behar diren euskarriak eta materialak hautatu ditu.
- d) Modelo/interpretea diseinaturiko pertsonaia bihurtzeko egin beharreko eraldaketak egin ditu.
- e) Prozesu osoan zehar, terminologia zehatza erabili du.

Edukiak.

Giza gorputzaren morfologia eta adierazkortasuna identifikatzea:

–Giza gorputzaren egitura orokorra.

- Giza gorputzeko eremuak, eskualdeak eta azpieskualdeak.
- Simetria.

–Gorputzaren morfologia baldintzatzen duten elementu anatomiko nagusiak. Gorputzaren kanpoko forman eragina duten hezur, gihar eta organoak.

–Giza tipologiaren kontzeptua. Giza gorpuzkera eta gorputz-tipologiak. Sailkapen tipologikoak; tipologia somatikoa edo morfologikoa, somatopsikikoa eta psikikoa.

- Gorputz-morfologiaren eta psikearen arteko lotura. Kretschmer-en eta Sheldon-en tipologiak, besteak beste.

–Giza buruaren morfologia. Buruaren hezur-egitura. Garezur-motak eta aurpegi-motak. Indize zefalikoa. Aurpegierak.

–Gizonen eta emakumeen gorputzen arteko aldaera fisikoak. Muskulu-masa, burua/enborra/gorputz-adarrak proportzioak. Gerri pelbikoa.

–Aurpegiaren aldaketak sexuaren arabera. Sexuen arteko desberdintasun kraneofazialak.

- Garezuraren, masailezuraren eta hezur-erliebeen forma, beste desberdintasun batzuen artean.
- Aurpegiko ezaugarriak, eta aldeak larruazalaren, aurpegiko ilearen eta ilearen itxuran.

–Aurpegiaren aldaketak arrazaren arabera.

- Desberdintasun fisionomikoak; begiak eta betazalak, larruazalaren pigmentazioa, aurpegi-mota eta ile-mota, besteak beste.

–Mimikaren giharrek. Identifikazioa, kokapena eta mugimendua.

–Aurpegiko keinuak. Aurpegiko adierazpen ohikoenak: beldurra, harridura, ahalegina, haserrea, negarra, irribarrea eta barrea, besteak beste. Esku hartzen duten giharrek.

–Giza gorputzaren kanpoko elementuen azterketa: taila, tamaina, bolumena, proportzioak, larruazala, ilea, hortzak, azazkalak, keinuak, posturak eta jarrerak.

–Gizakien eta animalien ezaugarrien anatomia konparatzailea. Gehien erabiltzen diren animalien morfologia.

Marrazketa-teknikak aplikatzea pertsonaiak karakterizatzeko:

- Marrazketa. Adierazpen-teknika grafikoak. Behaketaren garrantzia. Ikaskuntza praktikaren eta modeloak kopiatzearen bitartez. Garunaren eremu artistikoaren garapena. Eskuineko hemisferioaren nagusitasuna eta sormen artistikoa.
- Hizkuntza grafikoaren elementuak: puntua, lerroa, forma, kolorea, testura eta espazioa. Itzalez-tadura, bolumenaren irudikapena, formatua, konposizioa eta atzealdea.
- Pigmentu-kolorea. Kolore argiaren eta kolore pigmentuaren arteko desberdintasunak. Kolorearen ezaugarriak.
 - Kolorearen teoria. Pigmentuen nahasketa. Kolore pigmentu primarioak eta sekundarioak. Tarteko pigmentu-kolorea, osagarriak eta antzekoak. Zirkulu kromatikoa.
 - Kolorea eta pertzepzioa. Kolorearen alderdi psikologikoa. Kolorearen sinbolismoa.
- Marrazki bat ahokatzeko teknikak. Ardatzen eta lauki-sareen bidezko ahokadura.
- Marrazketa-eremuak bete behar dituen ezaugarriak.
- Marrazketako materialak eta tresnak.
 - Marrazteko materialak. Haien deskribapena eta erabilera.
 - Marrazteko tresnak. Deskribapena eta maneia.
- Giza gorputzaren marrazketa.
 - Proportzioak eta kanona. Kontzeptua. Kanon antropometrikoa, naturala eta artistikoa. Giza gorputzaren planoak eta ardatzak.
 - Giza gorputza marraztea. Kasuan kasuko proportzioak eta kanona aplikatzea.
 - Giza irudian mugimendua irudikatzea. Teknika.
- Giza burua marraztea.
 - Proportzioak. Herenen legea. Saretan ahokatzeko teknika.
 - Funtsezko elementuak kokatzea: bekainak, begiak, sudurra eta kokotsa, besteak beste. Sudur-bekoki, sudur-epain eta sudur-aurpegiko angeluak besteak beste. Sexuen arteko aldeak.
 - Aurretiko bista, albotiko bista eta hiru laurdeneko planoak.
- Keinuaren adierazpen grafikoak.

Karakterizaziorako makillajeko eta ile-apainketako zirriborroak egitea:

- Zirriborroen funtzioa makillajeak eta orrazkerak sortzeko prozesuan. Makillajeen, orrazkeren eta osagarrien zirriborroak egitea.
- Aurpegiko makillajearen zirriborroak: makillaje sozialaren, ikus-entzunezko baliabideetarako eta baliabide eszenikoetarako makillajearen, modarako makillajearen eta makillaje historikoaren zirriborroak. Ezaugarriak.
 - Argi-ilunaren teknika. Klabe tonala; altua, baxua eta kontrastatua.
 - Aurpegiko formak zuzentzea. Teknika.
- Gorputzeko eta fantasiazko makillajearen zirriborroak. Motak. Giza gorputzaren fisionomia diseinatu egokitzea.
- Ilearen eta orrazkeren marrazketa. Ilearen bolumena, testura eta kolorea irudikatze teknika. Ilearen lerroak, eta jaiotze- eta erortze-puntuak marraztea.
 - Orrazkera historikoen zirriborroak.
 - Orrazkeraren osagarrien marrazkia.
- Bizarren eta biboteen marrazkia.

Karakterizazioko protesien eta efektu berezien zirriborroak egitea:

–Zirriborroen eginkizuna protesiak eta efektu bereziak sortzeko prozesuan.

–Larruazaleko eta ehun bigunetako alterazioen zirriborroak. Alterazioaren eta/edo lesioaren kanpoko ezaugarriak.

- Larruazalaren oinarritzko lesioak: makulak, besikulak, noduluak, eskarak, fisurak, eritemak eta pustulak, besteak beste.
- Larruazaleko pigmentazioaren alterazioak. Hiperkromiak (nebo pigmentarioak, efelideak, kloasma eta melasma, besteak beste). Hipokromiak (bitiligoa) eta heterokromiak.
- Keratinizazioaren alterazioak; iktiosia, psoriasis eta beste hiperkeratosi batzuk.
- Odol-zirkulazioaren alterazioak. Barizeak, edemak eta telangiektasiak, besteak beste.
- Infekzioek eta infestazioek eragindako asaldurak. Herpesa, garatxo birikoak, onddoak, sarna, arkakusoen ziztada, besteak beste.
- Alterazio sistemikoen larruazaleko adierazpenak. Anemia, asfixia eta hepatitis, besteak beste. Heriotzak eragindako kanpoko zeinuak; arintasuna.

–Gorputzaren azaleko lesio traumatikoen zirriborroak. Lesioen kanpoko ezaugarriak. Zauriak, erre-durak, izozteak, hozkadak, kolpeak, urradurak, jostura kirurgikoak eta anputazioak, besteak beste.

–Deformazioen eta desproporazioen zirriborroak. Deformazioen eta desproporazioen kanpoko ezaugarriak. Keloideak, tumorazioak eta kisteak.

–Ilearen alterazioen zirriborroak. Alterazioaren kanpoko ezaugarriak.

- Ile-kantitatearekin lotutako alterazioak. Hirtsutismoa eta hipertrikosia. Alopeziak.
- Alterazioak ilearen kolorazioan. Albinismoa eta ile-zuritasuna, besteak beste.

–Azazkaletako, eskuetako eta oinetako aldaketen zirriborroak. Kanpoko ezaugarriak. Mikosia, ildo ungealak eta azazkal haragituak, besteak beste.

–Hortz- eta begi-protesien zirriborroak.

Produkzio eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako pertsonaiak diseinatzea:

–Pertsonaiaren osagai fisikoa zehaztea eta diseinatzea. Pertsonaiaren ezaugarri fisionomikoak. Adina, sexua, arraza, morfologia, ilea, larruazala eta begiak, besteak beste.

–Aurpegiko ezaugarrien deskribapena eta zirriborroak.

–Osagai psikologikoa zehaztea eta hura keinu nagusiaren diseinuan islatzea. Adierazkortasunean eragina duten ezaugarriak.

–Ingurune historiko eta soziokulturala eta diseinuan duen eragina.

- Garaiko ezaugarri soziokulturalak. Erlijioa, ohiturak, moda, portaerak eta bizimodua, besteak beste.
- Pertsonaiaren ezaugarri soziokulturalak. Gizarte-klasea, kultura-maila, lanbidea eta gizarte-tal-deetako kide izatea, besteak beste.

–Diseinuetan proportzioaren, adierazkortasunaren, bolumenaren eta kolorearen parametroak aplikatzea.

–Prozesua, hasierako zirriborroetatik behin betiko diseinura arte. Aldaketen ebaluazioa, behin betiko zirriborroa lortu arte.

–Karakterizazioan eragina duten atrezzoak elementuak eta jantziak, eta diseinuan duten presentzia.

–Pertsonaia tipoen diseinua.

- Benetako pertsonaiak; garaikoak eta historikoak.
- Fikziozko pertsonaiak; fantasiazkoak, beldurrezkoak, zientzia-fikziozkoak, zoomorfoak eta alegorikoak, besteak beste.

–Zahartzearen diseinu espezifikoa.

- Larruazaleko aldaketak zahartzean. Zimurak, zahartzaroko orbanak, biguntasuna, biloaren hazkuntza, eta abar.
- Zahartzeak ilean eragindako aldaketak. Ile zuritzea eta alopezia.
- Zahartzearen ondorioz fisionomia orokorrean gertatzen diren aldaketak. Okertzea, garaiera galtzea, hortz-piezak galtzea, gorputzeko koipearen banaketa aldatzea, besteak beste.

Pertsonaiaren zirriborroa modeloaren/interpretearen irudira egokitzea:

–Castinga. Modeloaren aurpegiko eta hortzetako castinga.

–Aukeratutako modeloaren/interpretearen eta pertsonaiaren arteko antzekotasun eta desberdintasun morfologikoak aztertzea.

–Pertsonaiaren diseinua modeloaren/interpretearen ezaugarrietara egokitzeko sistematika.

–Modeloa/interpretea diseinaturiko pertsonaia bihurtzeko eraldaketa-teknikak, argazkien eta gain-jarritako gardenkien bitartez.

- Gardenkientzako euskarriak. Landare-papera, azetatoak eta bestelakoak.
- Euskarri gardenen gainean marrazteko materialak. Errotuladore iraunkorrak, bonbilla-lakak edo beira pintatzeko pinturak, besteak beste.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honen helburua da ikasleek gidoiaren eta bezeroaren zehaztapenei jarraikiz karakterizazioarako pertsonaien diseinu grafikoa egiteko izan behar dituzten ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea. Horretarako, lehenik eta behin, pertsonaien zirriborroak egiten ikasi beharko dute, marrazketa-teknikak aplikatuta; ondotik, pertsonaia interpretatuko duen modeloaren ezaugarrietara egokitu beharko dute zirriborro hori. Zirriborroek barnean hartu behar dituzte karakterizazio-proiektua definitzen duten elementu guztiak: morfologia, gorputzaren adierazkortasuna, makillajea, ile-apainketa, protesiak eta efektu bereziak.

Zirriborroak egiteko didaktikoentzat jotzen den edukien sekuentziazioak hurrenkera logiko bati jarraitzen dio. Ikasleek pixkanaka eskuratuko dituzte aurretik behar dituzten edukiak, multzo hauen arabera:

–Giza gorputzaren morfologia eta adierazgarritasuna identifikatzea.

–Marrazketa-teknikak aplikatzea pertsonaiak karakterizatzeko.

–Karakterizazioarako makillajeko eta ile-apainketako zirriborroak egitea.

–Karakterizazioaren protesien eta efektu berezien zirriborroak egitea.

Produktzio eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produktzioetarako pertsonaiak diseinatzea.

Pertsonaiaren zirriborroa modeloaren/interpretearen irudira egokitzea.

Eduki hauek emateko, komeni da marrazketa-mahaiak dituen gela balioaniztun bat erabiltzea, bai eta honako elementu hauek izatea ere: marrazkiak egiteko materialak, euskarriak eta tresnak, eredu geometrikoak eta giza irudiaren eredu artikulatuak. Zirriborroak egiteko, oso interesgarria da marrazki anatomikoko atlas bat eta tamaina errealeko giza eskeletoaren eredu anatomiko bat izatea, bai eta irudi hauen laminak ere: larruazalaren eta eranskinen alterazioak, oinarritzko lesioak eta lesio traumatikoak, deformazioak eta desproporzioak, orrazkerak, bizarrak, biboteak eta jantziak, besteak beste.

Ikaskuntzaren emaitzak lortzeko, besteak beste, honako jarduera hauek proposatzen dira lanbide-modulu honetarako:

- Album anatomiko bat egitea, gai hauekin lotutako dokumentu grafikoak biltzeko: giza gorputzaren egitura, haren simetriak eta gorputz-morfologiaren arduradun diren elementu anatomiko nagusiak; gorputz femeninoaren eta maskulinoaren arteko desberdintasunak; buruaren morfologia,

garezur-motak, aurpegi-motak eta sexuaren eta arrazaren arabera; mimikako giharrak eta haien kokapena, eta adierazpen arruntenen adibide grafikoak. Gorputz-tipologiari buruzko adibide grafikoak.

- Karakterizazioan gehien erabiltzen diren animalien morfologia eta gizakiarena alderatzen dituzten posterrak egitea.
- Koaderno artistiko bat egitea, pertsonaiak karakterizatzeko marrazketa-teknikak praktikatzeko. Koaderno horretan honako hauek jasoko dira: giza gorputz estatikoei eta mugimendudunei aplikatutako oinarritzko elementuak, itzalak, kolorea, zirkulu kromatikoa, ahokadurak, konposizioa eta hondoak. Horrez gain, giza buruaren marrazkiak egiten dira, funtsezko elementuekin, ikuspegi desberdinetatik begiratuta, eta keinuak ere marraztuko dira.
- Dosier bat sortzea, elementu hauen zirriborroak jasotzeko: karakterizaziorako aurpegiko eta gorputzeko makillajeak, orrazkerak, bizarrak eta biboteak, protesiak eta efektu bereziak.
- Sormenezko album batean pertsonaia errealek eta fikziozkoak diseinatzea. Album horretan, sortze-prozesu osoa jasoko da, hasierako zirriborroetatik behin betikoetara. Pertsonaia nola zahartzen den eta pertsonaiaren zirriborroa interpretearen irudira nola egokitzen den ere erakutsiko da.

Zikloko beste modulu batzuekiko harremanari dagokionez, gure moduluan irakasten diren zenbait eduki oinarritzkoak dira bigarren mailako “Pertsonaien 2Dko eta 3Dko diseinu digitala” modulurako.

Modulu honetan, pertsonaiaren diseinuari eta zirriborroaren egokitzapenari buruzko edukiak oinarritzkoak dira “Plangintza eta proiektuak” moduluko eduki batzuetarako (zirriborroaren egokitzapenarekin eta pertsonaien ezaugarrien zehaztapenarekin lotutako edukiak), bai eta bigarren mailako “Pertsonaien karakterizazioa” moduluko eduki batzuetarako ere (pertsonaiaren analisiarekin zerikusia duten edukiak). Hori dela eta, modulu horien artean koordinazioa egon behar da.

Modulu honetan efektu berezien zirriborroei buruz ematen diren edukiak oinarritzkoak dira bigarren mailako “Efektu bereziak makillajearen bidez” moduluko makillaje-zirriborroaren irudikapen grafikoari buruzko edukietarako.

Makillaje profesionaleko moduluarekin nolabaiteko koordinazioa egon behar du makillaje-zirriborroekin eta kolorearekin lotutako edukietan. Era berean, koordinazioa egon behar du “Aurpegiko eta gorputzeko protesiak sortzea” moduluarekin, modeloaren eta pertsonaiaren arteko antzekotasunak eta desberdintasun morfologikoak aztertzeari buruzko edukietan, eta “Ile-eranskingintza” moduluarekin, ile-protesien irudikapen grafikoarekin lotutako edukietan.

Azken iradokizun gisa, sektore zinematografikoak eta eszenikoak pertsonaiak sortzeko erabiltzen dituen materialak, diseinuak eta teknologiak etengabe aldatzen ari direnez, komeni da ikasleak alderdi horietan etengabe eguneratzea, arestian aipatutako sektoreekin lotutako iturrien bidez.

Lanbide-modulua: Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak.

Kodea: 1269.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 6.

Iraupena: 100 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuak identifikatzen ditu, eta, horretarako, haien hautaketa baldintzatzen duten aldagaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuak ezagutu ditu.
- b) Karakterizaziorako kosmetiko eta produktuen erabileran eragina duten larruazal-faktoreak zehaztu ditu.
- c) Larruazalaren egitura eta bere ezaugarriak identifikatu ditu.
- d) Larruazaleko eranskin motak, egitura eta eginkizunak zehaztu ditu.
- e) Larruazal-mota bakoitza bere larruazal-ezaugarriekin, itxurarekin eta kanpoko agenteen aurreko erreakzioarekin lotu du.
- f) Emakumeen eta gizonen larruazalaren arteko desberdintasunak ezarri ditu.
- g) Arrazen arteko larruazal-ezaugarri bereizgarriak identifikatu ditu.
- h) Larruazala aztertzeko metodoa ezarri du.

2. Kosmetiko eta produktuen informazio tekniko interpretatzen du; horretarako, etiketak eta konposizioa aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kosmetikoekin lotutako dokumentazioa aztertzeko jarraibideak zehaztu ditu.
- b) Kosmetikoen eta medikamentuen arteko aldea ezarri du.
- c) Kosmetikoen printzipio aktiboen, eszipienteen eta gehigarrien funtzioa zehaztu du.
- d) Kosmetikoen etiketatzea osatzen duten elementuei antzeman die.
- e) Kosmetikoaren kanpo-osagaien ezaugarriak azaldu ditu.
- f) Kosmetikoaren kanpoko elementuak aztertu ditu.
- g) Kosmetikoak aurkezteko moduak zehaztu ditu.
- h) Forma kosmetikoarekin lotu du ontzi-mota.

3. Karakterizazioan erabiltzen diren aurpegiko eta gorputzeko kosmetikoak hautatzen ditu, eta, horretarako, haien ezaugarriak, efektuak eta aplikazio-eremuak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Larruazala babesteko eta zaintzeko kosmetikoak zehaztu ditu.
- b) Higiene-kosmetikoen arteko desberdintasunak ezarri ditu.
- c) Kosmetiko hidratatzaileen printzipio aktiboen jarduteko modua identifikatu du.
- d) Makillatzeko produktu-moten ezaugarriak azaldu ditu.
- e) Makillajeak forma kosmetikoaren arabera aplikatzeko modua ezarri du.
- f) Makillatzeko kosmetikoak hautatzeko jarraibideak zehaztu ditu.
- g) Protesietarako eta fantasiazko makillajeen ezaugarriak zehaztu ditu.
- h) Kolorearen teoria aplikatu du zuzentzaileak hautatzeko.

- i) Makillaje profesionalean gehien erabiltzen diren kosmetikako linea komertzialak alderatu ditu.
- j) Produktuen konposizioa haien forma kosmetikoarekin eta eragin-mekanismoarekin erlazionatu du.

4. Ile-apainketako kosmetikoak hautatzen ditu; horretarako, haien ezaugarriak gauzatu beharreko prozesu teknikoarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ile-apainketan erabiltzen diren kosmetiko-motak bereizi ditu.
- b) Xanpu baten akzio-mekanismoa eta haren osagai aktiboak lotu ditu.
- c) Ile-egokitzaile baten konposizioa ile-zuntzean sortzen dituen eraginekin lotu du.
- d) Ile-zuntzean babesleek sortzen dituzten eraginak zehaztu ditu.
- e) Ilearen forma aldi baterako aldatzeko prozesuetan, ile-zuntzean gertatzen diren transformazioak ezarri ditu.
- f) Ilearen aldaketa iraunkorreko prozesuaren berariazko kosmetikoen aplikazioa eta bertan sortzen diren aldaketa kimikoak lotu ditu
- g) Kolorea aldatzeko kosmetikoen osagaiak eta ile-zurtoinean duten akzioa identifikatu ditu.
- h) Prozesu tekniko bakoitzean kosmetiko egokia hautatzearen garrantzia baloratu du.

5. Protesiak moldekatzeko eta modelatzeko produktuak hautatzen ditu; horretarako, haien propietateak lortu beharreko efektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Moldeak prestatzeko erabiltzen diren produktuetak bakoitzaren ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Lortu nahi den helburuaren arabera, zein produktu erabili behar duen zehaztu du.
- c) Moldekatu behar diren produktuak prestatzeko behar den materiala zehaztu du.
- d) Produktuak prestatzeko eragiketa fisiko-kimikoak gauzatu ditu.
- e) Modelatzeko produktuen ezaugarriak ezarri ditu.
- f) Produktu bakoitza erabiltzeko moduarekin lotu du.
- g) Produktuak manipulatzeko kontuan izan beharreko alderdiak ezarri ditu.

6. Ile-euskarriak eta protesiak egiteko produktuak hautatzen ditu; horretarako, haien ezaugarriak lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Protesiak eta ile-euskarriak prestatzeko produktuak deskribatu ditu.
- b) Protesiak eta ile-euskarriak finkatu eta kentzeko produktuen ezaugarriak zehaztu ditu.
- c) Hautatzeko irizpideak eta erabiltzeko modua ezarri ditu.
- d) Zuzenean gorputzaren gainean aplikagarriak diren produktuak zehaztu ditu.
- e) Haien ezaugarriak eta erabiltzeko modua deskribatu ditu.
- f) Karakterizazio-prozesuetan erabil daitezkeen elementu osagarriak zehaztu ditu.
- g) Kontuan hartu behar diren alderdiak zehaztu ditu.

7. Baliabideen biltegiratzea, higiena eta mantentze-lanak antolatzen ditu, eta, horretarako, jarduteko jarraibideak eta hondakinen kudeaketa ezartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizaziorako baliabideak zaintzeko baldintza optimoak identifikatu ditu.

- b) Biltegi izanen diren guneak antolatu ditu, irizpide funtzionalei eta ingurumen-premiei jarraikiz.
 - c) Desinfektau eta esterilizatzeko metodoak ezarri ditu.
 - d) Baliabideak desinfektatu ditu; horretarako, prozesua baldintzatzen duten aldagaiekin lotu du hautatu duen metodoa.
 - e) Karakterizazioko kosmetiko eta produktuak hondatu edo haietan kalteak eragin ditzaketen kausa nagusiak identifikatu ditu.
 - f) Produktuak eta kosmetikoak maneiatzeko jarraibideak ezarri ditu.
 - g) Karakterizazio-prozesuetan sortzen diren hondakinak kudeatzeari buruzko araudia interpretatu du.
 - h) Sortutako hondakinak biltegitratzeko jarraibideak finkatu ditu.
8. Karakterizazioko kosmetiko eta produktuak erabiltzearen ondoriozko arriskuak identifikatzen ditu, eta eragin ditzaketen erreakzioak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Produktuak, kosmetikoak eta tresnak manipulatzeko dauden arriskuak eta haien arriskugarritasun-maila identifikatu ditu.
- b) Erabiltzen diren produktu kimikoek eragin ditzaketen kontrako ondorioen ezaugarriak zehaztu ditu.
- c) Ondorio horiek ezagutzeko eta agertzen direnean jarduteko jarraibideak finkatu ditu.
- d) Narritadura, alergia edo intoxikazioa eragin dezaketen produktuak identifikatu ditu.
- e) Prozesuko eragiketak prestatzean eta gauzatzean hartu behar diren segurtasun-elementuak eta babes pertsonaleko neurriak zein diren zehaztu du.
- f) Karakterizazio-prozesuetan agertu ohi diren laneko gaixotasunak identifikatu ditu.
- g) Instalazioen eta ekipoen ordena eta garbitasuna balioetsi ditu arriskuen prebentziorako lehen faktore gisa.

Edukiak.

Karakterizaziorako kosmetikoak eta produktuak identifikatzea:

- Karakterizazioan erabiltzen diren kosmetikoak: sailkapena eta funtzioak.
- Karakterizazioan erabiltzen diren produktuak: sailkapena.
- Larruazal-motak kosmetikoen eta produktuen erabileran duen eragina. Karakterizaziorako kosmetikoen eta produktuen hautaketa baldintzatzen duten larruazaleko aldagaiak.
- Larruazala: ezaugarriak eta egitura.
- Larruazal-eranskinak: korneoak eta glandularrak.
- Larruazal-motak: izaera jariatzailearen arabera sailkapena. Ikus-ezaugarriak. Larruazal-mota zehazten duten elementuak.
- Larruazalaren aldaketak sexuaren, adinaren eta arrazaren arabera.
- Larruazala diagnostikatzeko metodoak.

Kosmetikoen eta produktuen dokumentu teknikoak interpretatzea:

- Kosmetikoen dokumentu teknikoak. Interpretazioa.
- Produktuen txosten teknikoak. Interpretazioa.
- Kosmetikoen kontzeptua. Produktu kosmetikoen araudi tekniko eta osasunekoa.
- Konposizio orokorra: printzipio aktiboak, eszipienteak eta gehigarriak.

- Konposizio kualitatiboa eta kuantitatiboa.
- Kosmetikoaren kanpoko aldea: ontziak, kanpoko ontzia edo enbalajea, prospektua eta etiketa.
- Forma kosmetikoak. Kontzeptua, sailkapena eta ezaugarriak.

Aurpegiko eta gorputzeko kosmetikoak hautatzea:

- Larruazala babesteko eta zaintzeko kosmetikoak: sailkapena.
- Higienarako kosmetikoak: sailkapena. Larruazal-motaren arabera hautatzeko irizpideak. Aplikazioa.
- Larruazala hidratatzeko, babesteko eta mantentzeko kosmetikoak. Eragin-mekanismoa eta aurkezpen-moduak. Sailkapena eta konposizioa. Aplikazioa.
- Makillajeko kosmetikoak. Konposizio orokorra: printzipio aktiboak eta eszipientek. Sailkapena. Makillajea larruazal-motaren arabera eta lortu beharreko efektuen arabera hautatzeko irizpideak.
- Aerografoarekin erabiltzeko makillajeak: ezaugarriak.
- Protesietarako berariazko makillajeak: ezaugarriak.
- Fantasiarako eta gorputzerako kosmetikoak.
- Makillaje profesionaleko linea kosmetiko komertzialak.

Ile-apainketan erabiltzen diren kosmetikoak aukeratzea:

- Ile-apainketan erabiltzen diren kosmetikoak sailkatzea.
- Ilearen higieneko kosmetikoak.
- Ilearen egokitzapenerako kosmetikoak.
- Ilea babesteko kosmetikoak.
- Ilearen forma modu iragankorrean eta iraunkorrean aldatzeko kosmetikoak: oinarri zientifikoa, konposizioa, jarduteko modua eta motak.
- Ilearen kolorea aldatzeko kosmetikoak: tinduak eta ilearen dekoloratzaileak. Konposizioa, ekin-tza-mekanismoa, forma kosmetikoak eta hartu beharreko neurriak.
- Ile-apainketako prozesu teknikoetarako kosmetikoak hautatzeko irizpideak.

Protesiak moldekatzeko eta modelatzeko produktuak hautatzea:

- Moldekatzeko produktuak: ezaugarriak, hautaketa-irizpideak eta aplikatzeko modua.
- Produktuak prestatzea: Nahasteak egiteko jarraibideak. Beharrezko materiala. Eragiketa fisiko-kimikoak.
- Modelatzeko produktuak: ezaugarriak, hautaketa-irizpideak eta aplikatzeko moduak.
- Manipulatzean kontuan hartu beharreko alderdiak.

Ile-euskarriak eta protesiak egiteko produktuak hautatzea:

- Protesietarako eta ile-euskarrietarako produktuak: ezaugarriak, hautatzeko irizpideak, prestaketa eta aplikatzeko modua. Erabiltzeko garaian kontuan hartu beharreko alderdiak.
- Zuzenean larruazalean aplikatzeko produktuak: ezaugarriak, hautaketa-irizpideak eta aplikatzeko moduak.
- Gailu osagarriak: Hortzetako gailuak, begi-protesiak, ordezeko betileak eta ordezeko azazkalak. Ezaugarriak, hautatzeko irizpideak, aplikatzeko moduak eta kontuan hartzeko alderdiak.

Baliabideen biltegiatzea eta mantentze-lanak antolatzea eta hondakinak kudeatzea:

- Karakterizazioko produktuen eta kosmetikoen biltegia: ezaugarriak eta antolamendua. Espazioen banaketa eta arreta-neurriak.

- Desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak. Karakterizaziorako materialak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko produktuak.
- Karakterizazioko kosmetikoen eta produktuen egonkortasuna eta alterazioak. Kosmetikoen egonkortasuna aldatzen duten faktoreak.
- Produktu eta kosmetikoak kontserbatzeko eta biltegitatzeko baldintzak. Segurtasun-arauak.
- Kosmetikoak eta produktuak manipulatzeko. Infekzioak eta intoxikazioak saihesteko jarraibideak.
- Hondakinen kudeaketa: produktu kosmetiko kutsatuak eta/edo alteratuak biltzearen gaineko araudia. Produktu alteratuen manipulazioa eta kontrola.

Karakterizaziorako kosmetikoak eta produktuak erabiltzeak dakartzan arriskuak identifikatzea:

- Karakterizazioko kosmetiko eta produktuek eragindako kontrako ondorioak: motak, kontzeptua, zantzuak, sintomak, kausak eta ondorioak. Narritadurazko erreakzioa eta erreakzio alergikoa.
- Kontrako erreakzioak prebenitzea.
- Profesionalak kontrako erreakzioen aurrean jarduteko jarraibideak.
- Intoxikazioak. Sortu ditzaketen produktuak. Neurriak. Jarduteko modua.
- Karakterizazio-prozesuetan garatzen diren laneko gaixotasunak.

Prebentzioa. Kosmetikoak aplikatzean, arriskuen prebentzioaren arloan kontuan hartu beharreko faktoreak.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honen bidez, karakterizazioko eta makillaje profesionaleko prozesuetan erabiltzen diren produktuak eta kosmetikoak zehazteko lanetan jarduteko behar den prestakuntza eskuratuko dute ikasleek. Modulu hau amaitzean, ikasleak gai izanen dira kosmetiko horien erabilera eragina duten produktuak eta faktoreak identifikatzeko, haiei buruzko dokumentazio teknikoak interpretatzeko, karakterizazio-prozesuetarako produktu egokiak hautatzeko, produktu horiek erabiltzeak dakartzan arriskuak identifikatzeko eta karakterizazio-prozesuetarako behar diren elementuak kudeatzeko.

Sekuentziarioari dagokionez, komeni da produktuak eta larruazala identifikatzearekin, dokumentazio teknikoarekin eta produktuen ezaugarriekin lotutako edukiekin hastea, eta aurpegiko, gorputzeko, ile-apainketako eta protesien arloko produktuen hautaketarekin lotutako edukiekin amaitzea.

Modulu hau etengabe ari da aldatzen produktu berriak eta araudi berria agertzearekin batera. Hori dela eta, interesgarria litzateke, besteak beste, web-orriak bistartzea, aldizkari espezializatuak irakurtzea, publizitatea analizatzea eta produktuen etiketak aztertzea. Horretarako, egokia litzateke baliabide hauek izatea ikasgelan: proiektagailua eta internetarako sarbidea duen ordenagailua. Produktuekin harreman zuzena izatea ere interesgarria da; horretarako, protesiak egiteko tailerrera eramaten ahalko dira ikasleak.

Modulu honetako helburuak lortzeko orientabide gisa, jarduera hauek egitea iradokitzen da:

- Produktu kosmetikoen gaineko araudi teknikoak eta osasun-arlokoak analizatzea.
- Produktu horietan ohikoenak diren substantziak deskribatzea.
- Larruazal-motak eta haien alterazioak identifikatzea.
- Produktu kosmetikoen berrikuntzei buruzko artikuluak edo dosierrak aztertzea.
- Protesiak egiteko tailerreko produktuek dituzten propietate aktiboen eta organoleptikoen ezaugarriak zehaztea.

Halaber, oso lagungarria izanen da talde-jarduerak egitea, ikasleek beren ezagutzak ez ezik gizar-te-trebetasunak ere praktikan jar ditzaten.

Lehen mailako Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak moduluan, karakterizazioan erabiltzen diren produktu kosmetikoak ezagutzen dira, eta, hortaz, bereziki koordinatu behar da produktu horiek erabiltzen dituzten moduluekin: Makillaje profesionala, Efektu bereziak makillajearen bidez, Aurpegi-ko protesiak sortzea, eta Karakterizaziorako ile-apainketa. Eduki horiek irakastean, garrantzitsua da koordinatzea, ikasleek modulu batean ikasitakoa bestean ikasitakoarekin osa dezaten.

Beste iradokizun bat: modulu hau irakasteko, Estetikako eta edergintzako erdi-mailako zikloko “Estetikarako eta edergintzarako kosmetologia” moduluko material didaktikoa erabil daiteke, han ere modulu honetan garatuko diren produktu asko lantzen baitira.

Lanbide-modulua: Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak.

Kodea: 1271.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 5.

Iraupena: 100 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Enplegurako aukerak hautatzea, eta laneratzeko eta bizialdi osoan ikasteko hautabideak identifikatzea.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabakiak hartzeko unean norberaren nortasunak, asmoek, jarrerak eta prestakuntzak duten balioa aztertu du.
- b) Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariarentzako enplegu-sorgune eta laneratzeko gune nagusiak identifikatu ditu, tokiko, eskualdeko, estatuko eta Europako esparruetan.
- c) Tituluaren profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu dira.
- d) Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza- eta lanbide-ibilbideak identifikatu ditu.
- e) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatzeko aukerak zabaltzeko eta ekoizpen-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- f) Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- g) Tituluari lotutako lanbide sektoreetan autoenplegurako zer aukera dauden aurreikusi du.

2. Talde lanerako estrategiak eta komunikaziorako trebetasunak aplikatzen ditu, eta estrategia horiek erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna eta efizientzia baloratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan egoera batean eratzen ahal diren lantaldeak identifikatu ditu.
- c) Komunikaziorako teknika nagusiak identifikatu ditu.
- d) Komunikazio eraginkorra izateko behar diren elementuak identifikatu dira.
- e) Lantalde eraginkorraren ezaugarriak zehaztu dira, eraginkortasunik gabeko lantaldeen aldean.
- f) Lanbide sektorean lantaldearen funtzionamendua hobetzeko behar diren gizarte trebetasunak balioetsi dira.
- g) Lantaldeetan erabiltzen diren dokumentuak identifikatu dira: deialdiak, aktak eta aurkezpenak.
- h) Taldekideek beren gain hartutako askotariko eginkizunen eta iritzien beharra balioetsi da.
- i) Taldeko kideen artean gatazkak sortzen ahal direla eta hori erakundearen ezaugarri bat dela onartu da.
- j) Gatazka-motak eta horien iturriak identifikatu dira, bai eta gatazkak konpontzeko prozedurak ere.

3. Lan harremanetatik sortzen diren eskubideak erabili eta betebeharrak betetzen ditu, eta badaki eskubide eta betebeharrak horiek lan kontratuetan eta hitzarmen kolektiboetan bereizten.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan zuzenbidearen arloko kontzepturik garrantzitsuenak identifikatu ditu.

- b) Enpresaburuen eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu.
- e) Indarreko legedian lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko ezarrita dauden neurriak balioetsi ditu.
- f) Soldaten ordainagiria aztertu du, eta hura osatzen duten elementu nagusiak identifikatu ditu, langilearen kotizazio-oinarriak eta langileari eta enpresaburuari dagozkien kuotak barne.
- g) Lan harremanak aldatzearen, etetearen eta bukatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo batean itundutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lanaren antolaketaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio-mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte Segurantzaren eginkizuna baloratu du, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko zutabe nagusia den aldetik.
- b) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu dira.
- c) Gizarte Segurantzako sistemak estaltzen dituen kontingentziak zerrendatu dira.
- d) Enpresaburuek eta langileek Gizarte Segurantzaren sistemaren barrenean dituzten betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Inguruko herrialde nagusietan Gizarte Segurantzaren arloan dauden desberdintasunak identifikatu dira.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu dira.
- g) Legezko langabezia-egoerak zehaztu dira zenbait kasu praktikotan.
- h) Ikasleen ezaugarriei dagozkien langabezia-prestazioen iraupena eta zenbatekoa kalkulatu dira, kotizaziopeko oinarrizko prestazioak eta kotizazio gabeko prestazioak bereiziz.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu; horretarako, lan-baldintzak eta bere lan-inguruneko arrisku-faktoreak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazioko eta makillaje profesionaleko goi-mailako teknikariaren lanbide-profilari lotutako kalte profesional motak sailkatu eta deskribatu ditu, era berezian aipatuz lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak.
- b) Dauden arrisku-faktoreak sailkatu dira.
- c) Lanbide-arriskuen ondorioz gerta daitezkeen lanbide-kalteak (lan-istripuak eta lanbide-eritasunak) identifikatu dira.
- d) Enpresako arriskuen ebaluazioaren kontzeptua eta prozesua zehaztu dira.
- e) Arrisku-motak identifikatu eta ebaluatu dira, bai eta prebentzio-neurriak proposatu eta neurrien eraginkortasunaren jarraipena eta kontrola egin ere.

- f) Zehaztu du zein diren Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren lanbide profilarekin zerikusia duten lan-inguruneetan prebentzioari begira garrantzia duten lan-baldintzak.
- g) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin lotu ditu.
- h) Prebentzioaren kulturak enpresaren esparru eta jarduera guztietan duen garrantzia balioetsi du.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten parte hartzen du, zerikusia duten eragile guztien ardurak eta eskumenak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentziorako oinarritzko araudia identifikatu da.
- b) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak identifikatu dira.
- c) Enpresan prebentzioa kudeatzeko dauden moduak sailkatu dira, laneko arriskuen prebentziorako araudian ezarritako irizpideen arabera.
- d) Arrisku plan bat prestatzearekin zerikusia duten eragile guztien erantzukizunak identifikatu dira.
- e) Arriskuen prebentzioaren arloan langileek enpresan ordezkari izateko bideak zein diren deskribatu du.
- f) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- g) Aintzat hartu du garrantzitsua dela enpresan prebentzio-plana izatea, larrialdietan egin beharreko jarduketan sekuentzia barnean hartzen duena.
- h) Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren lanbide-sektorearekin zerikusia duen lantoki bateko prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- i) Enpresa txiki edo ertain batentzako larrialdi- eta ebakuazio-planaren proiektua egin du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren lan-inguruneetako arrisku egoerak aztertu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak beren sorburuan eragozteko eta, hori ezinezkoa bada, haien ondorioak leuntzeko aplikatu behar diren prebentzio- eta babes-neurriak definitu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta eremua aztertu dira.
- c) Larrialdietan jarduteko protokoloak aztertu ditu.
- d) Larritasuneko biktimak dauden larrialdietan zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan zenbait kalte-motari aurre egiteko aplikatu behar diren lehen laguntzeta-rako oinarritzko teknikak identifikatu ditu. Halaber, botika kutxaren konposizioa eta erabilera identifikatu ditu.
- f) Langilearen osasuna zaintzeko betebeharrak eta baldintzak eta horiek prebentzio-neurri gisa duten garrantzia zehaztu ditu.

Edukiak.

Lan bilaketa aktiboa:

–Lanbide-karrera egiteko interesak, gaitasunak eta motibazio pertsonalak analizatzea.

–Erabakiak hartzeko prozesua.

–Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea.

- Sektoreko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua bere eraginpeko lurralde-eremuan, estatuan eta Europar Batasunean.
- Enplegu publikoa eskuratzeko prozesua.
- Europar ikasi eta lan egiteko aukerak.
- Karakterizazioko eta Makillaje Profesionaleko goi-mailako teknikariaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.
- Informazio hori ematen duten tokiko, eskualdeko, estatuko eta Europako erakundeak identifikatzea.
- Karakterizazioko eta makillaje profesionaleko goi-mailako teknikariarekin zerikusia duten prestakuntza-ibilbideak identifikatzea tokiko, eskualdeko, estatuko eta Europako esparruetan.
- Enplegua bilatzeko teknikak eta tresnak: curriculum vitae ereduak, Europako curriculum vitae eta laneko elkarrizketak. Europar Batasunean langileen mugikortasuna errazten duten beste agiri batzuk.
- Autoenplegua baloratzea laneratzeko aukera gisa.

Gatazkaren kudeaketa eta lantaldeak:

- Talde lanak, erakundearen eraginkortasunaren ikuspegitik, zer alde on eta txar dituen aztertzea.
- Estetikaren eta edertasunaren sektoreko lantalde-motak, betetzen dituzten eginkizunen arabera.
- Lantalde eraginkorraren ezaugarriak.
- Trebetasun sozialak. Hitzeko eta hitz gabeko komunikazio-teknikak. Komunikazio eraginkorrerako estrategiak.
- Laneko bileretan erabiltzen diren agiriak: deialdiak, aktak eta aurkezpenak.
- Lantaldean parte hartzea. Kideek hartzen ahal dituzten rolen azterketa.
- Gatazka: ezaugarriak, iturriak eta etapak.
- Gatazka konpontzeko edo deuseztatzeko metodoak: bitartekaritza, adiskidetzea, arbitrajea, epaiketa eta negoziazioa.

Lan-kontratua:

- Lan Zuzenbidea.
- Banakako lan-harremanaren analisia.
- Lan-kontratuaren modalitateak eta kontratazioa sustatzeko neurriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak.
- Lan-baldintzak. Soldata, laneko denbora eta atsedena.
- Soldataren ordainagiria.
- Lan-kontratua aldatzea, etetea eta azkentzea.
- Langileen ordezkartza.
- Karakterizazioko eta makillaje profesionaleko goi-mailako teknikariaren lanbide-eremuari aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo baten azterketa.
- Lan-gatazka kolektiboak.
- Lan-antolaketa ingurune berriak: azpikontratazioa eta telelana, besteak beste.
- Langileentzako onurak erakunde berrietan: malgutasuna eta gizarte-onurak, besteak beste.

Gizarte Segurantzaren enplegua eta langabezia:

- Gizarte Segurantzaren sistema, elkartasun sozialaren oinarritzko printzipioa.

- Gizarte Segurantzaren sistemaren egitura.
- Enpresaburuek eta langileek Gizarte Segurantzaren arloan dituzten betebeharrak nagusiak zehaztea: afiliazioa, altak, bajak eta kotizazioa.
- Gizarte Segurantzaren ekintza babeslea.
- Gizarte Segurantzaren gure inguruko herrialde nagusietan.
- Langabezia babesia: kontzeptua eta babesten ahal diren egoerak.

Laneko arriskuen ebaluazioa:

- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko oinarritzko arau esparrua.
- Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.
- Prebentzioaren kulturaren garrantzia jardueraren fase guztietan.
- Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.
- Lanbide-arriskua. Arrisku-faktoreen azterketa.
- Enpresako arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa.
- Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuen azterketa.
- Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuen azterketa.
- Baldintza ergonomiko eta psikosozialei lotutako arriskuen azterketa.
- Sektoreko industrian arrisku espezifikoak dituzten lan-prozesuak.
- Arriskuaren ebaluazioa.
- Arrisku-egoera bakoitzaren ondorioz langilearen osasunak nolako kalteak izaten ahal dituen zehaztea.

Prebentzioaren plangintza enpresan:

- Prebentzio-plana.
- Prebentzio-neurriak hartzea: plangintza eta kontrola.
- Prebentzioaren kudeaketaren antolaketa enpresan.
- Langileen ordezkaritza prebentzio-arloan.
- Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.
- Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.
- Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.
- Lan-inguruneetako larrialdi eta ebakuazio planak.
- Sektoreko enpresa batentzako larrialdi-plana prestatzea.
- Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.

Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzea:

- Jarduteko protokoloa hautatzea.
- Prebentzio eta babes indibidual eta kolektiborako neurriak zehaztea.
- Segurtasun-arloko seinale-motak identifikatzea.
- Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarritzko kontzeptuak eta aplikazioak.
- Langileei prestakuntza ematea larrialdi-planei eta lehen laguntzako teknikiei buruz.
- Langileen osasuna zaintzea.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honen bidez, ikasleek oinarritzko trebetasunak eta jarrerak berenganatzen dituzte lan-munduan sartzeko eta beren lanbide-karrera garatzeko, ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen sektorean, hala Espainian nola Europan.

Edukien sekuentziazioari dagokionez, kontuan izanik ikastetxeak egokienak iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko eskumena duela, lan-arloko legeriari, Gizarte Segurantzari eta lantaldeei buruzko edukiak landu litezke lehenik. Ondotik, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako edukiak planteatzen ahal dira. Gatazkaren kudeaketarekin jarraitzen ahal da eta, azkenik, lana bilatzeari buruzko multzoa lantzen ahal da, ikasleak lan-merkatuan sartu aurreko urrats gisa, genero-ikuspegia ere kontuan hartuta.

Modulu honetako ikaskuntzaren emaitzak lortzeko, jarduera anitz daude aukeran. Hona hemen batzuk:

- Norberaren izaerari eta trebetasun sozialen garapenari buruzko orientabide profesionaleko probak eta dinamika egitea, prestakuntzaren eta asmoen arteko koherentzia pertsonala egiaztatzeko.
- Norberaren karrera planifikatzea: beharrekin eta lehentasunekin bateragarriak diren epe ertainerako eta luzerako lan-helburuak finkatzea. Helburu errealistak eta oraingo prestakuntzarekin eta proiektuarekin koherenteak direnak finkatzea, eta nork bere ikaskuntzaren ardura hartzea.
- Lana bilatzen laguntzen ahal diguten baliabideak eta erakundeak identifikatzea, bai gure ingurune hurbilenean, bai Europan, horretarako tresna egokiak erabiliz.
- Lana bilatzeko prozesuetan behar den dokumentazioa prestatu eta betetzea: curriculum vitae, lan-elkarriketak, test psikoteknikoak eta beste batzuk.
- Jardueraren bat bakarka eta taldean egitea eta emaitzak konparatzea.
- Komunikazio-jarduerak egitea.
- Eskolan aurkezpenak egitea.
- Gatazka-egoera bat simulatzea eta konpontzeko zenbait modu aurkeztea.
- Sektoreko langileei eragiten dien lan-arloko araudia identifikatzea.
- Langileen Estatutuaren edukia eta ikasten ari den zikloari dagokion sektoreko hitzarmen kolektibo bat alderatzea.
- Negoiazio kolektiboko prozesu bat simulatzea, langileen eta enpresaburuaren interesak bateratzeko bide gisa.
- Zailtasun-maila desberdinetako soldata-ordainagiriak egitea.
- Prebentzio-plan bat prestatzea Enpresa eta Ekimena izeneko moduluan garatu beharreko enpresako proiekturako/planerako.
- Gizarte Segurantzak babesten dituen egoerak identifikatzea.
- Zikloa eginda eskuratzen ahalko diren lanpostu ohikoenetan gertatzen ahal diren arrisku-egoerak aztertzea, aurreneurriak proposatzea eta ezarri beharreko aurreneurrien plangintza diseinatzea, hori guztia indarreko araudiari jarraituz.
- Laneko sexu-jazarpenaren eta generoan oinarritutako jazarpenaren kontrako protokoloak aztertzea.
- Sektoreko enpresak ikusteko bisitak programatu eta egitea, ikasleek ekoizpen-sektorearen errealtatea ezagut dezaten.

Modulu honen edukietarako ikus-entzunezko baliabideak eta/edo Internet erabilita, irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesua azkarragoa eta eraginkorragoa izanen da. Pixkanaka ikasleek beren kabuz ebazten ahalko dituzte proposatzen zaizkien jarduketak eta egoerak.

Nabarmentzekoa da arreta jarri behar zaiola lantegi, laborategi eta abarretan ematen diren modulu-erlazioari, laneko osasunaren arloko prestakuntzaosatze aldera.

Lanbide-modulua: Ingelesa I.

Kodea: NA01.

Iraupena: 60 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Interesatzen zaizkion eguneroko gaiei buruz ingelesez ohiko mintzairan idatzitako testu errazak ulertzen ditu, independentzia maila onargarriarekin, eta garrantzia duen informazio orokorra edo espezifikoa ateratzea lortzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gai arruntei buruzko testu batean, ideia orokorra edo intereseko informazioaren bat aurkitu eta ulertu du.
- b) Eguneroko testuak irakurtzeko teknika egokia aplikatu du, testu-motaren eta helburuaren arabera, informazio garrantzitsua bilatzeko.
- c) Lan jakin bat egiteko behar diren datuak eta informazioak atera ditu erabilera arrunteko testu-zati edo testu desberdinetatik, edo, hiztegiaren laguntzaz, bestelako iturrietatik.
- d) Hitz ezezagunen esanahia testuingurutik ondorioztatu du, ikaslearen interesekin zerikusia duten gaietan edo ezohiko gaietan.
- e) Aparatu edo ekipo bat erabiltzeko jarraibide sinpleak zehaztasunez interpretatu ditu.
- f) Testuinguruan kokatzearen eta koherentziaren irizpideak aplikatu ditu itzulpen-tresnek emandako informazioaren hautapena egiteko.

2. Bere intereseko gaiei buruz edo eguneroko bizitzako jardueri buruz ingelesez eta ahoz emandako informazio baten ideia nagusiak ulertzen ditu, aurrez aurreko komunikazio-egoeretan zein bestelakoetan, solaskideek argi eta astiro hitz egiten dutenean.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mezu labur batzuk, hala nola abisuak, oharrak edo iragarkiak, osorik ulertu ditu, inguruko hotsek distortsio handirik eragin ez duten egoeran.
- b) Zehaztasunez identifikatu ditu bere jardueraren elementu aurreikusgarriekin zerikusia duten datuak eta ekintzak, hala nola zenbakiak, kantitateak eta denborak.
- c) Argi eta hizkuntza estandarrean ari diren ingeles hiztun batzuen arteko elkarriketaren gaia identifikatu du.
- d) Bere eguneroko jardueri buruz hizkera argian esan zaiona zailtasunik gabe ulertu du (noizean behin zer bait errepikatzeko edo beste modu batera esateko eskatzen utzi zaio).
- e) Eguneroko ohiko gaiei buruzko mintzaldi grabatuetan edo solaskidea aurrean izan gabe, argi eta astiro mintzatuz emandako informazioen funtsezko elementuak identifikatu ditu.

3. Bere intereseko gaiekin zerikusia duten agiriak bete eta gutunak, mezuak edo jarraibideak idazten ditu ingelesez, komunikazio eraginkorrak eskatzen duen kohesio eta koherentziarekin.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Inprimakiak, txosten laburrak eta bestelako agiri normalizatuak edo errutinakoak bete ditu, okerrik gabe eta berariazko terminologia erabiliz.
- b) Gutunak, faxak, posta elektronikoko mezuak, oharrak eta txosten sinple eta zehatzak idatzi ditu, horrelako testuei dagozkien arauak beteta.
- c) Eguneroko gaiei buruzko informazioak, aldizkarietatik eta liburuxketatik, Internetetik eta beste iturri batzuetatik jasoak, fidagarritasunez laburtu ditu, eta jatorrizko testuetako hitzak eta

antolaketa erabiltzeko gai da, testu laburrak edo laburpen koherenteak ohiko formatu batean sortzeko.

- d) Gutunak, deskribapenak eta gai orokorreki edo norberaren intereseko gaiei buruzko beste idazki batzuk egin ditu, datuak, iritzi pertsonalak edo sentimenduak adieraziz, zehaztasun eta xehetasun maila nahikoarekin.
- e) Norberaren jarduerari dagozkion agiriak egitean zuzentasun nahikoa lortu du oinarritzko elementu gramatikaletan, puntuazio-marketan eta ohiko hitzen ortografian; egitura koherente eta sendoa osatu du, eta eguneroko bizitzan norberari interesatzen zaizkion gai gehienei buruz nahikoa argi adierazteko moduko lexikoa erabili du.
- f) Idatzizko dokumentuak egitean kontuan hartu ditu hartzailearen ezaugarri soziokulturalak eta komunikazioaren ingurunea.
- g) Testuinguruan kokatzearen eta koherentziaren irizpideak aplikatu ditu itzulpen-tresnek emandako informazioa hautatzeko.

4. Eguneroko bizitzako gaiei buruz nahikoa arin eta garbi mintzatzen da aurrez aurreko edo urrutiko elkarrizketetan, hitz eta esapide sinpleak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mintzatzeko intonazio egokia eta ahoskera argi eta ulergarria erabili ditu, atzeritar-doinu nabarmena badu ere eta mintzakideek noiz edo behin zerbait errepikatzeko eskatu behar izan badute ere.
- b) Aurreikusi gabeko egintza edo gertaeren deskribapenak edo kontaketak egin ditu, ongi ulertzeko moduko xehetasun-mailarekin.
- c) Itzulginguruak erabili ditu lexikoaren hutsuneak gainditzeko.
- d) Zehaztasunez mintzatu da, behar adinako lexikoa eta esaldi errazak eta estandarizatu samarrak erabilita, norberaren lanbide-eremuarekin zerikusia duten kantitate, zenbaki, ezaugarri eta gertaeren inguruko informazioa ematean.
- e) Ingeleseko ahozko adierazpena komunikazio-egoerara egokitu du, hitzik gabeko komunikaziorako behar diren elementuak erantsiz.

5. Beste pertsona batzuekin ingelesez mintzatzen da, eta elkarren intereseko eguneroko gaiei buruz hizketaldi sinple eta zuzena egiten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Interes pertsonaleko gaiei buruzko aurrez aurreko elkarrizketa errazak hasi, jarraitu eta burutu ditu.
- b) Eguneroko egoerei buruzko ahozko elkarrizketa laburretan parte hartu du zailtasunik gabe, gai ezagunak hizpide hartuta.
- c) Noizbehinka solaskideei zerbait argitu edo errepikatzeko eskatu die, aurreikusteko moduko egoerez ari direnean.
- d) Konbentzio egokiak erabili ditu, elkarrizketa kasuan kasuko komunikazio testuinguruari dagozkion moduan hasi edo burutzeko.
- e) Ahozko elkarreragina, hitzik gabeko mintzaira barne, egokitu du komunikazio-motara (aurrez aurrekoa edo urrutikoa), komunikazio-egoerara (formala edo informala) eta solaskidearen ezaugarri soziokulturaletara.
- f) Norberaren lanbide-eremuko gizarte-elkarreragineko ohiko egoeren inguruan mintzatzeko behar bezain aberatsa den hiztegia erabili du.

Edukiak.

Eduki lexikoak:

- Eguneroko bizitzari buruzko lexikoa eta terminologia, batik bat arlo hauetakoa: bidaiak eta turismoa (garraiobideak, ostatatze tokiak eta abarrak), aisia, sentimendu pertsonalak, errutinak eta bizi-ohiturak, jantziak, elikadura, etxebizitza, erosketak, osasuna, lan-mundua, komunikabideak, publikorako instalazio eta zerbitzuak.
- Lanbide-eremuko oinarritzko lexikoa eta terminologia.

Eduki gramatikalak:

- Aditz-denborak.
- Hitzen eraketa.
- Preposizioak, juntagailuak eta adberbioak.
- Aditz laguntzaileak eta moduzkoak.
- Erlatibozko perpausak.
- Koherentzia- eta kohesio-elementuak: lokailuak.
- Boz pasiboa. Hizkera tekniko-zientifikoa.
- Baldintzak.
- Zeharkako estiloa.

Eduki funtzionalak:

- Hasierako eta amaierako agurrak gizarteko ohiko egoeretan.
- Galdetzea eta erantzutea, informazio orokorra lortzeko edo emateko, datuak eskatzeko, etab.
- Norberaren intereseko gaiei buruzko azalpen eta aurkezpenak entzutea eta garrantzizko informazioa bereiztea, oharra edo laburpenak idatziz.
- Alderatzea eta kontrastatzea; alde onak eta txarrak.
- Adostasuna eta desadostasuna azaltzea.
- Asmoak eta planak adieraztea.
- Gustuak eta lehentasunak adieraztea.
- Iradokizunak, gomendioak, kexak eta eginbeharrak adieraztea.
- Norberaren intereseko gaiei buruz iritzia ematea argudioak erabiliz.
- Pertsonak deskribatzea eta gertaerak kontatzea.
- Iraganari eta etorkizunari buruz gogoeta egitea. Hipotesiak adieraztea.
- Testu bateko gai nagusia berehala identifikatzea.
- Testu bateko xehetasun espezifikoak zehaztasunez kokatzea eta agerikoa ez den esanahia ondorioztatzea.
- Dokumentu generiko luze bateko edo batzuetako informazioak planifikatu eta idatziz laburtzea.
- Informazioa edo iritzia adierazten duten testu koherenteak osatzea.
- Inprimakiak edo erabilera arrunteko dokumentuak betetzea.
- Formatua eta egitura egokitzea helburu desberdinak dituzten idatzizko testuak antolatzeke (txostenak, jarraibideak, mezu elektronikoak eta abarrak).
- Hiztegiak edo erreferentziazko bestelako materialak, baliabide elektronikoak barne, trebetasunez erabiltzea, hitz ezezagunek kasuan kasuko testuinguruan zer esan nahi duten jakiteko.

- Informazioak eta ideiak ahoz aurkeztea sekuentzia logikoan.
- Telefono-deiak egin eta hartzea. Mezuak utzi eta jasotzea.
- Beste pertsona baten hitzak transmititzea: aginduak, jarraibideak, galderak, eskaerak eta abarrak.
- Eguneroko bizimoduarekin zerikusia duten gertaerak, azalpenak, jarraibideak eta deskribapenak ahoz adieraztea, zuzen mintzatuz.
- Komunikazioaren estiloa hartzaileari, inguruneari eta komunikazioaren helburuari egokitzea.
- Hitzik gabeko komunikazioaren estrategiak erabiltzea, ahozko elkarreragina indartzeko.

Gizarte- eta lanbide-edukiak:

- Norberarekin komunikatzen diren bezero edota profesionalen herrialdeetako giza, gizarte- eta lanbide-harremanetarako oinarritzko arauak, protokoloak eta ohiturak identifikatzea eta aztertzea.
- Ingeleseko harremanetarako arauak identifikatzea eta aplikatzea, bereziki kontuan hartuz Interneten erabiltzen diren adeitasunezko konbentzioak.
- Bestelako kulturak eta haiek osatzen dituzten pertsonak ezagutzeko gogoia eta haienganako errespetua eta jarrera irekia agertzea.
- Binaka, taldeka eta jakintza-arlo anitzeko eremuetan lan egiteko prest egotea.

Orientabide didaktikoak.

Ingelesa I nahitaezko lanbide-moduluak ikasleen hizkuntza-gaitasuna indartzea du funtsezko helburutzat. Bereziki, bizitza arrunteko eta lanbide-bizitzako ohiko komunikazio-egoeretan aise moldatzen lagunduko dieten trebetasunak nabarmentzen ditu.

Europar hainbat azterlan egin dira, langileek beren lan-jarduerarekin zerikusia duten egoeretan hizkuntzak erabili beharri buruz zer dioten jakiteko. Azterlanok agerian jarri dutenez, behar hori, lehenik, hertsiki lanbide-arlokoak ez diren gizarte-harremanetan nabaritzen dute langileek. Beraz, modulu honetan, ingeles teknika irakatsi baino areago, hizkuntza ohiko komunikazio-egoeretan erabiltzen irakatsi nahi zaie ikasleei, profil bakoitzari dagokion lanbide-ingurunea ikasgelan proposatzen diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueretan sartzeari uko egin gabe, noski. Alderdi hori agerian jartzen da, halaber, lanbide-heziketako ikasleek beste herrialde batzuetan dituzten esperientzietan, etengabeko ikaskuntzarako Europako programetan parte hartzen dutenean.

Horregatik guztiagatik, eta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan proposatzen denarekin bat etorritik, modulu honen bidez ikasleek komunikazio eraginkorra lortu behar dute egiazko egoeretan, bizitza arrunteko egoerak izan nahiz lanbide arlokoak izan.

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua, helburu horri begira, nabarmenki praktikoa den ikuspuntu batetik bideratu behar da. Gramatikaren irakaskuntza aurreko kurtsoetan ikasitakoaren berrikuspen gisa hartu behar da, eta ikasleentzat egiazko interesa duten komunikazio-egoeretan txertatu. Horrela, ikasleak errazago ohartuko dira ikasi behar duten hizkuntzan beren kasa moldatu beharra dutela. Era berean, ahaleginak egin behar dira, lehenik eta behin, ikasleak gai izan daitezen modu autonomo eta koherentean komunikatzeko. Gero, adierazpenaren zuzentasunari, jarioari eta zehaztasunari ekinen zaie. Ikasgelan, bai irakasleak, bai ikasleak, guztiak ingeles hutsean aritzeak ederki lagunduko du lortu nahi diren helburuak betetzen.

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan egiten diren jarduerak egokiro diseinatu behar dira, ikasleei erakusten zaizkien komunikazio-egoerak ahalik eta benetakoak izan daitezen, bereziki ulermena eta mintzamina, eta, beraz, elkarreraginerako trebetasunak indartu daitezen.

Irakurmena lantzea aukera ona izaten ahal da ikaskuntza lanbide-arloaren ingurunean kokatzeko, datuak, informazioak eta berariazko hiztegia egiazko dokumentuetatik aterata. Horiek, neurri handi batean, Interneten bidez eskuratzen ahalko dira. Ildo beretik lagungarria izaten ahal da ikasleek aurkezpen elektronikoak egitea, beren lanbide-arloko lan-prozesuak, eragiketarako jarraibideak, makinaren funtzionamendua eta abar deskribatzeko.

Komunikazioaren teknologiak balio handiko tresnak dira ikasleak benetako komunikazio-egoeretan kokatzeko. Haietako batzuk arestian aipatu ditugu, eta beste batzuk gehitzen ahal zaizkie, hala nola sarearen bidezko komunikazio-tresnak (posta elektronikoa, sare sozialetan parte hartzea, etab.), Interneten dagoen baliabide iturri ia agortezina ahanzi gabe (hiztegiak, podcast-ak, vodcast-ak, argitalpen teknikoak eta abarrak). Baliabide horiek eskuratzeko errazak dira, eta, maiz, doakoak. Era berean, kontuan hartu behar da heziketa-zikloetatik abiatuta ikasleek etengabeko irakaskuntzarako nazioarteko programetan parte hartzen ahal dutela. Hori beste pizgarri bat izaten ahal da ikasleei interesatzen zaizkien bene-benetako komunikazio-egoerak planteatzeko.

Arreta jarri behar zaion beste kontu bat gaitasun soziolinguistikoen garapena da, gaitasun horiek irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesu osoari eragin behar baitiote. Prestakuntza helburua duen esparru honetan, garrantzitsua da ikasleek honako hauek badakizkitela bermatzea: hizkuntza erabiltzeko konbentzioak, adeitasunezko arauak, erregistroak eta horiek behar bezala erabiltzearen garrantzia, eta, oro har, ingelesa ama-hizkuntza duten herrien idiosinkrasia ongien definitzen duten ezaugarri kulturalak.

Ebaluazioari dagokionez, prozesu horren ardatza ikasleen komunikaziorako gaitasunaren balorazioa izatea iradokitzen da; hau da, beren hizkuntza-ezagutzak eta trebetasunak nola baliatzen dituzten ikustea, bai eta komunikaziorako estrategiak erabiltzeko zenbateko gaitasuna duten ere. Helburu horri begira adierazi dira modulu honetako ebaluazio-irizpideak, eta, alde horretatik, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua oso bitarteko baliotsua izaten ahal da ebaluazio-tresnak diseinatzeko.

Lanbide-modulua: Plangintza eta proiektuak.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 8.

Kodea: 0685.

Iraupena: 130 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Dokumentazioa kudeatzen du, eta, horretarako, bilatzeko, lantzeko eta artxibatzeko prozedurak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Datuak lortzeko, dokumentazio-iturri batzuk hautatu ditu.
- b) Informazioa hautatzeko eta egiaztatzeko irizpideak zehaztu ditu.
- c) Informazioa ezarritako euskarri edo formatuetan artxibatu du.
- d) Funtsezko osagaiak ezarri ditu karakterizazio-koaderno batean.
- e) Karakterizazio-lanaren faseei dagozkien dokumentu teknikoak bereizi ditu.
- f) Dokumentuen egitura eta atalak, eta haiek egiteko jarraibideak zehaztu ditu.

2. Karakterizatu behar diren pertsonaien ezaugarriak zehaztu ditu; horretarako, proiektu artistikoa aztertu du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Makillajearen eta ile-apainketaren bilakaera historikoaren ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Edertasun-kanona denboran nola aldatu den eta kanonen irudikapen artistikoa aztertu ditu.
- c) Ildo artistiko bati jarraitzearen garrantzia aintzat hartu du.
- d) Gidoia banakatzeko eta aztertzeko metodo bat ezarri du, pertsonaien ezaugarriak identifikatzeko.
- e) Pertsonaien ezaugarri fisikoak, estetikoak eta psikologikoak identifikatu ditu gidoian oinarrituta.
- f) Pertsonaiaren inguruko datuak (historikoak, sozialak, kulturalak, geografikoak edo ingurumenekoak), karakterizazioa baldintzatzen dutenak, zehaztu ditu.
- g) Modeloaren edo aktorearen ezaugarri morfologikoak aztertzeko prozedura ezarri du.
- h) Lortutako informazioarekin, pertsonaia bakoitzari buruzko fitxak egin ditu.

3. Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen baldintza teknikoak zehazten ditu; horretarako, karakterizazio-prozesuarekin lotzen ditu baliabideen ezaugarriak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonaia bat sortzeko prozesua ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen ezaugarriekin lotu du.
- b) Plano-motaren eragina, kamera-mugimendua eta ikus-entzunezko hizkuntzaren gainerako elementuak zehaztu ditu karakterizatu behar den pertsonaiaren diseinuan.
- c) Raccord-motak bereizi ditu, eta jarraitutasunean izan daitezkeen akatsak prebenitu ditu.
- d) Ikuskizun eszeniko baten produkzioan inplikaturako enpresen funtzioak identifikatu ditu.
- e) Ikus-entzunezko hizkuntzaren eta hizkuntza eszenikoaren terminologia egokiro erabili du.
- f) Argiek karakterizazio-lanetan duten eragina aztertu du.

4. Karakterizazio-proiektuak egiten ditu; horretarako, irizpide artistiko, tekniko eta ekonomikoak definitzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazio-proiektuaren egitura eta atalak zehaztu ditu.
- b) Proiektuari loturiko dokumentu-motak identifikatu ditu.
- c) Pertsonaia bakoitzari dagokionez, karakterizazioaren ezaugarri teknikoak (efektu bereziak, protesiak eta makillajeko eta ile-apainketako eskakizunak, besteak beste) zehaztu ditu.
- d) Karakterizatu behar diren pertsonaien diseinu grafikoak edo digitalak txertatu ditu.
- e) Karakterizazio-proiektua baldintzatzen duten aldagaiak zehaztu ditu.
- f) Proiektua gauzatzeko behar diren baliabide teknikoak, giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztu ditu.
- g) Eraldaketetako prozesu teknikoen sekuentziazioa eta tenporalizazioa justifikatu ditu.
- h) Aurrekontuak egin ditu; horretarako, baldintza ekonomikoak zehaztu ditu.
- i) Ikus-entzunezko baliabideetarako eta ikuskizun eszenikoetarako proiektu artistikoei dagozkien karakterizazio-proposamenak diseinatu ditu.
- j) Proiektuaren bideragarritasuna balioetsi du, eskatzen dituen betekizun teknikoen eta materialen arabera.

5. Karakterizazio-proiektua aurkezten du; horretarako, komunikazio-teknikak erabiltzen ditu eta euskarria hautatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proposamena aurkezteko zenbait euskarri hautatu ditu.
- b) Programa digitalak erabili ditu bezeroari karakterizazio-proiektuaren berri emateko.
- c) Maketak egin ditu proiektuak aurkezteko baliabide gisa.
- d) Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazio-baliabideak erabili ditu.
- e) Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen arduradunei proposamena aurkezteko bilera eraginkorra izan dadin ildo nagusiak zehaztu ditu.
- f) Telefonoz, posta bidez eta abar komunikatzean bete behar diren jarraibideak ezarri ditu.
- g) Teknologia informatikoak (mezu elektronikoak, webguneak eta blogak, besteak beste) erabili ditu bezeroari komunikazio komertziala helarazteko.
- h) Planteatzen diren zalantzak ebazteko mekanismoak zehaztu ditu.
- i) Prozesua baimentzeko baldintza-orriaren atalak eta egitura identifikatu ditu.
- j) Karakterizazio-proiektuak aurkezteko profesionaltasun-irizpideak ezarri ditu.

6. Ikus-entzunezko baliabideetan eta baliabide eszenikoetan karakterizazio-proiektuaren garapena planifikatzen du; horretarako, giza taldeak kudeatzeko eta koordinatzeko teknikak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Entseguetan, emanaldietan, filmaketetan, zuzeneko ikuskizunen zuzeneko emankizunetan eta ikus-entzunezko baliabideetan karakterizazio-zerbitzuak planifikatzeko eta zuzentzeko jarraibideak ezarri ditu.
- b) Egin behar diren lanak eta dagozkien probak eta denborak antolatzeko kronogramak prestatu ditu.
- c) Karakterizazioko lanak, eginkizunak eta erantzukizunak identifikatu, eta taldekideen artean banatu ditu.

- d) Proiektuan inplikaturiko profesional guztien artean komunikatzeko eta informazioa helarazteko metodoak ezarri ditu.
- e) Hornigaiekin eta mantentze-lanetako zerbitzuarekin lotutako premiak zehaztu ditu, bai eta hornidura-kostuak ere.
- f) Hornitzaileak hautatzeko eta ebaluatzeko metodo bat ezarri du.
- g) Jarduerarako beharrezkoak diren materialak eta ekipamenduak erostearen eta alokatzearen artean dauden funtsezko desberdintasunak analizatu ditu.
- h) Filmaketan edo ikuskizun eszenikoan karakterizazio-taldea gainerako taldeekin koordinatzeko jarraibideak ezarri ditu.
- i) Aldaketetan eta ukituetan karakterizazio-profesionalak zer esku-hartze izanen duen zehaztu du.

7. Karakterizazio-prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedurak finkatzen ditu; horretarako, kontrolatzeko parametroak eta tresnak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazio-proiektuetan kalitatea bermatzeko ebaluatu behar diren alderdiak identifikatu ditu.
- b) Karakterizazio-lan bat planifikatzean eta gauzatzean kalitatea ebaluatzeko irizpideak zehaztu ditu.
- c) Karakterizazio-prozesuetan gogobetetze maila eta kalitatea ebaluatzeko metodoak eta teknikak deskribatu ditu.
- d) Prestakuntza eta kalitate profesionalerako bideak identifikatu ditu.
- e) Zuzeneko ikuskizun bateko karakterizazio-prozesuan gerta daitezkeen gorabeherak zuzentzeko neurriak ezarri ditu.

Edukiak.

Dokumentuen kudeaketa:

Dokumentu-iturriak. Zenbait iturritatik lortutako informazioa kontrastatzea.

–Pertsonaiei, karakterizazioei eta materialei buruzko informazioa bilatzeko estrategiak.

–Dokumentuak antolatzeako eta artxibatzeko teknikak.

–Karakterizazio-koadernoak: helburuak, edukiak eta formatua.

–Dokumentu teknikoen sailkapena eta egitura:

- Ikus-entzunezko edo eszenako lan baten aurreproduktzio-fasean sortutako dokumentuak.
- Produktzio-dokumentuak.
- Postproduktzio-dokumentuak.

Karakterizatu behar diren pertsonaien ezaugarriak zehaztea:

–Makillajearen eta ile-apainketaren historia karakterizazioari aplikatuta. Edertasun-kanonaren bilakaera korrante artistikoen bidez.

–Obra baten ildo artistikoa: definizioa eta garrantzia. Obra baten ildo artistikoaren jarraipena eta garapena, karakterizatzailearen ikuspegitik begiratuta.

–Gidoi literarioa eta gidoi teknikoa: ezaugarriak eta egitura. Bien arteko erlazioa.

–Gidoia banakatzea. Karakterizazioa gidoia banakatzean.

- Pertsonaien ezaugarri fisikoak, estetikoak eta psikologikoak identifikatzea, gidoian oinarrituta. Ikerketa- eta analisi-teknikak.
- Modeloaren/interpretearen ezaugarriak eta pertsonaiarekin duen harremana aztertzea.
- Proiektu artistikoan ageri diren datu historikoak, sozialak, kulturalak, geografikoak edo inguru-menekoak aztertzea.
- Informazioa erregistratzea. Pertsonaien fitxak egitea.

Karakterizazio-prozesuan, ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen baldintzatzaile teknikoak zehaztea:

- Ikus-entzunezko baliabideak: sailkapena eta ezaugarri orokorrak. Ikus-entzunezkoen ziklo ekonomikoan inplikaturako enpresak; produkzio-etxeak, banaketa-etxeak eta erakusketa-etxeak.
- Irudia erregistratzeko euskarriak: filma eta bideo-sistemak.
- Obra digital baten egile-eskubideak.
- Zinemaren historian garrantzi handia izan duten joerak: espresionismoa, surrealismoa. neorrealismoa, nouvelle vague, dogma.
- Ikus-entzunezko hizkuntzaren oinarritzko elementuak: plano-motak, raccorda, kamera-mugimenduak, narrazio-baliabideak, storyboarda eta muntaketa.
- Zuzeneko ikuskizunak: ezaugarri orokorrak eta sailkapena.
- Antzerki-hizkuntzaren ezaugarriak.
- Espazio eszeniko motak. Ikuskizun eszeniko baten produkzioan inplikaturako enpresak.
- Argiztapena. Argiztapen ekipamendu baten osagaiak. Iragazkiak eta islatzaileak. Lanpara- eta foku-motak eta haien ezaugarriak.
- Argiaren sailkapena argi-sortaren norabidearen arabera. Argi gogorra eta argi barreiatua.
- Argi-kolorea: ezaugarriak, nahasketak, giroak sortzea, kolore-tenperatura.
- Argien eragina karakterizazioan, makillajeetan, orrazkeretan, protesietan eta efektu berezietan.

Karakterizazio-proiektuak egitea:

- Karakterizazio-proiektu baten helburuak.
- Karakterizazio-proiektu baten egitura, atalak eta edukiak.
- Proiektuen arteko desberdintasunak baliabideen arabera; ikus-entzunezko baliabideetarako proiektuak eta ikuskizun eszenikoetarako proiektuak.
- Karakterizazio-proposamena obraren proiektu orokor artistikoarekin lotzea: ildo artistiko koordinatua.
- Proposamena produkzio-diseinura egokitzea.
- Aurrekontuak egitea; aurrekontuetako partidak eta sormen-lanaren balorazio ekonomikoa.

Karakterizazio-proiektuaren aurkezpena:

- Proiektuak aurkezteko euskarri-motak: papera, informatikako baliabideak eta ikus-entzunezko baliabideak, besteak beste.
- Maketa, karakterizazio-proiektuak aurkezten laguntzeko.
- Proiektua aurkezteko komunikazio-teknikak. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa.
- Bilera pertsonalak, bezeroari proposamena jakinarazteko bitarteko gisa.
- Bezeroekin komunikatzea telefonoaren, faxaren, postaren, Interneten eta posta elektronikoaren bidez.
- Proposamenaren amaiera: zalantzak ebaztea, akordioak ixtea eta prozesua onartzea/baimentzea.

Ikus-entzunezko baliabideetan eta baliabide eszenikoetan karakterizazio-proiektuaren garapena planifikatzea:

- Produkzio-prozesuaren deskribapena, baliabidearen arabera.
- Karakterizazio-zerbitzuen plangintza orokorra.
- Lanaren tenporalizazioa.
- Giza baliabideen plangintza. Karakterizazioan in situ esku hartzen duen giza taldea. Karakterizazio-taldeko kideak. Zereginen eta erantzukizunen banaketa.
- Materialen horniduraren plangintza.
- Karakterizazio-arloko aurreprodukzio artistikoa, filmaketan, argazki-saioetan eta emanaldietan: diseinuak, elementuen prestaketa, probak eta entseguak.
- Aldaketak eta ukituak planifikatzea.

Karakterizatzailearen kokapena laneko eremu bakoitzean: agertokian, platoan, kanpoko filmaketetan.

- Proiektuan inplikaturiko profesional guztien artean komunikatzeko eta informazioa helarazteko metodoak filmaketan eta errepresentazioan, besteak beste.
- Filmaketa edo ikuskizun batean parte hartzen duten profesionalak, ikus-entzunezkoen munduarekin eta mundu eszenikoarekin lotura dutenak.
- Produkzio-arloarekin koordinatzea, bai eta karakterizazioan eragina duten bestelako arloekin ere: eszenografia, jantziak, argiztapena, zuzendaritza, soinua, hari gabeko mikrofonoak, atrezzoak, kudeaketa.

Karakterizazio-prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedurak:

- Kalitate-irizpideak prozesuaren fase guztietan: kalitatea proiektuetan, plangintzan, materialetan, tekniketan, bezeroekiko tratuan, arriskuen prebentzioan, hondakinen kudeaketan, egindako lanen erregistroan, besteak beste.
- Karakterizazio-prozesuetan kalitatea ebaluatzeko protokoloak egitea. Gogobetetze-inkestak eta helburuen betetze mailaren ebaluazioa.
- Akatsen balizko kausak eta neurri zuzentzaileak.
- Produkzio-etxearen eta taldeen gogobetetze maila ebaluatzea.
- Prestakuntza eta kalitatea.

Orientabide didaktikoa.

Modulu honen bidez, pertsonaiak karakterizatzeko prozesuak planifikatzeko lanetan jarduteko behar den prestakuntza eskuratzen du ikasleak. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, dokumentazioa bilatzeko, lantzeko eta artxibatze prozesuak zehaztea, ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide eszenikoak ezagutzea, karakterizazio-proiektuak egiteko bitarteko pertsonalak, materialak eta artistikoak identifikatzea, komunikazio-teknikak aplikatzea, karakterizazio-prozesuak gauzatzen direla gainbegiratzea eta proiektu horiek ebaluatzeko plan bat aplikatzea.

Sekuentziazioari dagokionez, karakterizazio-proiektu baten berezko dokumentazioaren kudeaketari buruzko edukiekin hastea iradokitzen da, eta pertsonaien karakterizazioarekin eta ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen baldintzatzaile teknikoekin jarraitzea. Azkenik, karakterizazio-proiektu bat planifikatzearekin, lantzearekin eta ebaluatzearekin lotutako edukiak landu beharko dira.

Modulu hau gauzatzeko, komeni da baliabide hauek izatea: Internetarako konexioa duen proiektagailua eta ordenagailua, planifikatutako ekitaldien adibideak dituzten dosierak, karakterizazio-lan garrantzitsua egin den filmak, eta karakterizazio-lana duten ikus-entzunezko produkzioen irudiak.

Modulu hau lantzeko, jarduera hauek egitea proposatzen da:

- Pertsonaiaren baten dokumentazioa aztertzea.

- Pertsonaia bat aztertzea eta hari buruzko dokumentazioa egitea.
- Zinema-korronteei buruzko ikerlana egitea.
- Ereduzko zirkulu kromatiko bat egitea.
- Ikus-entzunezko edo eszenako proiektu baterako behar diren elementu guztien aurrekontua aztertzea.
- Karakterizazio-proiektu bat egitea, eta, horretarako, atal guztiak ongi xehatzea.

“Plangintza eta proiektuak” lanbide-moduluak lotura du pertsonaien karakterizazioa xede duten modulu guztiekin: Pertsonaien karakterizazioa, makillaje profesionala, makillajearen bidezko efektu bereziak, aurpegiko eta gorputzeko protesiak sortzea, karakterizaziorako ile-apainketa. Eduki horiek irakastean, garrantzitsua da koordinatzea, ikasleek modulu batean ikasitakoa bestean ikasitakoarekin osa dezaten.

Plangintzaren modulua 2. mailan ematen da, baina ikasleak 1. mailako zenbait modulutan ikasiko ditu plangintzari buruzko alderdi batzuk. Beraz, ekorketa moduko bat egiten saiatuko gara, ikasleek ikuspegi orokorragoa eta osoagoa izan dezaten karakterizazio prozesuaren plangintzari buruz.

Beste aukera bat da lantaldeak egitea, eta ikasle bakoitzak rol bat hartzea karakterizazio-proiektu baten plangintza-prozesuan. Horrela, ikaskuntza-prozesuak antz handiagoa izanen du ikasleek etorkizunean aurkituko duten egoera errealekin.

Lanbide-modulua: Pertsonaien karakterizazioa.

Kodea: 1261.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 9.

Iraupena: 170 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Lanerako plana antolatzen du pertsonaiak karakterizatzeko, eta, horretarako, proiektuaren betekizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonaia baten karakterizazioa egiteko faseak planifikatu eta sekuentziatu ditu.
- b) Lantaldean erantzukizunak eta zereginak banatzeko metodoa ezarri du.
- c) Proiektuaren beharrak eta eskariak ulertu ditu.
- d) Zirriborroak baliabide pertsonal, material eta teknikoen arabera egokitu ditu.
- e) Pertsonaia aztertzeke teknikak ezarri ditu.
- f) Pertsonaiaren zehaztapenak biltzen dituen fitxa teknikoa egin du.
- g) Pertsonaia egiteko behar diren protesiak deskribatu ditu.
- h) Pertsonaia karakterizatzeko lan teknikoak zehaztu ditu.
- i) Beharrezko baliabideak, espazioak eta materialak identifikatu ditu.

2. Pertsonaia identifikatzen duten janzkera eszenikoaren ezaugarriak identifikatzen ditu, eta, horretarako, jantziek, osagarriak eta siluetak historian zehar izan duten bilakaera aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantziek historian zehar izan duten bilakaera identifikatu du.
- b) Siluetak historian zehar izan duen bilakaera zehaztu du.
- c) Edertasun-kanonak zehaztu ditu.
- d) Erabilitako ehun-motak eta koloreak identifikatu ditu.
- e) Proiektua garatzen den garaiko janzkeraren ezaugarriak identifikatu ditu.
- f) Pertsonaiaren jantzien eta atrezzoaren ezaugarriak identifikatu ditu.
- g) Pertsonaia karakterizatzeko behar diren jantziak hautatu ditu.
- h) Osagarriak eta apaingarriak hautatu ditu.

3. Laneko eremua antolatzen du, eta, horretarako, materialak eta produktuak hautatzen ditu pertsonaiaren eta ikuskizunaren betekizunak aintzat hartuta eta erabiltzailearen arabera egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko eremua betekizun teknikoen arabera antolatu du.
- b) Materialak eta produktuak funtzionaltasun-irizpideen arabera banatu ditu.
- c) Kontuan izan ditu prozesuen segurtasunari eta higieneari buruzko betekizunak.
- d) Beharrezko babes-neurriak ezarri ditu, bai erabiltzailearentzat, bai profesionalarentzat.
- e) Instalazioen, tresnen eta aparatuen mantentze-lanetako, higienarako eta desinfekzioarako metodoak aplikatu ditu.
- f) Erabiltzailea artatzeko eta eroso jartzeko prozedurei jarraitu die.

- g) Larruazalaren egoera, ezaugarriak eta alterazioak identifikatu ditu.
- h) Erabiltzailearen/interpretearen ezaugarri morfologikoak identifikatu ditu.
- i) Karakterizazioa egitean senti daitezkeen sentsazioak zehaztu ditu.
- j) Fitxa teknikoan erabiltzailearen datuak erregistratu ditu.

4. Egindako larruazal-protesiak egokitzen ditu; horretarako, protesiak larruazalean jartzeko eta protesiei akabera emateko teknikak gauzatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Protesiak egokitzeko jarraitu behar den sekuentzia ezarri du.
- b) Larruazala babesteko eta prestatzeko zainketak aplikatu ditu, protesiak jarri aurretik.
- c) Protesi-mota bakoitza jarraitu beharreko teknikarekin lotu du.
- d) Protesiak modelora egokitzeko teknikak zehaztu ditu.
- e) Protesiak finkatu ditu itsasteko produktuekin.
- f) Protesiak gainjarri ditu.
- g) Azal-protesien akabera-teknikak aplikatu ditu.
- h) Erabili behar diren produktuak manipulatzeko jarraibide teknikoei kasu egin die.
- i) Protesiak aplikatzean kontuan izan behar diren alderdi guztiak zehaztu ditu.

5. Ile-euskarriak, ile-protesiak eta ileordeak egokitzen ditu; horretarako, teknika egokiak hautatzen ditu, eta ezarritako prozedura aplikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Larruazala eta ilea prestatu ditu ile-euskarria aplikatzeko.
- b) Ile-euskarriak ezaugarri pertsonalak eta teknikoak kontuan hartuta jarri ditu.
- c) Pertsonaiaren orrazkera modeloaren/interpretearen ezaugarrietara egokitu du.
- d) Ile-apainketako teknikak premia eta baliabide eszenikoaren arabera hautatu ditu.
- e) Ileordeak eta ile-eranskinak aplikatzeko eta egokitzeko moduak zehaztu ditu.
- f) Ileorde osoak jarri ditu.
- g) Aurpegirako eta gorputzerako ile-protesiak jartzeko teknikak identifikatu ditu, modeloaren eta egin beharreko lanaren arabera.
- h) Ile-protesiaren eta/edo ilearen akabera-teknikak aplikatu ditu.
- i) Pertsonaia karakterizatzeko behar diren ile-euskarrien, ile-protesien eta/edo ileordeen konbinazioak hautatu ditu.

6. Pertsonaiaren karakterizazio integrala egiten du; horretarako, proiektu artistikoarekin lotzen ditu makillajea, efektu bereziak, jantziak eta gainerako elementuak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Egin beharreko makillaje-mota ezarri du karakterizatu beharreko pertsonaiaren arabera.
- b) Pertsonaiarekin lotutako efektu bereziak hautatu ditu.
- c) Larruazala prestatu du.
- d) Makillajeko efektu bereziak aplikatu eta sortu ditu.
- e) Pertsonaia definitzeko karakterizazio-makillajea integratu du.
- f) Aplikatutako protesiak makillajearekin integratu ditu.

- g) Osagarriak eta jantziak karakterizazio-makillajearen arabera egokitu ditu.
- h) Karakterizazioa osatzen duten elementu guztiak moldatu ditu, eta azken emaitza aztertu du.

7. Azken emaitzak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, kalitatea zehazten duten parametroak aztertzen ditu eta neurri zuzentzaileak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Prozesu osoan izan daitezkeen desbideratzeen neurri zuzentzaileak aplikatu ditu.
- b) Egindako lanean sortu diren gorabeherak konpondu ditu.
- c) Prozesuan bildutako datu guztiak fitxa teknikoetan erregistratuta daudela egiaztatu du.
- d) Karakterizazioko ile-apainketako, makillajeko eta protesietako ukituak egin ditu.
- e) Bezeroen gogobetetze-maila ebaluatzeko metodoa ezarri du.

8. Karakterizazioko elementuak kentzeko metodoak ezartzen ditu; horretarako, baliabide teknikoak hautatzen ditu eta segurtasuneko eta higieneko neurriak betetzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Protesiak kentzeko jarraitu behar diren faseak identifikatu ditu.
- b) Karakterizazioko elementuak behar bezala kentzeko produktu egokiak hautatu ditu.
- c) Protesiak kentzeko prozedurak egin ditu.
- d) Erabilitako protesiak bota edo behar bezala gorde ditu.
- e) Larruazala hidratatzeko eta lasaitzeko teknikak aplikatu ditu.
- f) Protesiak kendu ondotik larruazala nola zaindu aholkatu du.
- g) Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero nola jardun behar den azaldu du.
- h) Erabilitako protesiak zaintzeko eta biltegiratzeko arauak deskribatu ditu.

Edukiak.

Pertsonaiak karakterizatzeko lan-plana antolatzea:

–Laneko plana: pertsonaia baten karakterizazioaren plangintza, sekuentziazioa eta faseak.

–Dokumentu teknikoen analisia.

- Karakterizazio-proiektu baten dokumentazio teknikoa. Motak eta sailkapena.
- Karakterizazio-proiektu baten beharrak eta eskaerak deskribatzea.
- Lantaldearen zereginak eta erantzukizunak banatzeko metodoa.
- Zirriborroak aztertzea eta baliabide pertsonalen, materialen eta teknikoen arabera egokitzea.

–Pertsonaia aztertzea. Testuinguru historikoa identifikatzea. Pertsonaia egiteko behar diren protesiak identifikatzea. Pertsonaia egiteko lan teknikoak identifikatzea: orrazkerak, makillajeak, efektu bereziak eta jantziak, besteak beste.

- Dokumentu-iturri motak. Bibliografikoak eta informatikoak, besteak beste.
- Fitxa teknikoa egitea.
- Testuinguru historikoa identifikatzea.
- Pertsonaia egiteko behar diren protesiak identifikatzea.
- Pertsonaia egiteko lan teknikoak identifikatzea. Orrazkerak, ileordeak, ile-eranskinak, makillajeak, efektu bereziak eta jantziak, besteak beste.

Pertsonaia definitzen duten janzkera eszenikoaren ezaugarriak identifikatzea:

- Jantziek historian zehar izan duten bilakaera. Bilakaera Antzinarotik, Klasikotik, Erdi Arotik, Errenazimentutik, XVII. mendetik, XVIII. mendetik eta XX. mendeko hamarkadetatik, besteak beste.
- Siluetak historian zehar izan duen bilakaera. Edertasun-kanonak.
- Janzkiaren ezaugarriak ikuskizunean. Ehunak. Kolore erabilienak.
- Pertsonaiaren atrezzoak eta osagarriak identifikatzea eta sailkatzea.
- Jantziak pertsonaiaren ezaugarriekin lotzea.
- Osagarriak eta apaingarriak hautatzea.

Lan-eremuaren antolamendua:

- Karakterizatzailearen laneko eremuaren ezaugarriak.
- Ekipamenduen eta materialen prestaketa. Hautaketa-irizpideak. Manipulazio-jarraibideak. Neurriak.
- Kosmetikoak eta produktuak hautatzeko jarraibideak: prestatzeko eta manipulatzeko jarraibideak eta kontuan hartzeko alderdiak.
- Arriskuen prebentzioa lanpostuan. Karakterizatzailearen babes-neurriak eta ergonomia.
- Tresnak, erremintak eta espazioak desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak aplikatzeko jarraibideak.
- Modeloa/interpretea artatzea eta eroso jartzea. Babes-neurriak eta ergonomia.
- Modeloen edo antzezleen ezaugarriak identifikatzea.
 - Ezaugarri morfologikoak.
 - Larruazalaren ezaugarriak eta alterazioak.
 - Ikusitako kontrako erreakzioak.

Egindako larruazaleko protesiak egokitzea:

- Aurretiazko teknikak. Aurretiko zainketak eta larruazalaren prestaketa.
- Larruazaleko protesiak aplikatzeko metodoak. Sekuentzia, egokitzaipena, finkatzea, gainjartzea eta akabera.
- Protesien akabera-mota zehazten duten parametroak: bitartekoak, jantziak, orrazkera, planoak eta argiztapena, besteak beste.
- Arretazko neurriak. Produktuak erabiltzeko jarraibide teknikoak.
- Protesi ez-iletsuak aplikatzeko prozesuetako segurtasuna eta higieena.

Ile-euskarriak, ile-protesiak eta ileordeak egokitzea:

- Aurretiazko teknikak. Ilea eta larruazala prestatzea.
- Ile-protesiak hautatzea. Aplikatzeko eta egokitze modua. Kontserbazioa.
- Ile-euskarriak hautatzea. Aplikatzeko eta egokitze modua. Kontserbazioa.
- Kokatzeko teknikak. Akabera-teknikak. Pertsonaiaren orrazkera modeloaren/interpretearen ezaugarrietara egokitzea.
- Konbinazioak ile-protesien eta ile-euskarrien aplikazioan. Ile-protesiak, ileordeak edo ile-euskarriak ile naturalean txertatzeko teknikak.
- Ilearen akabera-motak baldintzatzen dituzten parametroak: bitartekoak, jantziak, orrazkera, planoak eta argiak, besteak beste.
- Segurtasuna eta higieena ile-protesiak, ileordeak eta ile-euskarriak aplikatzeko prozesuetan.

Pertsonaiaren karakterizazio integrala egitea:

–Makillaje integrala egiteko teknikak hautatzeko irizpideak.

- Karakterizazioko makillajea gauzatzea.
- Larruazaleko protesien eta ile-euskarrien makillajea.

–Makillajeko efektu bereziak aplikatzea eta sortzea. Neurriak.

–Jantziekin karakterizazioa amaitzea.

- Karakterizazio-osagarriak jantziekin egokitzea.
- Jantziak eta haien osagarriak paratzea.

Azken emaitzen ebaluazioa:

–Kalitate-kontrola. Kalitate-parametroak.

–Karakterizazioaren azken emaitza ebaluatzen parametroak.

–Ukituak egiteko prozesu teknikoak karakterizazioan.

- Pertsonaien ukituak eta aldaketak tenporalizatzea.
- Ukituak karakterizazioan.
- Ukituen ezaugarriak baliabide artistiko bakoitzean.

–Prozesuetan desbideratzerik izanez gero jarduteko metodoak. Orrazkeraren ukituak. Efektu berezien moldaketak.

–Bezereen gogobetetzea ebaluatzea.

Karakterizazio-elementuak kentzeko metodoak ezartzea:

–Aurpegiko protesiak eta ile-euskarriak kentzeko prozedura. Protesiak desitsasteko kosmetikoak aplikatzea. Egiteko modua.

–Ile-protesiak, ileordeak eta ile-luzapenak kentzeko prozedura.

–Makillajea eta efektu bereziak kentzeko prozedura.

–Karakterizazioko elementuak kendu ondotik, larruazala zaintzea. Osatzeko eta lasaitzeko tratamenduak.

–Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero jarduteko neurriak.

–Erabilitako protesiak zaintzeko eta biltegiratzeko teknikak.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu honek, funtsean, prozedurazko egitura du, eta pertsonaiak modeloen/interpreteen gainean eraikitzen du karakterizazio-lanak, elementuak eta baliabideak koordinatzeko behar den prestakuntza biltzen du.

Komeni da irakasteko eta ikasteko metodologiak prozedurazko edukien inguruan egituratzea. Lan-unitateetan kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak txertatuko dira, prozedurak gauzatzeko hala egitea komeni den heinean.

Modulu hau "Pertsonaiak karakterizatzeko lan-plana antolatzea" eta "Pertsonaia definitzen duten janzkera eszenikoaren ezaugarriak identifikatzea" multzoekin hastea komeni da, multzo horietan janzkerak eta siluetak historian izan duten bilakaerari buruzko edukiarekin batera, beste zenbait eduki interesgarri sartzen direlako, hala nola pertsonaiaren azterketa, dokumentazioa, eta pertsonaia sortzeko behar diren lan teknikoak.

Jarraian, "Laneko eremua antolatzea" multzoarekin jarraitzea gomendatzen da. Multzo horretan, laneko eremua, ekipoak eta materialak prestatzen irakasteaz gain, lanpostuko arriskuen prebentzioa

eta prozesu guztietako segurtasun- eta higiene-neurriak lantzen dira. Beraz, atal hau zeharka landuko da moduluan zehar.

Jarraian, "Egindako larruazaleko protesiak egokitzea" eta "Ile-euskarriak, ile-protesiak eta ileordeak egokitzea" multzoak emanen dira, betiere akabera-mota baldintzatzen duten parametroei jarraikiz, eta baliabide eszenikoaren, planoen eta argien arabera, besteak beste.

Jarraian, "Pertsonaiaren karakterizazio integrala egitea" multzoaren txanda da; bertan, beharrezkoak diren efektu bereziak sortu eta makillaje integrala egiten da, eta, azkenik, karakterizazioa amaitzeko, jantziak eta osagarriak zehazten dira.

Aurreko multzoak eman ondotik, "Azken emaitzak ebaluatzea" multzoarekin jarraituko da; multzo horretan, makillajearen, orrazkeraren eta efektu berezien ukituak eta aldaketak aztertzen dira baliabide artistiko bakoitzean, bai eta kalitate-kontrola eta bezeroaren gogobetetze maila ere.

Modulu hau bukatzeko, "Karakterizazioko elementuak kentzeko metodoak" multzoa emanen da; multzo horretan, aurpegiko protesiak, ile-protesiak eta ile-euskarriak ez ezik, makillajea eta efektu bereziak ere kentzeko prozedurak aplikatzen dira, eta haiek kendu ondoko zainketak egiten dira larruazalean.

Nola erabili baliabideak. Iradokizuna:

- Zinema-eskolak, antzokiak eta ikus-entzunezkoen filmaketak bisitatzea laneko testuinguru positibelek ezagutzeko.
- Sektoreko profesionalen hitzaldiak edo masterclassak.
- Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, benetako praktikak egiteko.

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan, problemen ebazpenean oinarritutako metodoa erabili dugu. Horretarako, jarduera hauek sustatuko ditugu, besteak beste: informazioa bilatzea eta eskuliburuak kontsultatzea, filmak ikustea, aldizkari teknikoak irakurtzea, IKTak erabiltzea eta webgunean informazio teknikoa bilatzea. Azken batean, ikerketa erraztuko eta sustatuko duten baliabide berriak bultzatuko ditugu. Ekimena, sormena eta autokritika indartzeko asmoz, ikasle bakoitzak pertsonaia bat karakterizatzeko proiektua proposatu eta garatuko du; beraz, garrantzitsua izanen da ikasle bakoitzak egindako lana gainerako ikasleei aurkeztea, izandako zailtasunetatik, egindako akatsetatik eta problemen ebazpenetik ikas dezaten eta jakintzak askotariko testuinguruetan aplikatzeko gai izan daitezen.

Metodologia honekin, eta ikasleak arazoaren eta zailtasunen aurrean aktiboak, independenteak, autodidaktak eta erabakitzaileak izatea xedetzat hartuta, jarrera positiboa sustatzen laguntzen dugu, ikasleen autonomia errespetatuz eta haien garapen integrala helburu izanik; horrela, ikasleek beren espezialitateko ezagutzak eskuratzen dituzten bitartean, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko oinarritzko arauak errespetatzen ikasten dute, eta beren lanbidea garatzeko behar diren trebetasunak eta jarrerak eskuratzen dituzte.

Ikaslearen proiektu pertsonalean sorturiko problemarekin lotura zuzena duten jakintzak txertatuko dira. Beraz, irakaslearen eginkizuna, funtsean, orientabidea ematea eta ikasle bakoitzaren banakako lanaren jarraipena egitea izanen da.

Beste modulu batzuekiko erlazioa.

Karakterizazioko modulua zikloko beste modulu batzuekin dago lotuta. Hori dela eta, modulu horiekin koordinatu behar da, bai lanpostua prestatzerakoan, bai larruazaleko protesiak, ile-euskarriak eta ile-babesak egokitzerakoan, bai pertsonaiaren karakterizazio integrala egitean. Hauek dira modulu horiek: Karakterizazioko eta makillaje profesionaleko produktuak, aurpegiko eta gorputzeko protesiak sortzea, ile-eranskingintza eta efektu bereziak makillajearen bidez.

Lanbide-modulua: Efektu bereziak makillajearen bidez.

Kodea: 1263.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 4.

Iraupena: 70 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Efektu bereziko makillajearen prozedura ezartzen du, eta, horretarako, prozesuaren aldagaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazioko efektu bereziak egiteko faseak planifikatu eta sekuentziatu ditu.
- b) Sortu behar den efektu bereziari buruzko dokumentazio-iturriak erabili ditu.
- c) Makillaje bereziak egiteko erabiltzen diren teknikak identifikatu ditu.
- d) Efektu bereziko makillajearen eragin dezaketen ezaugarri teknikoak eta artistikoak identifikatu ditu.
- e) Efektu bereziko makillajearen zehaztapenak biltzen dituen fitxa teknikoa egin du.
- f) Jatorrizko zirriborroa aldatzeko proposamenak egin ditu, prozesuaren kostua, kalitatea eta lanketa hobetearren.
- g) Efektu bereziko makillajearen zirriborroak egin ditu.

2. Karakterizazioko efektu bereziak identifikatzen ditu eta lesioen/alterazioaren ezaugarriak erabili behar diren teknikekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Simulatuko den efektuaren bolumenak, koloreak eta testurak erabiliko diren teknikekin eta produktuekin lotu ditu.
- b) Alterazio, zauri, hilotz edo aldaketa fisikoetan simulatu behar diren efektu-motak identifikatu ditu.
- c) Simulatu behar den efektu bakoitzaren ezaugarri anatomiko eta morfologiko bereizgarriak deskribatu ditu.
- d) Simulatu behar den efektuaren arabera hautatu ditu erabili beharreko teknikak.
- e) Efektu berezietan erabiltzen diren ekipoak eta tresnak identifikatu ditu.
- f) Prozesua gauzatzeko behar diren ekipamenduak eta baliabideak hautatu ditu.

3. Efektu bereziak modelatzeko prozesua zuzenean larruazalaren gainean egiten du, erabili behar diren materialaren arabera hautatzen du teknika, eta proportzioaren, testuaren, kolorearen, formaren eta bolumenaren parametroak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Zuzenean larruazalaren gainean modelatzeko teknikaren bidez egin daitezkeen efektu bereziak identifikatu ditu.
- b) Modelatu aurretik larruazala prestatzeko aplikatu behar diren eragiketak zehaztu ditu.
- c) Hautatutako materialerako egokiak diren modelatze-teknikak (hotzean eta beroan, besteak beste) hautatu ditu.
- d) Modelatzeko behar diren materialak, produktuak eta tresnak hautatu ditu.
- e) Esku hartzen duten osagaien bolumenak eta masak kalkulatu ditu, formulazio-fitxa abiapuntu hartuta.

- f) Bolumenak eta testurak sortu ditu zuzeneko modelatzearen bidez.
- g) Osagaiak manipulatzeko ordena eta denbora errespetatu du, ezarritako zehaztapenen arabera.
- h) Modelatuaren akabera-prozesua gauzatu du.
- i) Zuzeneko modelaketako segurtasun- eta higiene-arauak aplikatu ditu.

4. Azazkaletako eta begietako protesiak zizelkatu eta egokitzeko prozesuak egiten ditu; horretarako, erabili behar den materialaren arabera hautatzen du teknika.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Azazkaletako eta begietako protesien ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Azazkaletako eta begietako protesiak egiteko materialak eta produktuak hautatu ditu.
- c) Azazkalak eta atzaparrak zizelkatzeko jarduerak planifikatu ditu.
- d) Azazkaletako protesiak egin ditu, eta karakterizatu beharreko eremura egokitu eta itsatsi ditu.
- e) Begiak zizelkatzeko teknikak zehaztu ditu.
- f) Ukipen-lenteak egokitzeko prozesua bete du.
- g) Segurtasun- eta higiene-arauak bete ditu azazkaletako eta begietako protesiak egiteko eta zaintzeko prozesuan.
- h) Protesi horien probak eta doikuntzak egin ditu.

5. Efektu bereziak sortzeko makillajearen prozesua egiten du, eta, horretarako, produktuak hautatu eta prozesuaren aldagaiak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Efektu bereziko makillajea egin aurretik larruazala, azazkalak eta ilea prestatzeko eragiketak zehaztu ditu.
- b) Simulatu behar den efektuaren makillajea egiteko behar diren materialak, produktuak eta tresnak hautatu ditu.
- c) Efektu bereziak egiteko, zuzenean aplikatu ditu makillajeko produktuak larruazalaren, azazkalen eta ilearen gainean.
- d) Makillajeak modelatutako materialen gainean eta aplikatutako protesien gainean egin ditu.
- e) Odola, elementu irtenak eta akabera emateko beste produktu edo material batzuk aplikatu ditu.
- f) Efektu bereziko makillajea finkatzeko, mantentzeko, egokitzeko eta eraldatzeko teknikak aplikatu ditu.
- g) Makillajearen gainean probak eta doikuntzak egin ditu, zehaztapenei jarraikiz.
- h) Ergonomiarekin eta hezkuntza posturalarekin loturiko gomendioei kasu egin die efektu bereziak sortzean.
- i) Efektu bereziko makillajeko ekipoaren gainean garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak aplikatu ditu.
- j) Protesiak eta efektu berezien makillajea erabat kentzeko prozesuak gauzatu ditu.

6. Azken emaitzak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, prozesuaren kalitatea zehazten duten parametroei erreparatzen die eta neurri zuzentzaileak aplikatzen ditu, behar izanez gero.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazioko efektu bereziak sortzeko prozesua kontrolatzeko teknikak aplikatu ditu.
- b) Prozesu osoan gerta litezkeen desbideratzeak zuzentzeko neurriak aplikatu ditu.

- c) Egindako lanean sortu diren gorabeherak ebatzi ditu.
- d) Ezarritako jarduketa-protokoloak behar bezala baliatu ditu.
- e) Erabilitako produktuen gaikako bilketako arauak deskribatu ditu.
- f) Erabiltzaileari narritadurak, alergia edo estualdia sortuz gero, nola jardun behar den zehaztu du.
- g) Efektu bereziak sortzeko prozesuaren kalitatea ebaluatu du.

Edukiak.

Efektu bereziko makillajerako lan-prozedura ezartzea:

–Efektu bereziko makillajea egiteko protokoloak. Egiteko faseak.

- Sortu behar den efektuaren azterketa eta dokumentazioa. Dokumentazio medikoa eta historikoa, besteak beste.
- Materialak, produktuak eta ekipamenduak hautatzea.

–Efektu bereziko makillajeak egiteko erabiltzen diren tekniken sailkapena.

- Zahartze-teknikak.
- Larruazalaren eta azazkalen gainean zuzenean makillatzeko teknikak.
- Modelatzearen gaineko makillaje-teknikak.
- Efektu bereziko protesien gainean makillatzea, fabrikatutako materialaren arabera.
- Protesiak zizelkatzeko eta egokitzeko teknikak.
- Protesiak mantentzeko, garbitzeko eta kentzeko teknikak.

–Efektu bereziko makillajearen eragina duten ezaugarri teknikoak eta artistikoak.

- Argiztapena. Naturala edo artifiziala.
- Protesien kalitatea.
- Ikuslearekiko distantziaren eragina. Antzerkia, zinema, telebista eta beste.
- Jantzkeraren eta orrazkeraren eragina.
- Beste efektu berezi batzuekiko lotura. Eragin atmosferikoak.
- Bolumenen teknika artistikoak. Argiak eta itzalak.

–Efektu bereziko makillajeko fitxa teknikoa egitea.

–Efektu bereziko makillajearen zirriborroaren aurkezpen grafikoa.

Karakterizazioko efektu berezien ezaugarriak identifikatzea:

–Larruazalaren, ilearen eta azazkalen alterazioen bolumenak, koloreak eta testurak identifikatzea.

–Zaurien bolumenak, koloreak eta testurak identifikatzea.

–Hilotz-fenomenoen kolorazioak eta testurak identifikatzea.

–Adinarekin larruazalean, ilean eta hortzetan gertatzen diren aldaketen berezko ezaugarriak identifikatzea.

–Emozio-egoerekin loturiko aldaketa fisikoak identifikatzea.

–Organismoaren narriadurarekin loturiko aldaketa fisikoak identifikatzea.

–Efektu bereziak simulatzeko erabili behar diren teknikak aukeratzea.

–Efektu bereziak simulatzeko erabiltzen diren materialak eta produktuak aukeratzea.

- Makillajea aplikatzeko teknikak, larruazalaren gainean bolumenak sortzeko.

- Latexarekin edo protesiarekin zahartzeko teknikak.
- Protesien gainean makillajea aplikatzeko teknikak.
- Efektu bereziak simulatzeko berariazko produktuak aplikatzeko teknikak.
- Aerografo bidez makillatzeko teknikak.

–Efektu bereziak simulatzeko erabiltzen diren tresnak eta ekipoa deskribatzea eta hautatzea.

Efektu bereziak modelatzeko prozesua zuzenean larruazalaren gainean egitea:

–Zuzenean larruazalaren gainean modelatzeko teknikaren bitartez egin daitezkeen efektu bereziak identifikatzea.

–Modelatzeko materiala larruazalaren gainean aplikatu aurreko teknikak.

–Modelatzeko materialak hautatzea.

–Larruazalaren gainean modelatzeko teknikak.

–Segurtasun- eta higiene-arauak aplikatzea larruazalaren gainean modelatzeko erabiltzen diren tresnak baliatzeko eta garbitzeko prozesuan. Hondakinen kudeaketa.

Azazkaletako eta begietako protesiak zizelkatzeko eta egokitze prozesuak gauzatzea:

–Azazkaletako protesiak. Motak. Ezaugarriak. Haiek egiteko materialak eta produktuak hautatzea.

–Begi-protesiak. Motak. Ezaugarriak. Haiek egiteko materialak eta produktuak hautatzea.

–Efektu berezietarako azazkalak eta atzaparrak zizelkatzeko teknikak. Teknikak aplikatzeko protokoloa eta sekuentziazioa.

–Azazkaletako protesiak egokitzea.

–Efektu berezietarako, begiak zizelkatzeko teknikak.

- Zizelkatzeko materialak.
- Zizelkatzeko teknikak.
- Gizakien, animalien eta beldurrezko edo fikziozko pertsonaien behiak bereiztea.

–Begi-protesiak egokitzea (ukipen-lenteak).

- Ukipen-lente motak. Gogorak, bigunak eta fantasiazkoak, besteak beste.
- Jartzeko eta egokitze moduak.
- Higienea eta arreta-neurriak begi-protesiak jarri eta kentzean.
- Ukipen-leiarren kontserbazioa.

Efektu bereziak sortzeko makillaje-prozesua gauzatzea:

–Makillajeko produktuak larruazalean, azazkaletan eta ilean aplikatu aurreko teknikak.

–Efektu bereziko makillajea erabiltzen diren produktuak hautatzea.

–Makillajeko produktuak larruazalean, azazkaletan eta ilean aplikatzeko teknikak. Eskuz: pintzelak eta arkatzak. Aerografoa.

–Modelatutako materialen gainean efektu bereziko makillajea aplikatzeko teknikak.

- Modelatzeko material berezia aplikatu aurretik makillatzeko teknikak.
- Makillaje artistikoko teknikak.
- Aerografoaren bidezko makillajea.

–Larruazalaren, azazkalen eta ilearen (ile-euskarriak barnean hartuta) alterazioen, eta zaurien eta orbainen protesien gainean makillajea aplikatzeko teknikak.

- Jarri aurreko makillaje-teknikak.

- Jada jarrita dauden protesien gainean makillaje artistikoa egiteko eta bolumena emateko teknikak, erabilitako materialaren arabera.
- Latexezko protesiak, latexezko aparrezkoak, poliuretanozko aparrezkoak eta bestelakoak.
- Aerografoaren teknika.
- Odola, elementu irtenak eta akaberako produktuak edo materialak aplikatzea.
- Efektu bereziko makillajea finkatzeko, mantentzeko, egokitzeko eta eraldatzeko teknikak aplikatzea.
- Profesionalaren eta modeloaren ergonomia eta hezkuntza posturala efektu bereziko makillaje-prozesuan.
- Efektu bereziko makillajea egiteko ekipoa garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak aplikatzea.
- Efektu bereziak kentzeko eta makillajea kentzeko teknikak.

Azken emaitzen ebaluazioa:

- Emaitzak kontrolatzea. Ebaluazio-parametroak.
 - Gauzatze-prozesuan izandako gorabeherak.
 - Teknika egokiena hautatzea.
 - Erabilitako teknikak zuzen gauzatzea.
- Azken emaitzen ebaluazioa.
 - Barne-ebaluazioa.
 - Zuzendariaren eta aktore karakterizatuaren gogobetetze-maila ebaluatzea.
- Desbideratzeen kausak hautematea.
- Efektu bereziko makillajea zuzentzeko neurriak.
- Narritadurak edo alergia daudenerako jarduketa-neurriak.
- Efektu bereziko makillajeetan erabiltzen diren hondakin-produktuak gaika biltzeko sistemak.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu honek ematen duen prestakuntzarekin makillajearen bidez, larruazalaren gaineko zuzeneko modelaketa bidez eta azazkaletako eta begietako protesiak zizelkatuz karakterizazioko efektu bereziak egiten ikasten da.

Irakasteko eta ikasteko egoerak eta/edo jarduerak eta ebaluatzeak zehazteko, komeni da prozedurazko edukien inguruan egituratzea egoera eta/edo jardura horiek. Unitate didaktikoetan kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak txertatuko dira, prozedurak gauzatzeko hala egitea komeni den heinean. Egitura kontzeptuala duen unitate didaktikoren bat ezartzen bada, komeni da edukiak errazenetik zailenera antolatzea, eta ikasleen esku-hartzea bultzatuko duten metodoak erabiltzea.

Jarrerazko edukien garrantzia ere oso handia da; izan ere, eduki horiek ulertzean, barneratzean eta betetzean, ikasleek finkatu egiten dituzte nortasun profesionaleko lorpenak, ezinbestekoak ikasleentzen jardun profesionalean. Hori horrela izanik, ongi barneratu behar dituzte unitate didaktiko guztietako jarrerazko edukiak (esate baterako, efektu bereziko makillajea egitean autonomia izatea, eta ordena eta antolamendua zaintzea lana gauzatzean).

Irakaslearen esku-hartzea, hasiera batean, ikaskuntza-egoerei dagozkien prozedurak gauzatzean oinarrituko da, ikasleek eredu orientatzaile bat izan dezaten prozedura horiek, gero, beren kasa gauzatzeko. Ondotik, ikasleari gero eta autonomia eta ekiteko ahalmen handiagoa eman behar zaizkio.

Moduluaren hasieran “Efektu bereziko makillajerako lan-prozedura ezartzea” multzoa ematea komeni da; izan ere, pertsonaien ezaugarriak aztertu behar dira eta pertsonen ezaugarri fisikoekin

eta lortu nahi diren efektu bereziekin erlazionatu, karakterizazioko zer makillaje-teknika aplikatu behar den zehazteko.

Edukien sekuentziazio egokiena bat dator moduluaren eduki-multzoetan azaldutakoarekin, eta horixe da makillajearen bidez efektu bereziak egiteko garatu behar diren jarduketaren sekuentziazioa, efektu berezi horiek barne hartuko dituen proiektu profesional batean.

Komeni da kontaktu sinple batetik abiatzea, informazioa eta informazio horrek eragiten dituen ondorioak errazago barneratzeko, eta, pixkanaka, aldagai gehiago sartu eta zailtasun-maila handitzea, harik eta prozesu osoaren gauzatzea simulatuta arte. Adibidez, hasieran makillaje sinpleak egitea komeni da, konplexutasun txikikoak, produktu eta osagarri tekniko gutxi behar dituztenak (pieza txikiak jartzea, edo eraldaketa anatomiko erraztenak egitea, hala nola zailtasun txikiko zauri edo kolpeak), eta, pixkanaka, modulu osoa biltzen duten lanak eginaraztea, makillajeaz gain osagarriak ere barne hartzen dituztenak (ukipen-lenteak gehitzea, azazkalak eta atzaparrak jartzea, begiak jartzea, eta abar).

Ikaskuntza-prozesu honetan, prozesuak nola garatzen diren ikusteko erakustaldi praktikoa egiten dira, zenbait teknika baliatuko dira eta bideoak ikusiko dira.

Garrantzitsua da talde-lana kontuan hartzea, eta jarduerak eta proiektuak taldeka esleitzea. Lana amaitzen dutenean, ikasleek gainerako ikaskideei aurkeztu diezaiekete proiektua, denek elkarrengandik zerbait berria ikas dezaten.

“Makillajearen bidezko efektu bereziak” modulua “Pertsonaien karakterizazioa” eta “Pertsonaien diseinu digitala” moduluekin dago lotuta, eta horregatik koordinatu egin behar dira moduluok.

Lanbide-modulua: Karakterizaziorako ile-apainketa.

Kodea: 1265.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 7.

Iraupena: 130 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Karakterizaziorako ile-apainketako protokolo teknikoak aplikatzen ditu, eta, horretarako, prozesuaren jarduketa- eta kontrol-prozedurak ezartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ile-apainketako protokoloak lantzeko prozedura ezarri du.
- b) Prozesua prestatzeko dokumentu teknikoak interpretatu ditu.
- c) Karakterizazioan erabiltzen diren ile-apainketako prozesu-motak zehaztu ditu.
- d) Karakterizazioko ile-apainketako prozedurak egiteko behar diren baliabideen eta ekipoen ezaugarriak azaldu ditu.
- e) Prozesu bakoitzaren oinarri teknikoa zehaztu du.
- f) Ile-apainketako protokoloen eskuliburu teknikoa egin du.
- g) Gauzatze teknikorako eta amaierarako faseak sekuentziatu ditu.
- h) Emaiztan eragina duten faktoreak ezarri ditu.
- i) Arriskuak prebenitzeko jarraibideak ezarri ditu.

2. Orrazkera osatzen duten elementuak zehazten ditu, eta ezaugarri eszenikoen eta pertsonalen arabera orrazkera eratzeko aukerak proposatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Orrazkeren ezaugarriak garaiaren arabera zehaztu ditu.
- b) Testuinguru artistikoa pertsonaiaren orrazkeraren ezaugarriekin lotu du.
- c) Karakterizatu beharreko pertsonaiaren orrazkera osatzen duten elementuak zehaztu ditu.
- d) Modeloaren/interpretearen ezaugarriak aztertu ditu.
- e) Buru-azala, ilea eta aurpegiko ilea behatzeko metodoak aplikatu ditu.
- f) Ile-apainketako prozesuetan eragina duten ilearen eta larruazalaren alterazioak identifikatu ditu.
- g) Orrazkera eta orrazkera bilduetarako visagismo teknikak erabili ditu.
- h) Ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide eszenikoen ezaugarriek orrazkera egiteko prozesuan duten eragina identifikatu du.
- i) Orrazkera egiteko behar diren ile-apainketako teknikak zehaztu ditu.

3. Karakterizazioa egiteko, ilearen eta/edo ile-protesien luzera eta kolorea aldatzen ditu, eta, horretarako, ile-apainketako baliabideak eta prozesu teknikoak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ilea mozteko erremintak hautatzeko eta prestatzeko irizpideak zehaztu ditu.
- b) Ilea mozteko teknikak lortu behar den efektuarekin erlazionatu ditu.
- c) Ilea mozteko parametroak ezarri ditu.
- d) Ilea moztu du, eta mozteko metodoa eta ordena ezarri ditu.

- e) Kosmetiko koloratzaileak eta dekoloratzaileak hautatu ditu.
- f) Baliabide, produktu eta kosmetiko koloreztatzaileak prestatzeko, manipulatzeko eta aplikatzeko arauak ezarri ditu.
- g) Ilea, ileordeak eta ile-eranskinak prestatu ditu kosmetiko koloreztatzaileak aplikatu aurretik.
- h) Kolorea aldatzeko kosmetikoak aplikatu ditu.
- i) Kosmetiko koloreztatzaileak/dekoloratzaileak iletik kendu ditu.
- j) Ileordeak eta eranskinak tindatzeko teknikak erabili ditu.

4. Ilean eta ileordeen formak aldatzen ditu pertsonaiak karakterizatzeko orrazkeren oinarri gisa, eta, horretarako, baliabideak hautatzen ditu eta teknika mekaniko eta termikoak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ilean forma-aldaketak egin aurreko teknikak zehaztu ditu.
- b) Beroak, hezetasunak eta trakzio mekanikoak ile-zuntzean eragiten dituzten efektuak identifikatu ditu.
- c) Aldi baterako forma-aldaketarako kosmetikoak, tresnak eta gailuak hautatu ditu.
- d) Bero-aparatuak behar bezala prestatzeko, aplikatzeko eta zaintzeko jarraibideak ezarri ditu.
- e) Beroaren bidez forma aldatzeko teknikak erabili ditu.
- f) Hezetasunaren bidez forma aldatzeko teknikak erabili ditu.
- g) Moldeen bidez forma aldatzeko teknikak erabili ditu.
- h) Ile naturaleko eta sintetikoko ileorde eta ile-eranskinetan forma aldatzeko teknikak erabili ditu.

5. Ikus-entzunezko baliabideetarako orrazkeren muntaketa antolatzen eta egiten du, eta, horretarako, lantzeko teknikak hautatzen ditu eta orrazkera osatzen duten elementuak integratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Orrazketari ekin aurreko eragiketak zehaztu ditu.
- b) Orrazkerak eta orrazkera bilduak egiteko tresnak eta kosmetikoak hautatzeko irizpideak aplikatu ditu.
- c) Krepe- eta zafra-teknikak aplikatu ditu ilean.
- d) Leuntzeko teknikak aplikatu ditu ilean.
- e) Orrazkera finkatzeko, ainguratze-teknikak aplikatu ditu.
- f) Orrazkera egiteko, formak sortzeko teknikak baliatu ditu.
- g) Betegarriak eta egiturak aplikatu ditu muntaketaren osagarri gisa.
- h) Orrazkerari ukituak, aldaketak eta akabera egin dizkio.
- i) Azken emaitzan eragina duten faktoreak zehaztu ditu.

6. Orrazkeraren elementu osagarriak aplikatu ditu, eta, horretarako, integratzeko teknikak eta modeloaren arabeko egokitzapen-teknikak gauzatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Orrazkeran formak eta bolumenak integratzeko, betegarriak eta egiturak aplikatzeko tekniken ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Betegarriak eta egiturak orrazkeran jarri eta kamuflatu ditu.
- c) Ile-eranskinen oinarria paratzeko teknikak zehaztu ditu.
- d) Ile-eranskinen oinarria jartzeko eta hari akabera emateko parametroak ezarri ditu.

- e) Ileorde osoak jarri ditu.
- f) Finkatzeko zenbait mekanismoren bidez, ile-luzapenak jarri ditu.
- g) Ile-luzapenak egin ditu rastak eta lokarriak erabilia.
- h) Ile-luzapenak kendu ditu ileari eusteko sistemaren arabera.

7. Pertsonaiak karakterizatzean, aurpegiko ilean konponketak eta kolore-aldaketak egiten ditu, eta, horretarako, baliabideak hautatzen ditu eta mozteko eta tindatzeko teknikak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Langileak eroso kokatzeko eta babesteko neurriak zehaztu ditu.
- b) Bizarra eta bibotea deskargatu eta mugatu ditu bizargintzako tekniken bidez.
- c) Ile-zango eta bekainei forma eman die jatorrizko diseinuari jarraikiz.
- d) Aurpegiko ilearen txantiloak eta diseinuak aplikatu ditu pertsonaia karakterizatzeko.
- e) Aurpegiko ilea tindatu eta dekoloratu du.
- f) Karakterizaziorako aurpegiko ilea konpontzeko tratamenduari amaiera emateko teknikak zehaztu ditu.

8. Karakterizaziorako ornamentuak diseinatu eta egiten ditu, eta, horretarako, ornamentuen osagaiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizaziorako ornamentuak diseinatzeko dokumentu-iturriak identifikatu ditu.
- b) Modeloari neurriak eta proportzioak hartu dizkio.
- c) Ornamentuak sortzeko materialak eta patroiak aukeratzeko eta prestatzeko irizpideak azaldu ditu.
- d) Ornamentuaren piezak markatu eta moztu ditu.
- e) Aprestuak prestatzeko eta aplikatzeko eragiketak eta tratamenduak zehaztu ditu.
- f) Piezak moldekatzeko, molde gainean konformatu ditu.
- g) Materialak prestatzeko, josketa-teknikak erabili ditu.
- h) Ornamentuari dagokionez, modeloan probak egin ditu eta ornamentuari akabera eman dio.
- i) Ile-ezarkinak eta gainak egin ditu.
- j) Ile-apaingarriak egokitu ditu.

Edukiak.

Karakterizaziorako ile-apainketako protokolo teknikoak egitea:

–Protokoloa: definizioa eta prestaketa-faseak.

–Plangintza-fasea. Karakterizazioan erabiltzen diren ile-apainketako prozesuak.

–Egikaritze-fasea. Proiektu artistikoaren eskaerak eta eskakizunak aztertze fasea. Prestatzeko eta hautatzeko fasea. Abantailak eta eragozpenak. Prozeduraren fasea edo nukleoa. Amaitzeko fasea.

–Ebaluazio- eta kontrol-fasea. Emaiz baldintzatzen duten faktoreak. Prozesuko desbideratzeen analisisa.

–Arriskuen prebentzioko faseak.

Orrazkeraren diseinua osatzen duten elementuak zehaztea:

–Garai bakoitzeko orrazkeren deskribapena eta karakterizazioa.

- Proiektu artistikoko pertsonaiaren orrazkera aztertzeo teknikak.
- Antzezlearen edo modeloaren ezaugarriak aztertzea. Aurpegiaren eta gorputzaren analisi morfologikoa. Ilearen, buruko ile-larruaren eta aurpegiko ilearen analisisia.
- Ilearen eta larruazalaren alterazioak, ile-apainketako prozesuetan eragina dutenak.
- Ezaugarri eszenikoen analisisia.
- Pertsonaiaren orrazkera muntatzeko soluzioak zehaztea.
- Ikus-entzunezko baliabideak. Motak eta ezaugarriak. Orrazkera hautatzean eta egitean duen eragina.

Ilearen eta/edo ile-protiesien luzera eta kolorea aldatzea:

- Ilearen eta/edo ile-protiesien luzera aldatzea. Erremintak hautatzeko eta prestatzeko irizpideak. Mozketa-teknikak. Gauzatze-prozedura: faseak eta aplikatzeko jarraibideak. Sekuentziazioa.
- Ilearen kolorea aldatzeko prozesuak. Sailkapena. Ilearen kolorea aldatzeko teknikak. Aurretiazko teknikak. Ilea, ileordeak eta ile-eranskinak prestatzeko jarraibideak. Kosmetiko koloratzaileak hautatzea. Kosmetiko dekoloratzaileak hautatzea. Bitartekoak, produktuak eta kosmetikoak prestatzeko jarraibideak. Gauzatze-prozedura: faseak eta aplikatzeko jarraibideak. Sekuentziazioa. Neurriak.
- Ileordeak eta ile-eranskinak tindatzeko eta koloregabetzeko teknikak. Ileorde eta ile-eranskinetan aplikatzea eta kentzea.

Ilearen eta ileordeen forma aldatzea, orrazkeren oinarri gisa:

- Aurretiazko teknikak.
- Ilearen forma aldi baterako aldatzeko tekniken funts zientifikoa.
- Karakterizaziorako, forma aldi baterako aldatzeko baliabideak eta kosmetikoak.
- Beroaren bidez forma aldatzeko teknikak. Moldekatze eta lisatze termikoak.
- Hezetasunaren bidez forma aldatzeko teknikak.
- Moldeen bidez forma aldatzeko teknikak.
- Forma-aldaketak ile naturaleko ile-eranskinetan, kizkurtzeak, lisatzeak, izurtze bilduak.
- Forma-aldaketak ile sintetikoaren ile-eranskinetan. Prozesua.

Ikus-entzunezko baliabideetarako orrazkeren muntaketa antolatzea eta egitea:

- Aurretiazko teknikak. Orrazkera prestatzeko jarraibideak. Ilearen norabidea eta mugimendua. Lerroak, partizioak eta proiektzioak.
- Orrazkerak eta orrazkera bilduak egiteko tresnak eta kosmetikoak hautatzea.
- Krepe- eta zafra-teknika.
- Leuntzeko teknika.
- Ainguratze-teknikak.
- Formak sortzeko teknika.
- Eusteko teknikak.
- Akabera-teknikak Egiteko parametroak.
- Azken emaitzaren ebaluazioa.

Orrazkeraren elementu osagarriak aplikatzea:

- Betegarriak, ile-protiesiak, krepeak, oinarriak edo egiturak, armazoiak eta gainak aplikatzea. Aurretiazko eragiketak. Kolokaziorako parametroak. Kolokazioaren egonkortasunerako jarraibideak. Kamuflaje-sistemak.

- Ile-eranskinen oinarria jartzea. Estali behar den gunearen deskripzioa eta egokitzapena. Euste-teknikak. Kokapena zehazten duten parametroak. Kolokazioaren egonkortasunerako jarraibideak. Akabera-teknikak.
- Ileorde osoak jartzea. Aurretiazko eragiketak. Burezurrera egokitzea. Euste-teknikak. Akabera-teknikak.
- Ile-luzapenak jartzea. Luzapen-motak eta haien ezaugarriak. Aplikazio-prozedura: faseak eta aplikatzeko jarraibideak. Sekuentziazioa. Neurriak. Aurretiazko eragiketak. Ile-luzapenak finkatzea. Ile-luzapen alternatiboak. Ile-luzapenak kentzeko teknikak.

Aurpegiko ilean konponketak eta kolore-aldaketak egitea pertsonaiak karakterizatzeko:

- Bizarra eta bibotea txukuntzea. –Eroso kokatzeko eta babesteko neurriak. Bizarra eta bibotea arintzea. Bizarren eta bibotearen mugaketa eta ingurua.
- Ile-zangoak eta bekainak atontzea. Luzera eta bolumena zehaztea. Ile-zangoen konfigurazioa. –Lepo aldeko edo garondo aldeko ilearen konfigurazioa. Bekainak konfiguratzea. Bizarrean, ile-zangoetan eta bekainetan baliabide teknikoak, txantiloak eta diseinuak aplikatzea, pertsonaia karakterizatzeko.
- Aurpegiko ilearen kolore-aldaketak. Larruazala babesteko eta prestatzeko neurriak. Teknikak eta kosmetikoak hautatzeko irizpideak. Abantailak eta eragozpenak. Neurriak.
- Bukatzeo teknikak.

Karakterizaziorako apaingarriak diseinatzea eta egitea:

- Karakterizatzean, ornamenduak diseinatzeo dokumentu-iturriak identifikatzea.
- Diseinua. Adierazpide grafikoa.
- Modeloa aztertzea. Neurriak hartzea eta proportzioak zehaztea.
- Materialak prestatzea, ornamenduak modelatzearen, gainjartzearen eta kolatzaren bidez sortzeko.
- Figurin edo modelo batean oinarritutako patroiak.
- Piezak zabalatzeko, markatzeko eta mozteko teknikak.
- Aprestuak prestatzeko eta aplikatzeko teknikak.
- Molde gainean konformatzea.
- Materialak josteta bidez prestatzea.
- Proba- eta akabera-teknikak.
- Ile-ezarkinak eta -gainak egitea.
- Apaingarriak prestatzea. Apaingarri-motak.
- Alanbretzea, itsastea, jostea eta lotzea lumak, ilea eta bestelako elementuak batzeko.
- Apaingarriak aplikatzea eta egokitzea.
- Materialak eraldatzea ikuskizunerako efektu berriak sortzeko.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honen helburua da ikasleek ilean eta/edo ile-protesietan kolore-, luzera- eta forma-aldaketak diseinatzeo eta aplikatzeko oinarritzko trebetasunak eskuratzea, pertsonaiak karakterizatzeko.

Hemen proposatzen den eduki-sekuentziazioa uste da dela egokiena:

- I. multzoa: Karakterizaziorako orrazkerak: Protokolo teknikoak eta aldi baterako forma-aldaketak eta orrazkerak gauzatzea: orrazkeraren diseinua, plangintza, aurretiazko teknikak, muntaia, elementu osagarrien aplikazioa eta apainduren diseinua eta elaborazioa.

- II. multzoa: Karakterizaziorako ebaketa eta kolorea: Ilean, ile-protiesien eta aurpegiko ilearen luzera eta kolorea aldatzeko protokolo teknikoak zehaztea eta gauzatzea.

Edukien sekuentzia hori proposatzen da egokientzat jotzen delako ikasleek, lehenik eta behin, ile-apainketari buruzko oinarritzko trebetasunak eskura ditzaten eta, eskuzko trebetasunak hobetu ahala, zailenak diren lan tekniko eta sortzaileekin prestakuntzarekin jarraitu dezaten.

Honako baliabide hauek erabiltzea proposatzen dugu:

- Materialak: manikiak, ileordeak eta ile natural eta sintetikoko protiesiak. Ile-apainketako eta ile-eranskingintzako materiala.
- Teknologikoak: pertsonaien irudia editatzeko eta diseinatzeko programak, ikus-entzunezko materialak (serieak, filmak...).
- Giza baliabideak: ikus-entzunezko baliabideetan lan egiten duten profesionalak (ile-apaintzaileak, makillatzaileak, zuzendariak, produkzio-taldeko kideak...).

Adibide moduan, honako jarduera hauek lantzen ahal dira modulan:

- Ikasleek prozedurazko edukiak ilean edo ile-protiesietan praktikan jartzea.
- Irudiak, bideoak, serieen zatiak eta filmak ikustea eta aztertzea, pertsonaien karakterizazioan erabiltzen dituzten ile-apainketako teknikak behatzeko eta aztertzeko.
- Antzerki-eskolak, antzokiak, ikuskizun-aretoak edo ikus-entzunezkoen filmaketak bisitatzea laneko eszenatoki posibleak ezagutzeko.
- Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen sektoreko profesionalen hitzaldiak edo masterclassak.
- Antzerki-eskolekin, ikus-entzunezkoen klusterrekin, errege-desfileekin, operekin eta abarrekin lankidetzan aritzea, benetako karakterizazio-praktikak egiteko.
- Modulu arteko lankidetzak (“Pertsonaien karakterizazioa” edo “Aurpegiko eta gorputzeko protiesiak sortzea” moduluekin) pertsonaien karakterizazio orokorrerako.
- Argazkigintzako eta ikus-entzunezko materiala sortzea ikasleek egindako praktiketan.

Metodologia aktiboak eta kolaboratiboak erabiltzea komeni da; izan ere, metodo horien bidez, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren erdigunean kokatzen dira ikasleak, eta beren prestakuntzaren arduradun bihurtzen dira; horrela, gaitasun kognitiboen eta prozedurazko eta jarrerazko gaitasunen garapena sustatzen da.

Karakterizazioko Ile-apainketa moduluak lotura du zikloko beste modulu hauekin, eta, horregatik, koordinatu egin behar dira:

- Plangintza eta proiektuak.
- Pertsonaien karakterizazioa.
- Ile-eranskingintza: ile-protiesiak sortzeko modulu honetan sortutako materialak karakterizaziorako ile-apainketako modulan orraztu, moztu eta tindatuko dira.

Pertsonaien 2Dko eta 3Dko diseinu digitala: pertsonaiaren ideia sortzeko balioko duten edukiak lantzen dira. Pertsonaiaren orrazkera modulu honetan gauzatuko da.

- Diseinu grafiko aplikatua.
- Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak.

Lanbide-modulua: Pertsonaien 2Dko eta 3Dko diseinu digitala.

Kodea: 1267.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 5.

Iraupena: 90 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Pertsonaien diseinu digitala egiteko prozedura ezartzen du, eta, horretarako, prozesuaren sekuentzia eta aldagaiak aztertzen eta justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonaien diseinu digitalaren protokoloa zehazten duten etapak ezarri ditu.
- b) Diseinua egiteko behar diren abiapuntuko elementuak identifikatu ditu.
- c) Hasierako elementu egokia erabiltzea zein garrantzitsua den balioetsi du.
- d) Diseinu digitalaren bitartez pertsonaiak sortzeko fasean jarraitu behar diren urratsak sekuentziatu ditu.
- e) Azken emaitza ebaluatzeko metodoa identifikatu du.
- f) Diseinatutako pertsonaia modeloaren/interpretearen ezaugarrietara egokitzeke jarraibideak ezarri ditu.
- g) Proiektuaren beharrak eta eskariak ulertu ditu.

2. Irudi digitalen bankua sortzen du pertsonaiak diseinatzeko, eta, horretarako, erremintak hautatzen ditu eta dokumentazioa biltzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Informazioa lortzeko bilaketa-mekanismoak ezarri ditu.
- b) Askotariko iturriak erabili ditu irudiak lortzeko.
- c) Irudi digitalak hartzeko ekipoak deskribatu ditu.
- d) Irudiak hartu ditu, besteak beste, argazki-kameren, eskanerren eta erreminta informatikoen bidez.
- e) Irudiak antolatu ditu, eta, horretarako, erraz identifikatzeko moduko fitxategiak sortu ditu.
- f) Jabetza intelektualari buruzko legeria interpretatu du.

3. Diseinatu behar den pertsonaiaren ezaugarriak zehazten ditu, eta, horretarako, karakterizazio-proiektua aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonaia eszeniko tipoen ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Proiektu artistikoan definitutako pertsonaiari buruzko datuak biltzeko sistemak ezarri ditu.
- c) Diseinatu behar den pertsonaiaren ezaugarri fisikoak, psikologikoak, sozialak eta kulturalak identifikatu ditu.
- d) Pertsonaiaren testuinguru historikoa, soziala eta eszenikoa identifikatu du.
- e) Pertsonaiaren jantzien eta atrezzoaren ezaugarriak identifikatu ditu.
- f) Pertsonaia eratzeko abiapuntu izanen diren irudiak hautatu ditu.
- g) Diseinu digitalaren oinarritzat hartzen den abiapuntuko modeloaren ezaugarri morfologikoak eta bisualak identifikatu ditu.

- h) Hasierako eta amaierako pertsonaiaren artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak zehaztu ditu.
- i) Pertsonaia sortzeko, abiapuntuko irudietan egin behar diren aldaketak zehaztu ditu.

4. Karakterizazioko diseinu digitalak egiten ditu 2Dan, eta, horretarako, programa informatikoak hautatzen eta erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lanbidean gehien erabiltzen diren 2Dko diseinu-programak alderatu ditu.
- b) Kolore-moduak, fitxategi-formatuak eta programaren interfazea identifikatu ditu.
- c) Erabilitako irudi digitalen ezaugarriak ezarri ditu.
- d) Geruzekin eta maskarekin eragiketak egin ditu, bai eta iragazkiekin ere.
- e) Taula grafiko bat nola eta zertarako erabiltzen den zehaztu du.
- f) Diseinu eta ediziorako zenbait erreminta baliatu ditu; besteak beste, pertsonaiak diseinatzeko programakoak.
- g) 2Dko erreminta digitalak aplikatu ditu pertsonaiaren hasierako irudia eraldatzeko.
- h) 2Dan sortutako diseinuak aldatu ditu proiektu artistikoan pertsonaiak izan duen bilakaeraren arabera.

5. Karakterizazioko diseinu digitalak egiten ditu 3Dan, eta, horretarako, programa informatikoak hautatzen eta erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) 2Dko eta 3Dko diseinuen arteko desberdintasunak ezarri ditu.
- b) "Kontzeptu-diseinua"-ren esanahia zehaztu du.
- c) 3Dko pertsonaiak diseinatzeko zenbait programa digital identifikatu ditu.
- d) Pertsonaia diseinatzean jarraitu beharreko faseak deskribatu ditu.
- e) 3Dko pertsonaiak sortzeko programetako erremintak baliatu ditu.
- f) 2Dko zirriborro batean oinarrituta, 3Dko pertsonaiak sortzeko jarraibideak zehaztu ditu.
- g) 3Dan sortutako diseinuak aldatu ditu proiektu artistikoan pertsonaiak izan duen bilakaeraren arabera.

6. Diseinuaren proposamena egiten du, eta, horretarako, inprimatutako aurkezpenak edo aurkezpen digitalak baliatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proposamena egiteko modeloak diseinatu ditu.
- b) Diseinuaren aurkezpenaren atzealdea hautatu du, lortu nahi den efektuaren arabera.
- c) Paperezko aurkezpenetan tamaina eta inprimatze-aukerak zehaztu ditu.
- d) Irudiaren tamaina eta fitxategi-mota adierazi ditu, Internet bidez bidalketa digitalak egiteko.
- e) Album bat egitea zein garrantzitsua den balioetsi du, diseinu-proposamena aurkezteko bide gisa.
- f) Diseinatutako pertsonaiak jasotzeko, album digitala eta papereko albuma sortu ditu.
- g) Komunikazio-erremintak baliatu ditu diseinu-proposamena aurkeztean.

Edukiak.

Pertsonaien diseinu digitalerako prozedura ezartzea:

- Pertsonaiak diseinatzeko protokolo orokorra. Pertsonaien diseinuaren protokoloa zehazten duten etapak.
- Abiapuntuko elementuak. Hautatzeko jarraibideak: kontuan izan behar diren ezaugarriak. Pertsonaien diseinu digitala egiteko behar diren abiapuntuko elementuak identifikatzea. Dokumentazioa, zirriborroak, marrazkiak, pinturak, argazkiak, eskulturak eta maketak, besteak beste.
- Pertsonaia diseinatzeko prozesuaren etapak. Sekuentziazioa. Diseinatu beharreko pertsonaiak eragindako gogoetak.
 - Pertsonaiaren formaren aldaketak. Bolumenak, kolorea, testurak eta anatomiaren xehetasun bereizgarriak, besteak beste.
 - Pertsonaiaren atzealdea sortzea eta aldatzea.
 - Pertsonaiaren janzkera eta beste osagarri batzuk.
- Azken emaitza analizatzeko fasea. Emaita ebaluatzeko metodoa hautatzea. Aldaketak, zuzenketak eta ukituak.
- Pertsonaia interpretearen ezaugarrietara egokitzeko etapa. Proiektuaren beharrak eta eskariak identifikatzea.

Pertsonaiak diseinatzeko, irudi digitalen banku bat sortzea:

- Pertsonaiak sortzeko dokumentu-iturriak.
 - Iturri bibliografikoak. Biografiak, aldizkari espezializatuak, Internet, besteak beste.
 - Dokumentu grafikoak: Argazkigintza, filmografia, eskultura eta pintura, besteak beste.
- Informazioa lortzeko metodoak. Bilaketa-estrategiak. Irudi-motak: marrazkiak, ilustrazioak, filmak eta argazkiak, besteak beste.
- Irudiak atzemateko ekipoak: argazki-kamera digitalak eta analogikoak, 2D eta 3D eskanerrak eta tresna informatikoak. Irudiak hartzeko programa informatikoak.
 - Ezaugarri teknikoak. Ekipoak maneiatzea eta irudiak hartzea.
 - Irudiak hartzearekin lotutako aldagai teknikoak. Kolorea, saturazioa, kontrastea, distira, besteak beste.
- Irudi-bankuak: antolatze metodoak. Irudiak aztertzea eta artxiboetan sailkatzea.
- Jabetza intelektualari buruzko legedia: egile-eskubideak.

Diseinatu behar den pertsonaiaren ezaugarriak zehaztea:

- Pertsonaia-motak. Ezaugarri nagusiak.
 - Benetako pertsonaiak. Gizakiak eta animaliak.
 - Fikziozko pertsonaiak. Fantasia, zientzia fikzioa eta izua, besteak beste.
- Pertsonaiaren ezaugarriak (ezaugarri fisikoak, baldintzatzaile sozialak, kulturalak eta historikoak, besteak beste) aztertze eta analizatzeko teknikak aplikatzea. Pertsonaien datuak biltzeko sistemak.
- Proiektu artistikoaren testuinguru historikoa, soziala, kulturala eta ikusizko testuingurua (giroa eta agertokiak, besteak beste) identifikatzea. Pertsonaiaren jantziak eta atrezkoa identifikatzea.
- Diseinuaren oinarri gisa erabilitako modeloaren ezaugarri fisikoak aztertzea.
- Abiapuntuko modeloaren eta sortu beharreko pertsonaiaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertzea. Abiapuntuko modelo pertsonaiaren arabera egokitzeko egin behar diren aldaketak baloratzea.

- Pertsonaia modeloaren/interpretearen ezaugarrietara egokitzea. Egokitze teknikak.
- Pertsonaiaren bilakaera: pertsonaian egin beharreko aldaketak.

Karakterizazio-diseinu digitalak egitea 2Dan:

- 2Dan diseinatzeko programak. Diseinu-programak konfiguratzea. Grafiko bektorialak eta grafiko rasterizatuak. Editatzeko programa informatikoak. Ezaugarri komunak, desberdintasunak eta osagarritasun-esparruak.
- Irudien ezaugarriak: formatua, ezaugarriak, bereizmena eta kolorea, besteak beste.
- Tableta grafiko digitalizatuak: motak, helburuak, osagarriak, funtzionamendua eta mantentze-lanak. Tableta aktiboak eta pasiboak.
- Programaren tresnak: elementu digital bat diseinatzeko aukera-barra.
 - Diseinu-tresnak. Besteak beste, geruzak, kanalak eta maskarak erabiltzea.
 - Edizio-tresnak. Hautatzeko, pintatzeko, ukituak emateko eta forma bektorialetarako erremintak.
- Irudiak manipulatzeko. Fitxategi-formatua eta ukituak irudian, kolore-doikuntzak, argiztapena, distira eta kontrastea, besteak beste.
- 2Dko pertsonaiak egitea. Pertsonaia historikoak, beldurrezkoak, fantasiakoak, fikzio-zientziakoak eta bestelakoak diseinatzeko.
- Pertsonaien itxuraren 2Dko aldaketa digitalak egitea: zahartzea, gaztetzea, sexuz aldatzea, arrazaz aldatzea, zauriak, hematoma eta bestelakoak.

Karakterizazio-diseinuak egitea 3Dan:

- 2Dko eta 3Dko diseinuen arteko aldeak. Hiru dimentsioko diseinuaren elementuak.
- 2Dko zirriborroen eta 3Dko pertsonaiak egin aurreko 2Dko zirriborroen (kontzeptu-diseinua) arteko aldeak.
- 3Dan diseinatzeko programak: diseinu-faseak. Modelatze digitalerako erremintak. Erabiltzeko jarraibideak.
- 2Dko zirriborroetan oinarrituta 3Dko pertsonaiak egitea, erreferentziako hiru bistak baliatuta.
- Pertsonaien 3Dko diseinua.
 - Errealak: historikoak, garaikoak, besteak beste.
 - Fikziozkoak: fantasiakoak, beldurrezkoak eta zientzia-fikziozkoak, besteak beste.
- Pertsonaiaren itxuran 3Dko aldaketa digitalak egitea: zahartzea, gaztetzea, sexuz aldatzea, arrazaz aldatzea, zauriak, hematoma, makillajeak eta bestelakoak.

Diseinu-proposamena prestatzea:

- Diseinu-proposamenen ereduak. Egitura eta formatua.
- Diseinuak aurkezteko atzealdeak hautatzea. Atzealdearen garrantzia pertsonaiaren diseinu grafikoan. Atzealde-motak. Solidoak, degradatuak eta fotografikoak, besteak beste.
- Papereko aurkezpenak: paper-motak, testurak, tamaina eta inprimatze-bereizmena, besteak beste.
- Aurkezpen digitalak: kalitatea eta tamaina. Bidalketa digitalak egitea.
- Papereko albuma eta album digitala egitea. Helburuak, egitura eta hedabideak. Album digital bat sortzeko eta hedatzeko tresnak. Webguneak eta blogak, besteak beste.
- Proiektua aurkeztean komunikazio-teknikak erabiltzea.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honen helburua da ikasleek bi eta hiru dimentsiotan pertsonaia digitalak diseinatzeko behar dituzten ezagutzak, abileziak eta trebetasunak eskuratzea, 2Dko eta 3Dko diseinu digitaleko programak erabilia, ikus-entzunezko sektorerako eta sektore eszenikorako pertsonaiak diseinatzeko proposamenak egin ditzaten. Horretarako, diseinu-protokolo bat eta irudi-bankuak erabiliz, eskatutako pertsonaiaren ezaugarriak 2Dko eta 3Dko zirriborroetan islatzen ikasi beharko dute.

Diseinu-proposamenak lantzeko didaktikoentzat jotzen den edukien sekuentziazioa bat dator moduluko eduki-multzoen agerpen-ordenarekin. Hurrenkera hori sekuentzia logiko bat da, eta haren bidez ikasleek mailaz maila bereganatuko dituzte behar dituzten edukiak.

Eduki horiek emateko, gela balioaniztun bat erabiltzea komeni da. Gela horretan, tableta grafikoak, 2Dko eta 3Dko diseinu-programak eta bideoak editatzeko programak dituzten ordenagailuak erabiliko dira. Diseinuak 2Dko eta 3Dko diseinu-programekin eginen dira, irudien banku batetik abiatuta. Banku hori aldeztu aurretik sortuko da, beste tresna digital batzuk erabilia, hala nola 2Dko eta 3Dko eskannerak, 2Dko eta 3Dko inprimagailuak, argazki- eta bideo-kamera digitalak eta ikus-entzunezko grabaziorako materiala. Ikasleak inspiratzeko baliabide garrantzitsuak izanen dira, halaber, ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen sektoreko liburu espezifikoak eta aldizkari espezializatuak, beste dokumentu-iturri batzuen artean.

Ikaskuntzaren emaitzak lortzeko, besteak beste, honako jarduerak hauek proposatzen dira lanbide-modulu honetarako:

- Zenbait pertsonaiaren diseinu digitaleko prozedurak egitea, eta, horretarako euskarri eta tresna desberdinak erabiltzea, eta prozedura horiek ikasgelan ikusgai jartzea.
- Irudiak hartzea argazki-kamera digital eta analogikoekin, 2Dko eskannerekin, 3Dko eskannerekin eta tresna informatikoekin.
- Karpeta digitalak sortzea, pertsonaien diseinurako gai desberdinak biltzen dituzten irudi-banku gisa.
- Dosierak prestatzea dokumentu-iturri desberdinak erabilia (biografiak, aldizkari espezializatuak, Internet, argazkiak, filmografia, eskultura eta pintura, besteak beste).
- Zenbait karakterizazio-proiektu aztertzea, diseinatu beharreko pertsonaiaren ezaugarriak zehazteko.
- Pertsonaiaren hasierako zirriborroak 2Dn sortutako diseinu bihurtzea.
- 3Dko pertsonaiak diseinatzea 2Dko zirriborro batetik abiatuta.
- Album bat prestatzea, benetako eta fikziozko pertsonaiei, gizakiei eta animaliei buruzko diseinu-proposamenekin.
- Ikastetxeko jardueretan parte hartzea, eta gaiarekin zerikusia duten pertsonaia errealak edo fikziozkoak aurkeztea.

Beste moduluekiko harremanari dagokionez, “Pertsonaien 2Dko eta 3Dko diseinu digitala” moduluaren lehen mailako “Diseinu grafiko aplikatua” modulua jarraipena diren edukiak irakasten dira.

“Plangintza eta proiektuak” moduluarekin koordinatu behar da pertsonaiaren ezaugarriak zehazteari eta diseinu-proposamena lantzeari buruzko eduki komunetan.

“Pertsonaien karakterizazioa” moduluari dagokionez, jantziekin eta atrezzoarekin lotura duten edukiak koordinatu behar dira. Izan ere, eduki horiek gure moduluko zenbait edukiren jarraipena dira, zehazki pertsonaiaren ezaugarriak zehazteari buruzko multzoko edukiena.

“Efektu bereziak makillajearen bidez” moduluaren, efektu berezien ezaugarriak identifikatzeari buruzko edukiak irakasten dira. Eduki horiek gure moduluko pertsonaiaren ezaugarriak zehaztearekin lotutako edukien jarraipena dira; beraz, koordinatu egin behar dira edukiok.

Azken iradokizun gisa, pertsonaiak sortzeko sektore zinematografikoak eta eszenikoak erabiltzen dituen materialen eta diseinuen etengabeko bilakaera dela eta, komeni da ikasleak alde horretatik etengabe eguneratzea, arestian aipatutako sektoreekin lotutako iturrien bidez.

Lanbide-modulua: Enpresa eta Ekimena.

Kodea: 1272.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 4.

Iraupena: 70 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Ekimenari lotutako ahalmenak ezagutzen ditu, eta lanpostuetatik eta enpresa-jardueretatik sortzen diren eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aintzat hartu ditu banakako ekimenak, sormenak, prestakuntzak eta lankidetzak duten garrantzia, enplegatu gisa nahiz enpresaburu gisa ekinbideetan arrakasta lortzeko ezinbesteko baldintzak diren aldetik.
- b) Identifikatu ditu berrikuntzaren eta nazioartekotzearen kontzeptuak eta horiek gizartea aurreratzearekin eta pertsonen ongizatea handiagotzearekin duten lotura.
- c) Aztertu du kultura ekintzailea zer den eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen iturri gisa zer-nolako garrantzia duen.
- d) Karakterizazioaren eta makillajearen alorrean hasten den enpresaburu baten ekimenaren garapena aztertu du.
- e) Aztertu du arriskuaren kontzeptua, ekimen ororen ezinbesteko osagaia den aldetik, eta enpresa-plan baten bitartez arriskua gutxitzeko aukera ere aztertu du.
- f) Aztertu ditu enpresaburu-kontzeptua eta enpresa-jarduera garatzeko behar diren baldintzak eta jarrerak.

2. Ezagutzen eta aplikatzen ditu komunikazioarekin, lidergoarekin, sormenarekin eta konpromisoarekin zerikusia duten gaitasun pertsonalak, eta baloratzen du norberaren konturako edo besteren konturako lanbide jarduerak garatzeko duten garrantzia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazio eraginkorra izateko behar diren elementuak identifikatu ditu.
- b) Agintzeko eta zuzentzeko estiloak sailkatu ditu, bai eta horiek pertsonengan eta enpresetan dituzten eraginak ere.
- c) Lanbide-jardueretan motibazioa izatearen beharra justifikatu du.
- d) Motibatze teknikak ohikoenak deskribatu ditu, eta egoeraren arabera nola egokitzen diren azaldu du.
- e) Lan-prozesuak hobetzeko eta lanbidean berrikuntzak sartzeko pentsamendu sortzailearen beharra justifikatu du.
- f) Sormenezko prozesuen ezaugarri nagusiak deskribatu ditu.
- g) Lanbide-gaitasun pertsonalen eta sektoreko enpresetan besteren kontura lan egiteko izan behar diren gaitasun pertsonalen arteko harremana zehaztu du.
- h) Norberaren gaitasun profesionalak erlazionatu ditu ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen lanbide-sektorean jarduera bat sortzeko ekimena duten pertsonen ahalmenekin.

3. Negoziatorako ideiak sortzen eta identifikatzen ditu, enpresa txiki bat sortzeko edo enpresa baten barnean ekimenak garatzeko aukera zehaztuta, balio etikoak txertatuta, eta haiek ingurunean duten eragina baloratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu, eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.

- b) Enpresa baten barnean prozesuak eta produktuak hobetzeko ekimenetarako ideien garapena sustatu du, merkatuaren eskaerei erantzun nahian.
- c) Negoziatorako ideien garapena sustatu du, merkatuaren eskaerei erantzun nahian.
- d) Negoziatorako aukerak aztertu ditu, sektorearen egoera eta bilakaera kontuan izanda.
- e) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; bereziki, ingurune ekonomikoa, soziala, demografikoa, kulturala, politikoa, legezkoa, teknologikoa eta nazioartekoa.
- f) Enpresak bezeroekin/erabiltzaileekin, hornitzaileekin, lehiakideekin eta bitartekariekin dituen harremanek enpresaren jardueran zer-nolako eragina duten aztertu du, horiek baitira ingurune espezifikoaren edo mikroingurunearen osagai nagusiak.
- g) ETE baten inguruneko elementuak identifikatu ditu.
- h) Enpresa-kultura eta irudi korporatiboa zer diren eta enpresaren helburuei nola dauden loturik aztertu du.
- i) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomenoak eta enpresaren estrategiaren osagai gisa duen garrantzia aztertu du.
- j) Karakterizazioaren eta makillaje profesionalaren arloko enpresa baten balantze soziala egin du eta enpresa horien kostu sozial nagusiak deskribatu ditu, baita sortzen dituzten onura sozialak ere.
- k) Karakterizazioaren eta makillaje profesionalaren arloko enpresetan, balio etiko eta sozialak kontuan hartzen dituzten jardunbideak identifikatu ditu.
- l) Enpresaren estrategia enpresaren helburuekin erlazionatuz deskribatu du, eta marketin-plana zehaztu.
- m) Enpresa baten bideragarritasun ekonomiko-finantzarioari buruzko azterlana egitea zein garrantzitsua den baloratu du.

4. Karakterizazioaren eta makillaje profesionalaren arloko enpresa bat eratzeke eta abiarazteko lanak egiten ditu, dauden aukerabide eta baliabideak balioetsiz, forma juridikoa hautatuz eta legezko betebeharrak identifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren forma juridiko desberdinak aztertu ditu.
- b) Enpresaren jabeek, hautatutako forma juridikoaren arabera, zenbaterainoko lege erantzukizuna duten zehaztu du.
- c) Enpresaren forma juridiko bakoitzari ezartzen zaion tratamendu fiskala bereizi du.
- d) Indarreko legeriak ETE bat eratzeke eskatzen dituen izapideak aztertu ditu.
- e) Karakterizazioko eta makillaje profesionaleko enpresak sortzeke eskuratzen ahal diren laguntzen bilaketa zorrotza egin du.
- f) Enpresa-plan baten osagaiak zehaztu ditu.
- g) Forma juridikoaren hautapenari, administrazio-izapideei, laguntzei eta dirulaguntzei buruzko guztia sartu du enpresa-planean.
- h) ETE bat abian jartzean, enpresatik kanpo dauden aholkularitzako eta kudeaketa administrazio bideak identifikatu ditu.
- i) Produkzio-planari buruzko guztia eta bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterlanari buruzko guztia sartu du enpresa-planean.
- j) Kontabilitate-informazioa aztertzeke oinarritzeko teknikak deskribatu ditu, batez ere enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
- k) Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen sektoreko ETE baten bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa aztertu du.

- l) Jarduera gauzatzeko egin behar diren inbertsioak identifikatu eta baloratu ditu, baita finantza-bideak ere.
- m) Ahulguneak eta indarguneak identifikatu ditu.

5. ETE baten oinarritzko kudeaketa administratibo, komertzial eta finantzarioko jarduerak egiten ditu, eta kontabilitate- eta zerga-arloetako betebeharrak nagusiak identifikatzen eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazioaren eta makillaje profesionalaren arloko enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- b) Fase hauek zehaztu ditu: ekoizpen-fasea edo zerbitzua ematea, ekoizpenerako estrategiak eta kalitaterako estrategiak.
- c) Oinarritzko kontabilitate-kontzeptuak aztertu ditu.
- d) Aintzat hartu du ikerketa, garapen eta berrikuntza (I+G+B) arloko ekintzen beharra.
- e) Zerga-motak bereizi ditu zerga-egutegian.
- f) Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen sektoreko ETE batentzat merkataritzako eta kontabilitateko oinarritzko agiriak bete ditu (fakturak, albaranak, eskabide orriak, kanbio letrak, txekuek eta beste batzuk), eta agiri horiek enpresan egiten dituzten zirkuituak deskribatu ditu.

Edukiak.

Ekimena:

- Berrikuntza eta garapen ekonomikoa. Berrikuntzaren ezaugarri nagusiak karakterizazioko eta makillaje profesionalen jardunean.
- Ekintzaileen funtsezko faktoreak: ekimena, sormena eta prestakuntza.
- Ekintzaileen jarduna, ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen sektoreko ETE bateko enpresaburu eta enplegatu gisa.
- Ekintzailetzari lotutako arriskua.
- Enpresaburuaren kontzeptua. Enpresaburu-jardueran aritzeko baldintzak. Izaera ekintzailea.

Komunikazioa, lidergoa eta sormena:

- Sormenerako, komunikaziorako eta lidergorako oinarritzko gaitasunak, besteak beste.
- Pertsona sortzaileen ezaugarriak. Sormena sustatzen duten teknikak.
- Aginte- eta zuzendaritza-estiloak ezagutzea. Aplikazioa enpresako esparruetan.
- Motibazioaren kontzeptua. Motibatze teknikak eta haien aplikazioa.
- Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen arloan lan egiten duen ekintzaile baten edo enplegatu baten laneko gaitasunak eta gaitasun pertsonalak ezagutzea.

Enpresa eta enpresaren ingurunea:

- Enpresa sistema gisa. Enpresaren oinarritzko eginkizunak.
- Negoziorako ideia karakterizazioaren eta makillaje profesionalaren arloko enpresa baten esparruan.
- Kultura ekintzailea: ekintzailetza, enpresa barneko ekintzailetza eta ekintzailetza soziala sustatzea. Negozio-ideiak sustatzeko teknikak.
- Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen sektoreko ETE baten ingurune orokorraren eta espezifikoaren azterketa.
- Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen sektoreko ETE baten harremanak.

- Enpresa nazioarteko eremuan. Europar Batasunean askatasunez ezartzeko eskubidea.
- Ikus-entzunezkoen edo ikuskizunen sektoreko enpresa baten ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak aztertzea.
- Marketin-plan baten edukiak.

Enpresa bat sortu eta abian jartzea:

- Enpresa-motak. Forma juridikoak.
- Forma juridikoa hautatzea.
- Ekoizpen-prozesuaren edo zerbitzu ematearen deskribapen teknikoa. Giza baliabideak.
- Karakterizazioaren eta makillaje profesionalaren arloko ETE baten bideragarritasun ekonomikoa eta bideragarritasun finantzarioa.
- Enpresen fiskalitatea: Nafarroako Foru Komunitateko zerga-sistemaren berezitasunak.
- Enpresa bat eratzekeko administrazio-izapideak.
- Enpresa bat eratzekeko aholku ematen duten erakunde eta instituzioak.
- Ahulguneak eta indarguneak identifikatzea, AMIA.
- Enpresa-plan bat prestatzea.

Funtzio administratiboa, komertziala eta finantzarioa:

- Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko nozioak.
- Funtzio komertzial eta finantzarioaren kontzeptua.
- Ekoizpen-faseen definizioa. Hobekuntza-sistemak.
- Kontabilitate-lanak: enpresa baten informazio ekonomikoaren erregistroa.
- Enpresen zerga-betebeharrak.
- Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
- Karakterizazioko eta makillaje profesionaleko enpresa baten kudeaketa administratiboa.

Orientabide didaktikoak.

Modulu honen helburua da ikasleek sentsibiltate positiboa garatzea nork bere lana sortzeko ekimenari dagokionez, baita enpresa barnean ekiteko jarrerak eta trebetasunak sustatzea ere, enplegua etengabe hobetzeko, besteren kontura lan egiten denean.

Proposatzen den edukien sekuentziari dagokionez, kontuan izanik ikastetxeak eskumena duela egokien iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko, proposatzen da ikasleen gaitasun ekintzaileak zehazten eta garatzen dituzten jarduerekin hastea; jarduera horiek, aldi berean, beren jarduna garatuko duten sektorerara hurbiltzen lagunduko diete. Ondotik, negozioarako ideia bat zehazteko erronkari egingen diote aurre ikasleek, hori oinarria izanen baita enpresa-plan bat garatzeko. Izan ere, hori izanen da modulua garatzeko ardatza. Ildo horretan, interesgarria izanen da prozesu guztian zehar emakumeen ahal-duntzea sustatzea, ekiteko gaitasuna, lidergoa edo laneko autoestimua landuz, beste alderdi batzuen artean, emakumeek enpresaburu gisa duten autopertzepzioa hobetzeko eta konfiantza indartzeko, nork bere erabakiak hartzeko orduan.

Komenigarria izanen da edukiak aplikagarriak izatea eta enpresa proiektuaren/enpresa planaren garapenari lotuta ematea, metodologiak moduluko alderdi teorikoa eta praktikoa lot ditzan.

Ahalegina egin beharko litzateke enpresa proiektuaren/enpresa planaren kontzeptua karakterizazioaren eta makillaje profesionalaren arloko proiektuari buruzko moduluarekin biltzeko, lanbide arlo horretako irakasleek ezaugarri teknikoei buruzko modulu zatiak gida ditzaten. Bi proiektuak ebaluazio-tresna

gisa erabiltzen ahalko dira, ikasleen jarrera alderdiak baloratu ahal izateko, hala nola: komunikazioa, lidergoa, sormena eta parte-hartzea, lehen definituak ekimena sustatzeko beharrezko gaitasun gisa.

Metodologia teoriko-praktikoa izanen da, ikus-entzunezko baliabideak eta IKTak erabiliz kasuan kasuko sektorearen egoera ekonomikoari buruzko informazioa bilatu eta aztertzeke, eta web-orri eta plataforma espezializatueta kontsultak egiteko, enpresa bat martxan jartzeko prozesuan erabakiak hartzen lagungarri izan daitezten. Alde horretatik, enpresa-plan bat garatzen ahal da, jarduera hauen ardatz egituratzaile gisa:

- Heziketa-zikloko lanbide-profilari dagokion jarduerarekin zerikusia duen enpresa baten proiektu/plan bat egitea, negozio bat martxan jartzeko alderdi guztiak biltzen dituen: bideragarritasuna, produkzioa eta giza baliabideak, merkataritzako kudeaketa, administrazio- eta finantza-kontrola, justifikazio soziala eta abar; horretarako, esperientzia praktikoetan eta kanpoko eragileekiko interakzioan oinarritutako tresna pedagogikoak aplikatuko dira, batez ere, bai eta enpresa jardueraren sustapena ere (enpresa-leihatila bakarra, merkataritza-ganberak, tokiko garapen -agentziak, CEN, CEIN, enpresa-mintegiak eta inkubagailuak eta abar).
- Enpresaburuekin harremanetan jartzea, hitzaldi, bisita, dinamika eta abarren bidez, enpresa baten funtzionamendua ezagutzeko sortzen denetik aurrera, izaera ekintzailea sustatzeko eta ikasleek jarduerak garatzeko enpresa horren inguruan: oinarritzko eginkizunak, ingurunearen azterlana, AMIA azterketa, produkzio-prozesuaren deskribapena, enpresa-mota.
- Azoka, jardunaldi, lantegi eta bestelako ekitaldietara joatea, sektorea ezagutzeko eta enpresa-ekimena garatzeko.
- Erakustaldiak, jardunaldi teknikoak eta ikastetxean beste ekimen batzuk antolatzea, hezkuntza, ekonomia eta gizarte-komunitateari begira.
- Kontsultak egitea enpresak sortzeko eskumenak dituzten entitate eta erakundeei, agente ekonomikoei eta profesionalei.
- Prebentzio-plan bat egitea enpresa-planaren barruan, Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak moduluarekin batera.
- Enpresa-proiektua/plana azaltzea eta defendatzea epaimahai baten aurrean.

Metodologia hau aplikatzeko, komenigarria izanen da ikasleei Interneten sartzea ahalbidetzen dieten baliabideak eta/edo ikus-entzunezko baliabideak izatea. Gomendagarria da, halaber, ikasleak taldekatzeko teknika erabiltzea proposatutako jarduera batzuk egiteko.

Orobat, ahal den neurrian, ikastetxeen arteko elkarlana sustatuko da, irakasleen artean bezala ikasleen artean ere (kudeaketa ekonomikoa, prebentzio-plana, denbora-bankua eta abar), eta ikastetxeen materialak eta jardunbide egokiak trukatzeko bultzatuko da, topaketa birtualen eta aurrez aurrekoen bidez.

Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak modulua eta Enpresa eta Ekimena modulua elkarren osagarriak direnez, koordinatuta egin beharko dira edukien garapena eta sekuentziazioa, eta lotura estua ezarri bi lanbide-moduluak ematen dituzten irakasleen artean.

Lanbide-modulua: Karakterizazioko eta makillaje profesionaleko proiektua.

Kodea: 1270.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 5.

Iraupena: 30 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatu ditu, eta behar horiek lotzen ditu asetzen ahal dituzten ereduzko proiektuekin.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sektorako enpresak antolaketa ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- b) Ereduzko enpresen ezaugarriak azaldu ditu, antolamenduaren egitura eta departamentu bakoitzaren eginkizunak adierazita.
- c) Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
- d) Sektoran aurreikusten ahal diren negozio aukerak balioetsi ditu.
- e) Aurreikusten diren eskariei erantzuteko behar den proiektu-mota identifikatu du.
- f) Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- g) Zerga- eta lan-alorretako eta arriskuen prebentzioko betebeharrak zehaztu ditu, bai eta horiek aplikatzeko baldintzak ere.
- h) Produkzioarako edo zerbitzuarako proposatzen diren teknologia berriak sartzeko har litezkeen laguntzak edo dirulaguntzak identifikatu ditu.
- i) Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia prestatu du.

2. Tituluan ageri diren gaitasunekin zerikusia duten proiektuak diseinatzen ditu, eta hura osatzen duten faseak jasotzen eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuan landuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- b) Proiektuaren bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
- c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta haien edukia identifikatu ditu.
- d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta haien irismena identifikatu.
- e) Proiektua aitzinera eramateko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak aurreikusi ditu.
- f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- g) Proiektua abian jartzeko finantzaketa-beharrak identifikatu ditu.
- h) Diseinatzeko behar den dokumentazioa definitu eta landu du.
- i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektua nola abiarazi edo gauzatu planifikatu du, esku hartzeko plana eta lotutako dokumentazioa zehaztuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak sekuentziatu ditu, jarduerak ezartzeko premien arabera ordenatuta.
- b) Jarduera bakoitzerako behar diren baliabideak eta logistika finkatu ditu.

- c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.
- d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
- e) Gauzatzeak dituen arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuen prebentziorako plana eta behar diren bitartekoak eta ekipamendua definitu ditu.
- f) Baliabide materialen eta giza baliabideen esleipena eta gauzatzeko epeak planifikatu ditu.
- g) Ezarpenaren baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
- h) Gauzatzeko behar den dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4. Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitu ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak zergatik hautatu dituen justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura definitu du.
- b) Definitu ditu ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak.
- c) Jarduerak egin bitartean gertatzen ahal diren gorabeherak ebaluatu, konpondu eta erregistratzeko prozedura definitu du.
- d) Baliabideetan eta jardueretan izaten ahal diren aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
- e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko behar den dokumentazioa definitu eta prestatu du.
- f) Erabiltzaileek edo bezeroek ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du eta dokumentu espezifikoak prestatu ditu.
- g) Proiektuaren baldintza-agiria, halakorik dagoenean, beteko dela bermatzeko sistema bat ezarri du.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu honek osatu egiten du tituluko gainerako lanbide-moduluetan ezarritako prestakuntza, testuingurua aztertzeke, proiektua diseinatzeko eta gauzatzea antolatzeke funtzioetan.

Testuinguruaren azterketa-eginkizunak honako azpifuntzio hauek hartzen ditu barrenean: informazioa biltzea, beharrak identifikatzea eta bideragarritasuna aztertzea.

Proiektuaren diseinu funtzioaren helburua da adierazitako beharrei erantzuna emateko ildo orokorrak ezartzea, eta haiek gauzatzeko alderdi garrantzitsuak zehaztea. Honako azpifuntzio hauek biltzen ditu: proiektua zehaztea, esku-hartzea planifikatzea eta dokumentazioa egitea.

Gauzapenaren antolaketa-funtzioak azpifuntzio hauek hartzen ditu barrenean: jardueren programazioa, baliabideen kudeaketa eta esku-hartzearen gainbegiraketa.

Eginkizun horiei lotutako lanbide-jarduerak ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen sektorean gauzatu dira.

Moduluko prestakuntzak lotura du zikloko helburu orokor guztiekin eta gaitasun profesional, pertsonal eta sozialekin.

Moduluaren helburuak lortzeko aukera emanen duten irakaskuntza/ikaskuntza-prozesuko jarduketak-ildoeke zerikusia dute honako hauekin:

- Lanak taldean egitea.
- Egindako lanaren ardura eta autoebaluazioa.
- Autonomia eta ekimen pertsonala.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.

Lanbide-modulua: Lantokiko prestakuntza.

Kodea: 1273.

Baliokidetasuna ECTS kreditutan: 22.

Iraupena: 350 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatu ditu, eta horiek lotzen ditu enpresak ematen duen zerbitzu-motarekin.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren antolaketa egitura eta enpresako arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- b) Enpresaren egitura sektorean dauden ereduzko enpresa-antolakundeekin alderatu du.
- c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero-motak lotu ditu enpresa-jardueraren garapenarekin.
- d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- e) Jarduera behar bezala garatzeko, giza baliabideen beharrezko gaitasunak baloratu ditu.
- f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Bere lanbide-jardueran ohitura etikoak eta lan-ohitura egokiak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezaugarrien eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Honako hauek aintzat hartu eta justifikatu ditu:
 - Lanpostuak behar duen prestasun pertsonala eta denborakoa.
 - Lanposturako behar diren jarrera pertsonalak (puntueltasuna eta enpatia, besteak beste) eta profesionalak (ordena, garbitasuna eta erantzukizuna, besteak beste).
 - Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
 - Lanbide-jardueraren kalitateari lotutako jarrerazko eskakizunak.
 - Lantaldearekiko harremanei eta enpresan ezarritako harreman hierarkikoei buruzko jarrerak.
 - Lan-esparruan egindako jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan laneratzeko eta berriz laneratzeko prestakuntza beharrak.
- b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak identifikatu dira.
- c) Norbera babesteko ekipamenduak erabili ditu, lanbide-jardueraren arriskuen arabera eta enpresaren arauak betez.
- d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
- e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.
- f) Egokitu zaion lanaren erantzukizuna bere gain hartu du, eta jasotako jarraibideak interpretatu eta bete ditu.
- g) Komunikazio eraginkorra eratu du egoera bakoitzean arduradun den pertsonarekin eta taldekideekin.
- h) Koordinatu da taldeko gainerakoekin eta jakinarazi ditu sortu diren gertaerarik adierazgarrienak.
- i) Norberaren jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu ditu.

j) Lana gauzatzean, arauak eta prozedurak aplikatzeko ardura hartu du.

3. Laneko jarduera prestatzeko eragiketak egiten ditu, eta, horretarako, ezarritako arauen eta jarraibideen arabera teknikak eta prozedurak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Tutorearengandik jasotako jarraibideak interpretatu ditu enpresan.
- b) Laneko prozesuan sortutako eta erabilitako dokumentu-mota guztiak erabili ditu.
- c) Bezeroa komunikazio eraginkorraren bidez artatzeko arauak aplikatu ditu, eta horretarako ezarritako jarraibideak eta arauak bete ditu.
- d) Karakterizazio-proiektua egiten lagundu du eta gidoiaren premia artistikoak, teknikoak eta ekonomikoak zehaztu ditu.
- e) Diseinu grafiko/digitalak egin ditu pertsonaiak definitzeko.
- f) Proiektu artistikoa eta interpretearen ezaugarriak aztertu ondotik, pertsonaiak karakterizatzeko behar diren lan teknikoak identifikatu ditu.
- g) Lan-jarduera garatuko den espazioen egokitzapen beharrak identifikatu ditu.
- h) Materialen eta ekipamenduen hornikuntza planifikatu du.
- i) Pertsonaiak karakterizatzeko prozesua abiarazteko jarduerak programatu ditu.
- j) Enpresako protokolo teknikoak, komertzialak eta segurtasun, higiene nahiz kalitateari buruzkoak prestatzen lagundu du.

4. Makillaje profesionalak diseinatzen eta egiten laguntzen du; horretarako, bezeroaren eta/edo interpretearen ezaugarriak aztertzen ditu, eta aurpegiko, gorputzeko eta fantasiazko dekorazio-teknikak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Makillaje-prozesuak egiteko teknikak, ekipoak eta produktuak hautatu ditu.
- b) Materialak eta produktuak funtzionaltasun-irizpideen arabera banatu ditu.
- c) Bezeroaren edo interpretearen larruazalaren egoera, ezaugarriak eta alterazioak identifikatu ditu.
- d) Makillajeak ezaugarri pertsonalen, soziolaboralen eta eszenikoen arabera diseinatu ditu.
- e) Larruazala makillaje profesionala egin aurretik prestatzeko tekniken erabilera justifikatu du.
- f) Aurpegiko, gorputzeko eta fantasiazko makillajeak egin ditu.

5. Karakterizazioko koadernoan edo lan-planean aurreikusitako jarduerak inplementatzen ditu, eta, horretarako, eszenaratzeko premiak eta garatu beharreko jarduerekin lotutako teknikak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-jarduera egiteko jasotako jarraibideak ulertu ditu.
- b) Karakterizazio-prozesuak egiteko teknikak, ekipoak eta produktuak hautatu ditu.
- c) Modeloa/interpretea artatzeko eta eroso jartzeko prozedurei jarraitu die.
- d) Erabiltzailearen edo interpretearen ezaugarri morfologikoak identifikatu ditu.
- e) Interpretari inpresioa hartzeko garaian edo protesiak jartzeko garaian senti daitezkeen sentazioak zehaztu ditu.
- f) Protesiak egin ditu ezarritako protokoloak kontuan izanik.
- g) Karakterizazioko efektu bereziak egin ditu gidoiaren zehaztapenei jarraikiz.

- h) Pertsonaiarengan orrazkeraren bitartez egin behar diren aldaketak zehaztu ditu.
- i) Protesiak, efektu bereziak, makillajea, orrazketa eta gainerako elementuak egokitu ditu pertsonaiaren karakterizazio integrala egiteko.
- j) Karakterizazioko elementuak kentzeko metodoak ezarri ditu.

6. Karakterizazioko eta makillajeko produktuekin, prozesuekin eta instalazioekin loturiko segurtasun- eta higiene-neurriak betetzen ditu, eta higiene- eta osasun-arloko, lan-segurtasuneko eta ingurumena babesteko irizpideen arabera jokatzeko du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Karakterizazio-prozesu osoan higiene- eta osasun-arloko arauak aplikatzeaz arduratu da.
- b) Higiene- eta osasun-arazoak edo segurtasun-arazoak eragin ditzaketen portaera edo jarrera guztiak ezagutu ditu.
- c) Jarduerarako jantzi egokiak erabili ditu.
- d) Norbera babesteko ekipamenduak erabili ditu, lanbide-jardueraren arriskuen arabera eta enpresaren arauak betez.
- e) Hondakinak biltzeko, hautatzeko, sailkatzeko eta desagerrarazi edo botatzeko eragiketak egin ditu eta, uneoro, ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
- f) Erabilitako baliabideak eta erabili nahiz egindako produktuak zaintzeko eta biltegiratzeko jarraibideak ezarri ditu.

7. Makillajeko eta karakterizazioko prozesuak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, kalitatea zehazten duten parametroak aztertzen ditu eta neurri zuzentzaileak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalitatea kudeatzeko prozedurak eta tresnak identifikatu ditu.
- b) Lanbideko irizpide deontologikoak aplikatu ditu.
- c) Gogobetetze maila ebaluatzeko metodoak eta teknikak aplikatu ditu.
- d) Karakterizazio-prozesuan sortu diren gorabeherak ebatzi ditu.
- e) Informazioa transmititzeko enpresan edo instituzioan finkatuta dauden bideak egoki erabili ditu.
- f) Jarduerak egitean jarrera parte-hartzailea izan du.
- g) Taldean lan egin du, eta ekimena eta interesa agertu ditu.

Orientabide didaktikoak.

Lanbide-modulu hau lagungarria da tituluko gaitasunak eta zikloko helburu orokorrak osatzeko, bai ikastetxean lortutakoak, bai bertan nekez lortzen ahal direnak.

3. ERANSKINA

LANBIDE-MODULUEN ETA GAITASUN-UNITATEEN ARTEKO KORRESPONDENTZIA

A) Gaitasun-unitateek lanbide-moduluekin duten korrespondentzia, horiek baliozkotzeko.

EGIAZTATUTAKO GAITASUN-UNITATEAK	BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE-MODULUAK
UC1255-3: Karakterizazio-proiektuak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea. UC1254-3: Pertsonaiak karakterizatzeko proiektuak egitea, proiektu artistikoen arabera.	0685. Plangintza eta proiektuak.
UC1517-3: Proiektu eszenikoetarako janzkeraren historiari eta bilakaerari buruzko informazioa bilatzea eta biltzea. UC1259-3: Pertsonaiak karakterizatzea eta makillajeko efektu bereziak egitea.	1261. Pertsonaien karakterizazioa.
UC1259-3: Pertsonaiak karakterizatzea eta makillajeko efektu bereziak egitea. UC0066-2: Baliabide eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillatzea.	1262. Makillaje profesionala.
UC1259-3: Pertsonaiak karakterizatzea eta makillajeko efektu bereziak egitea.	1263. Efektu bereziak makillajearen bidez.
UC1256-3: Aurpegiko eta gorputzeko protesiak egitea karakterizaziorako.	1264. Aurpegiko eta gorputzeko protesiak sortzea.
UC1258-2: Ile-apainketako teknikak aplikatzea karakterizaziorako. UC0794-3: Protokolo teknikoak eta orrazketak egitea ile-apaindegietarako, ikus-entzunezko ekoizpenetarako eta ekoizpen eszenikoetarako.	1265. Karakterizaziorako ile-apainketa.
UC1257-3: Ile-protesiak egitea karakterizaziorako.	1266. Ile-eranskingintza.

OHARRA: Heziketa-ziklo honetan matrikulatutako pertsonen tituluaren barnean hartzen diren gaitasun-unitate guztiak 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera egiaztatu badituzte –1244/2009 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-gaitasunak onartzeari buruzkoa–, honako lanbide modulu hauek izanen dituzte baliozkotuta: “1269. Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak” eta “1268. Diseinu grafiko aplikatua”.

B) Lanbide-moduluek gaitasun-unitateekin duten korrespondentzia, horiek egiaztatzeko.

GAINDITUTAKO LANBIDE-MODULUAK	EGIAZTATZEN AHAL DIREN GAITASUN-UNITATEAK
0685. Plangintza eta proiektuak.	UC1255-3: Karakterizazio-proiektuak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea. UC1254-3: Pertsonaiak karakterizatzeko proiektuak egitea, proiektu artistikoen arabera.
1261. Pertsonaien karakterizazioa.	UC1517-3: Proiektu eszenikoetarako janzkeraren historiari eta bilakaerari buruzko informazioa bilatzea eta biltzea.
1262. Makillaje profesionala.	UC0066-2: Baliabide eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillatzea.
1261. Pertsonaien karakterizazioa. 1262. Makillaje profesionala. 1263. Efektu bereziak makillajearen bidez.	UC1259-3: Pertsonaiak karakterizatzea eta makillajeko efektu bereziak egitea.
1264. Aurpegiko eta gorputzeko protesiak sortzea.	UC1256-3: Aurpegiko eta gorputzeko protesiak egitea karakterizaziorako.
1265. Karakterizaziorako ile-apainketa.	UC1258-2: Ile-apainketako teknikak aplikatzea karakterizaziorako. UC0794-3: Protokolo teknikoak eta orrazketak egitea ile-apaindegietarako, ikus-entzunezko ekoizpenetarako eta ekoizpen eszenikoetarako.
1266. Ile-eranskingintza.	UC1257-3: Ile-protesiak egitea karakterizaziorako.

4. ERANSKINA

IRAKASLEAK

A) *Esleitutako irakaslanak.*

LANBIDE-MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
0685. Plangintza eta proiektuak.	Irudi Pertsonaleko Aholkularitza eta Prozesuak	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1261. Pertsonaien karakterizazioa.	Estetika.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.
1262. Makillaje profesionala.	Estetika.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.
1263. Efektu bereziak makillajearen bidez.	Estetika.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.
1264. Aurpegiko eta gorputzeko protesiak sortzea.	Estetika.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.
1265. Karakterizaziorako ile-apainketa.	Ile-apainketa.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.
1266. Ile-eranskingintza.	Ile-apainketa.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.
1267. Pertsonaien 2Dko eta 3Dko diseinu digitala.	Irudi Pertsonaleko Aholkularitza eta Prozesuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1268. Diseinu grafiko aplikatua.	Irudi Pertsonaleko Aholkularitza eta Prozesuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1269. Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak.	Irudi Pertsonaleko Aholkularitza eta Prozesuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1270. Karakterizazioko eta makillaje profesionalako proiektua.	Ile-apainketa. Estetika.	Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.
	Irudi Pertsonaleko Aholkularitza eta Prozesuak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1271. Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak.	Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
1272. Enpresa eta Ekimena.	Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak.	Bigarren Hezkuntzako katedradunak. Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

B) *Irakaslanari dagokionez baliokideak diren titulazioak.*

KIDEGOAK	ESPEZIALITATEAK	TITULAZIOAK
Bigarren Hezkuntzako irakasleak.	Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak.	Enpresa Zientzietako diplomaduna. Lan Harremanetako diplomaduna. Gizarte Laneko diplomaduna. Gizarte Hezkuntzako diplomaduna. Kudeaketa eta Administrazio Publikoko diplomaduna.
Lanbide Heziketako irakasleak.	Ile-apainketa.	Irudi pertsonaleko aholkularitzako goi-mailako teknikaria edo beste titulu baliokide batzuk.
Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.	Estetika.	Estetikako goi-mailako teknikaria edo beste titulu baliokide batzuk.

C) *Ikastetxe pribatuetarako behar diren titulazioak.*

LANBIDE-MODULUAK	TITULAZIOAK
0685. Plangintza eta proiektuak. 1267. Pertsonaien 2Dko eta 3Dko diseinu digitala. 1268. Diseinu grafiko aplikatua. 1269. Karakterizatzeko eta makillatzeko produktuak. 1271. Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak. 1272. Enpresa eta ekimena.	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa edo kasuan kasuko graduiko titulua edo irakaslanari dagokionez baliokideak diren beste titulu batzuk.
1261. Pertsonaien karakterizazioa. 1262. Makillaje profesionala. 1263. Efektu bereziak makillajearen bidez. 1264. Aurpegiko eta gorputzeko protesiak sortzea. 1265. Karakterizaziorako ile-apainketa. 1266. Ile-eranskingintza. 1270. Karakterizazioko eta makillaje profesionalako proiektua.	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa edo kasuan kasuko graduiko titulua, edo beste titulu baliokide batzuk. Diplomaduna, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa edo kasuan kasuko graduiko titulua, edo beste titulu baliokide batzuk. Jantzigintza Industrialeko Prozesuetako goi-mailako teknikaria edo beste titulu baliokide batzuk. Patroigintzako goi-mailako teknikaria edo beste titulu baliokide batzuk.

5. ERANSKINA

EREMUAK

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA
Ikasgela balioaniztuna eta diseinu- eta argiztapen-gela
Makillaje eta ile-apainketako ikasgela teknikoa
Protesiak fabrikatzeko tailerra